Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2012 urteko jardueren memoria

AURKIBIDEA

- **AURKEZPENA** 1
- **BIZI BALDINTZA MATERIALAK**
  1. ETXEBIZ-HITZA PLATAFORMA 3
  2. ENPLEGU LAN TALDEA 6
  3. HIRIGINTZA BARNERATZAILEA 8
  4. D.O.T. LAN TALDEA 11
  5. GAZTETXEEN PROTOKOLOA 13
  6. GAZTE NEKAZARIAK 14
  7. GAZTEEKIN! 15
  8. GIZARTE ERAGILE ETA EKIMENEKIN ELKARLANA 17
  9. ERAKUNDE ETA ADMINISTRAZIOARI INTERPELAZIOA 18
  10. BARNE KOORDINAZIOA 19
  11. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK 20
- **HEZKUNTZA**
  1. HEZKUNTZA EZ FORMALA 22
  2. HEZKUNTZA FORMALA 31
  3. HARREMANAK 33
  4. EGUNEROKOTASUNA 37
- **JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK**
  1. KULTURARTEKOTASUNA - KULTURANIZTASUNA 39
  2. GENEROA 42
- **KOMUNIKAZIOA**
  1. PIZTU! HAMABOSTAROKO BULETIN ELEKTRONIKOA 47
  2. WEB ORRIALDEA ETA SARE SOZIALEN KUDEAKETA 49
  3. AHOTIK AT! ALDIZKARIA 50
  4. GAZTERIAREN KONTSEILUAREN ZERBITZU KATALOGOA 52
  5. BERRIZ BERRI HILEROKO POSTER-AGENDA 54
  6. “ELKARTEENTZAT KOMUNIKAZIO ERREMEDIOAK” IKASTAROA 57
  7. GAZTE BORRASTE IRRATSAIOA 58
  8. GAZTE KOMUNIKATZAILEEN TOPAKETEN ABIATZEA 61
  9. KOMUNIKABIDEEN GIDA 63
  10. BIDEO BATEN EKOITZPENA 64

11. GAZTEPRESS PRENTSA-BULETINA 65
12. DURANGOKO AZOKA 67
13. KOMUNIKAZIO KANPAINAK 68
14. BESTE BATZUK 70

- **LURRALDETASUNA**

1. GAZTEEKIN! PROZESU PARTE HARTZAILEA 71
2. EGK ETA BARRUKO ELKARTEEKIKO LANA 74
3. SAREEKIKO LANA 80
4. ADMINISTRAZIOETAKO GAZTERIA SAILEKIN LANA 83
5. EGK LURRALDERANTZ 93

- **EGKko PRESIDENTZIA**

1. BARNE KOORDINAZIOA 95
2. ERAKUNDE GARAPENA 97
3. BAKEA 98
4. ERAKUNDEEKIKO ELKARLANA 99

0. AURKEZPENA

Dokumentu honetan 2012 urteari dagokion EGKren memoriaren berri ematen da. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, bere proiektuak eta ekintzak xede bat lortzeko bideratzen ditu, hau da:

"Gazteen bizi baldintzen osoko hobekuntzaren alde egitea, parte hartze sozialaren sustapenaren bitartez eta erantzunkizun publikoa oinarritzat hartuz."

Helburu orokor hau lortzeko, sei lan ildo estrategiko zehaztuta ditu Kontseiluak:

- Barne funtzionamendu egokia bermatzea.
- Era askotako eragileentzako erreferente eta berrikuntza iturri izatea, gazteria eragileentzako batez ere.
- Gazte elkartegintza mugimendua sendotzea eta baita pertsona gazteen parte hartzea bultzatzea ere.
- Gazteria politika publikoen hobekuntzan are gehiago eragitea.
- Pertsona gazteek euren hiritartasuna egikaritu dezatela bultzatzea.
- Eredu partehartzaile eta eraldatzaileen bitartez gizarte bidezkoagoa eraikitzen laguntzea.

Ildo hauek sei lan arlotan lan egiten garatzen dira, zehazki hauetako bakoitzean martxan jartzen diren proiektuak aurrera eramanez:

Hezkuntza
. Formala
. Ez formala
Bizi Baldintza Materialak
. Osasuna
. Enplegua
. Etxebizitza
. Hirigintza
Justizia eta Berdintasunerako Baldintzak
. Genero arteko ekitate eta berdintasuna
. Kulturartekotasuna
. Bakea
Komunikazioa
Lurraldetasuna
Barne Koordinazio Teknikoa

Memoria honetan 2012. urtean EGK-k bere lan arlo ezberdinetatik EAEn burutu dituen proiektuen azalpena ematen da, lortu diren helburuak aipatuaz eta etorkizunari begira izan dezaketen jarraikortasuna azpimarratuaz.

Zerrendatu diren ekintza gehienetan EGKko kide diren elkarteen babesa izateaz gain, esparruan lanean diharduten eta haur eta gazteen sailean paper garrantzitsua jokatzen duten beste hainbat eragile ere aritu dira. Beste batzuetan aldiz, teknikoagoa izan den lana burutu da, EGKk horretarako duen lantalde teknikotik landuta. Erronka elkarteak, mugimenduak, plataformak etab. EGKren jardueran geroz eta gehiago inplika daitezen lortzea da. Haien aldetik geroz eta eskaera eta erantzun handiagoak jasotzea, gazte mugimenduari behar duen zerbitzua eman ahal izateko, haien eskaerak bideratzeko, modu koordinatuan arazoak gainditzeko eta Administrazio publikoekin bitartekari lana egiteko.

2012a gainera urte berezia izan da EGKrentzat. Izan ere, azken urteotan jasotako murrizketa ekonomikoek zuzenki eragin dute Kontseiluaren lan egiteko gaitasunean eta zenbait lan arlo murriztu egin behar izan dira, beste batzuk moldatu, eta beste batzuk, ia ezabatu. EGKko teknikari langileek gainera jardunaldi murritzagoak izan dituzte egoera ekonomiko behartuaren ondorioz, eta horrek islada zuzena izan du gainontzeko eragileekiko elkarlanean.

1. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

"Gazteon autonomia pertsonal zein kolektiboa, lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak eta etxebizitza eskubidearen ukazioak bultzatuta, geroz eta beranduago eskuratzen dugu. Independentzia materialaren gaineko haustura hau, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar, eta gazteon hiritartasuna guztiz ahultzen du. Gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendarte-komunitatean jokatzen dugun rola erabat mugatzen da."

BBM arloak, gazteon errealitate honi erantzuten dioten elementu ezberdinak biltzen ditu bere baitan: Etxebizitza, enplegua edo lana, gizarte ongizaterako baliabideak, lurralde eta espazio publikoaren antolamendua,... Guztiak, gazteon independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean bere biziko garrantzia duten alorrak dira. EGK, arloaren garrantziaz jabetuta, urteak daramatza ildo hau jorratzen eta aberasten. Azken urte hauetan, hauxe izan da lan esparru honen helburu orokorra:

Arloan oinarrizkoak diren gaien gaineko barne lana eta hausnarketa bideratu eta sendotu, beste eragileekiko lana irekiz eta indartuz, baita EGKren iritzia eta ekarpena administrazioan eta erakunde politikoen aurrean egon dadin bermatzea.

1.1 Etxebiz-Hitza plataforma

Deskribapena

EtxebizHitza plataforma ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN inguru lan egiten duen hiru lurraldeetako eragilez formatutako plataforma bat da. Bertan, EGKk eragile bat gehiago bezala parte hartzen du, baina bada koordinazioa eta dinamizazioaren arduradun ere bada, bataz beste hilabetean behin ematen diren bilerak Bilboko egoitzan jasoz, bilerak dinamizatuz, aktak jasoz, gai ordena zabalduz, deialdiak irekiz eta gauza teknikoetaz arduratuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten dugun gazteontzako.

HELBURU ZEHATZAK
- Plataforma bezala jarraipena emateko idazkaritza ardura hartu.
- Eragile sozial eta sindikalekin batera, etxebizitzaren inguruko problematika landu eta kalera begirako ekimenak garatu. Plataforman eragileak gehitu.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Aurreko urtean adostutako 'Etxebizitza lege berri batentzako oinarrizko neurrien DEKALOGOA' gizarteratu eta Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten taldei aurkeztu. Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.

Hartzaileak

- Plataformako kide aktiboak: ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK eta Kepasakonlakasa. Azken urte erdian gehitu diren kaleratzerikEZ!, kaleratzerikEZ! Rekalde, ADICAE, Iratzarri, RBUtaldea, SENDIA eta titulo pertsonalean datozenak. Aurreko urtetik Bizkaia aldeko eragile gehiago erakartzea lortu da.
- Bestelako elkarteak: sindikatuak, etxebizitzaren inguruan lanean diharduten taldeak, gizarte bazterketaren kontrako elkarteak, gazte elkarteak, Unibertsitatea, etab.
- Erakunde politikoak, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetza eta Legebiltzarra.
- Jendartea orokorrean eta gazteak bereziki.

Ekintzak

DEKALOGOAREN ATXIKIMENDU KANPAINA ITXI ETA ERAGILEEKIN ZER EGINAK ZEHAZTU

- Aurreko urtean plataformaren barruan idatzitako 'etxebizitza legearentzako neurrien dekalogoa'ren babes kanpaina urte amaiera eta urte hasieraren artean eman zen. Berton 20 eragilek baino gehiagok eman zioten atxikimendua dekalogoari.
- Behin atxikimenduak lotuta eragileekin bilerak egin ziren mobilizazio eta aurrerapausoak adosteko

ETXEBIZ-HITZA DEKALOGOAREN AURKEZPENA NAZIOARTEKO BESTE EKIMENEKIN

- 'International Alliance of Inhabitants'eko kide biren bisita aprobetxatuz Euskal Herrian etxebizitza eskubidea lantzen duten beste ekimenekin harremana estutzeko saiakera egin zen. Horretarako, jardunaldi batzuk antolatu ziren martxoaren 2 eta 3an, Bilbon eta Donostian.
- **Bilboko egitaraua:**

_Stop Deshaucios (Bizkaia)
_Vía Urbana (internazionala)
_Coop-Hábitat (Rep. Dominicana)
_Etxebiz-Hitza

- **Donostiako egitaraua:**

_Kepasakonlakasa-etxe hutsak(Gipuzkoa)
_Autorrecuperación de viviendas okupadas en Italia
_Etxebiz-Hitza

- Guztira 30bat pertsona hurbildu ziren jardunaldietara.
- Prentsan artikulo bat argitaratu zen_Berria

Gazte Borrasten Dekalogoaren aurkezpena egin zen

ETXEBIZ-HITZA DEKALOGOAREN AURKEZPENA LEGEBILTZARREAN

- EtxebizHitza plataformaren helburuetariko bat Legebiltzarrari proposamenak luzatzea zen, eta Dekalogoa itxi eta gizarteratu ondoren atxikitutako elkarte eta mugimenduek oniritzia eman zioten aurkezpen honi.
- Agerraldia eskatu eta Martxoaren 23an eman ziguten. Legebiltzarrera plataformako hiru kide gerturatu ginen: kepasakonlakasa, LAB eta EGK, EGKko komunikazio teknikariaren laguntzarekin. Bertan dekalogoaren aurkezpena egin eta legebiltzarkideek luzatutako galderei erantzuna eman genien. Informazioa eta bideoak EGKren web orrian.
- Legebiltzarkideen erantzunak ezberdinak izan ziren, baina inolako erantzunik ez dugu jaso, joandakoan lege proiektua ez baitzeukaten haien eskuetan. Orain onartu dela ez da uzte denborarik egongo den legebiltzarrean lantzeko hauteskundeak baino lehenago.
- Hiru irratsaiotan egin zen honen inguruko elkarrizketa.

M15M ETXEBIZITZA MAHAINGURUA

- M15M-etik sortutako KaleratzerikEZ! Taldeak plataforman parte hartzen hasia dela eta Maiatza Globala ekimenaren barne Etxebizitza eskubidearen inguru mahainguru bat antolatu zuen eta EGK EtxebizHitza koordinatzaile moduan gonbidatu zuen Jaularitzatik bultzatzen diren politiken irakurketa egin eta alternatiba den Dekalogoaren aurkezpena egiteko, besteak beste.
- Bideoa EGKren web orrian.

ETXEBIZITZA LEGEAREN HAUSNARKETA ETA KRITIKA

- Eusko Jaularitzak ekainaren hasieran Etxebizitza Lege Proiektua onartu zuen eta publiko egin. Honen aurrean, EtxebizHitza plataformaren barnean proiektu honen irakurketa egin eta beroren analisia bideratu zen.
- EGK-k legearen laburpena egin zuen.
- Plataforman legearen analisia eta manifestu bat adostu zen. “Etxebizitza Legea: hitz polit eta gezur artean” manifestua EGKren web orrian.
- Gazte Borrasten ‘Etxebizitza legearen gezurrak’ jakinarazi ziren. Informazio guztia EGKren web orrian.

GOBERNU BERRI BATEN OSAKETAREN AURREAN, ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOEK HARTU BEHARREKO BIDEAREN HAUSNARKETA

- Egungo egoeraren aurrean Dekalogoan plazaratutako ideiak nahikoak ez izanik, plataforman parte hartzen duten kolektiboen artean beste puntu eta ideiak gehitzen ari dira (urtea bukatutakoan ez da adostu oraindik dokumentu definitiborik)
- Eratzen ari den Legebiltzar eta Jaularitzarekin plataformaren ikuspuntua luzatzeko bilerak egitea planteatzen ari da, martxan jartzen diren etxebizitza politiken norabidean bideretzeko intentsioarekin.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Plataformak berak gora behera nabariak ditu, baina jorratzen den gaia eta bereziki jorratzen den ikuspuntua ez denez beste inguru askotan lantzen, harrera ona dauka eta deialdiak egiten direnean beste eragileen erantzuna ona da. Hala ere, proaktibitatea ez da nahi bestekoa eta EGK-k ardura gehienak jasotzen ditu.
- Azken hilabeteetan kolektibo gehiago gehitu dira, izan ere, etxebizitzaren inguruan maila lokalean ekimen asko bideratzen ari baitira.
- Hilabetean bilera bat egiten da gutxi gora behera, aurrera eraman beharreko gauzen arabera. Bereziki azken bileretan jende gehiagok parte hartu du, baina kale ekintzak ezin dira bideratu jende faltagatik.
- EtxebizHitza komunikabideetan harrera ona dauka eta etxebizitza eskubideaz hitz egitera gonbidapenak heltzen dira noizean behin.

1.2 Enplegu lan taldea

Deskribapena

Luze da EGKtik gazteriaren prekarietatea salatzen dela, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatzen ditugun baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo gaitu gazteoi eta bideratzen ari diren erreformek ez dute gure prekarietatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da geuk gazteok, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde bat sortzea.

Azken lau urteetan EGKk Gazteria eta Enplegua eztabaida eta formazio jardunaldiak etorri da antolatzen, EGK osatzen duten elkarte ezberdinen elkarlanaren ondorio eta gazteriaren inguruko politiken inguruko hausnarketa eta formazioa ahalbidetuz. Hala ere, egitasmo hau bultzatzen zuen talde motorea hoztu izan da eta bultzada emateko esfortzua egiteko momentua badela dirudi.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Gazteriaren perspektiba batetik enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren aldaketa eta eskubide murrizketak hausnartu, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gure egoera aztertu eta gazteok eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

HELBURU ZEHATZAK
- EGK barruko enplegu lan taldea bultzatu eta gazte elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enpleguaren inguruko politiken inguruan hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteon prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz.
- Eragile ezberdinen arteko harremana sendotu.
- EGKren baitan material propioa garatu.
- Plangintzako 1.2.2 eta 1.2.3 proiektuak lan taldearen barruan bideratzen saiatu.

Administrazio eta beste erakundeekin

Hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldeko kide aktiboak: Federación Vasca de Junior Empresa, Iratzarri, JOC eta EGK barneko beste elkarteak (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak, Ikasle Abertzaleak...)
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

Ekintzak

LAN TALDEA MARTXAN JARTZEA

- Urtearen lehen hilabetetan EGK barneko elkarte eta talde ezberdinekin harremanetan izan gara taldea bideratzeko ideia aurkeztuz eta haien parte hartzeko interes eta proposamenak jasoz. Ideia lehenik eta behin EGKko taldeekin lantaldea sortzea izanik, beste elkarteak gero gehitzeko.
- Besteak beste, CCOO, Federación Vasca de Junior Empresa, Ikasle Abertzaleak, JOC eta Iratzarrirekin egin dira bilerak hien aldetik harrera ona edukiz. Beste elkarte batzuk ez dute interesik aurkeztu.
- Lan taldearen lehen bilera martxoaren 14ean izan zen. Bertara interesa aurkeztutako zenbait talde jada ez ziren agertu, baina oro har 8 pertsona (5 kolektibo) izan ginen. Ordutik 'lan erreforma' onartua izan zela eta CCOOk honen inguruan gazteria perspektiba batekin hurrengo bileran tailer bat bideratzeko eskaintza egin zuen, azkenean eta arrazoi ezberdinek bultzatuta aurrera eraman ez zutena.
- Hurrengo bileretan jende gutxiago agertu eta orokorrean FVJE, Iratzarri, JOC eta EGK elkartzen gara. AJEBASKeko kideak zailago du etortzeko bileretara baina lan taldea jarraitzen du.
- Urte bukaeran indarrik gabe geratu da taldea.

GAZTEOK GREBAN

Martxoaren 29ko grebara EGKk deitzen zuelarik Gazteok Grebara joateko arrazoiak aurkeztuz manifestu bat idatzi zen. M29an Gazteok Greban! Arrazoiz eta eskubide osoz. Manifestua EGKren web orrian.

APIRILAREN 28A

- Aurreko urteetan bezalaxe EGK-k Nazioarteko Osasunaren Eguna aprobetzatuz aurten ere eragile ezberdinekin adostutako Gazteriaren Lan Baldintzak salatu eta Lan Osasuna bermatzeko aldarrikapenak luzatzeko manifestu bat adostu nahi izan da. Enplegu/prekarietate lan taldea abian zela eta taldearen barruan adierazi nahi ziren ideiak finkatu ziren gero kanpoko eragileekin lantzeko.
- Manifestuaren sinatzaile 15 eragile izan ginen.
- Manifestua eta Prentsa oharra EGKren web orrian.

LANAGATIK ATZERRIRATUTAKO GAZTEAK
Enplegu/Prekarietate lan taldean landu nahi eta ari den gaia da hau. Administrazio, prentsa eta lobby ekonomikoetatik gazteon langabeziaren aurka autoenplegua eta atzerrira joatea direla konponbide plazaratzen da, bi aukera hauen benetako irakurketa bat egin gabe. Lan taldean bideratu nahi dena aukera hauen benetako aurpegia plazaratzea da. Hortan gabiltza.

LAN ISTRIPU BATEN ONDORIOZ HILDAKO GAZTEEN HERIOTZ SALAKETA
Protokoloa eguneratzeko proposamena landu izan da. Kontraste .ekarpen eta onarpenaren zain, aurreko protokoloa erabiltzen jarraitzen da.
Gazteon langabezia aurten ere gora egiten jarraitu duela eta beste arrazoiak medio, haien lanpostuetan gazte langileen heriotz bi besterik ez dira zenbatu datu ofizialetan, batean protokoloa martxan jarriaz:
-2012/07/04 Zumaiako gazte baten lan-heriotzaren salaketa EGKren web orrian.

BIZKAIKO GAZTE ENPLEGU PLANA-REN HAUSNARKETA
BFArekin sinatutako hitzarmenaren barruan, Gaztedi Biziaren testuinguruan agertzen den Gazte Enplegu Planaren hausnarketa egiten ari da, elkarte eta agente ezberdinekin 2013.urteko lehen hiruhilabetean plan honen hausnarketa kolektiboa bideratu eta proposamenak luzatzeko monografiko bat antolatzeko helburuakrekin.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Lan taldearen bideratzea eta bertan elkarteen parte hartzea ez da nahi bezain ona izan, hau lan karga eta denbora faltarekin nahastuta urte bukaeran taldearen indarra galtzea ekarri du.
- Proposatutako ekintzen bideraketa ematen ari da mantso mantso
- Proaktibitatea eta bideratutako eztabaida eta hausnarketaren sakontasuna: ez dago oraindik honen irakurketa egiterik, ekintza gutxi eraman baitira aurrera.

1.3 Hirigintza Barneratzailea

Deskribapena

Proiektu honen xedea aurreko urteetan hirigintza eta lurralde antolamenduaren inguru landutakoan sakontzea da, berdintasunaren ikuspuntu barneratzaile batetik begiratuta gure hiri eta herrien antolamendua hausnartuz, gazteon parte hartzearen indar handiarekin.
Hiri eta herriak gure gizartearen euskarriak diren heinean, haien planifikazio, eraikuntza, birgaikuntza eta erabilerak gure gizartearen antolamendu eta jokaeraren ondorioz arautzen dira, baina badute ere antolamendu eta jokaera hauen gain eragin garrantzitsurik, bai berauek aldatzeko, bai aldiz mantendu egiteko ere.

Historikoki, gure gizartearen arauak gizon txuri nagusien behar eta nahietan oinarritu dira, gazte, emakume zein beste jatorri eta kulturetako pertsonak kanpoan utziz. Ondorioz, hiriak eta hiriak helburu berberekin antolatu izan dira, gizartearen kopuru handi baten behar eta nahiak asetu gabe, haien, geure, izana ezkutatuz, zapalduz, gutxietsiz...
Hala ere, hirigintza teknika neutro bat denaren irudia izaten jarraitzen dugu, araudi zorrotzen eta metro karratuen atzean dauden erabaki baztertzaileak ikusi ezin. Honegatik, praktika baztertzaileak identifikatu,antzeman eta berauen eraginaz jabetzea berebizikoa gertatzen da gure hirigintza barneratzaile bihurtu eta berarekin batera gizarte barneratzaileago baten bidea eraikitzeko.

Ildo honetan, garrantzi handia hartzen du praktika baztertzaileak identifikatu eta birmoldatzeko proposamenak egiterakoan 'behar praktiko', 'interes estrategiko' eta 'eraldatze potentzialaren' arteko ezberdinketa argia egiteak [M. Molineux eta K. Young] , izan ere, honen inguruan landu izan diren gaiak ikusita, behar praktikoen inguruko gehiegizko lanketa antzematen baita, interes estrategikoen begirada eta hausnarketa hirigintzan txertatzea beharrezkoa eginez.

Honez gain, eta gizarteak azken hamarkadetan izandako aldaketak medio, hirigintzan genero perspektiba jasotzeaz gain, adin perspektiba ere barneratzearen beharra ikusten da, botere erlazio ez-orekatuak adinaren arabera modu ezberdinean ematen direla eta gazteok hirian behar eta nahi bereziak dauzkagula antzemanda.
Proiektu honetarako atal ezberdinetan beste teknikariekin elkarlanean egingo da, berez, berdintasun eta komunikazio teknikariekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Gure hiri eta herrien antolamenduan, hirigintzak, zein bere eginkizunetan eragina duten beste legeri, araudi, ohitura eta teknikek gure gizartearen ezberdintasunak mantentzen duten paper garrantzitsua azpimarratu, gai honen inguruko eztabaida plazaratu eta hirigintza barneratzaile eta parte hartzaile baten oinarriak hausnartu.

HELBURU ZEHATZAK

- Ikuspuntu barneratzaile batetik, gaur egungo hirigintzaren azterketa bat egin, arreta bereziz adin eta genero arrazoiengatiko bazterketak aztertuz.
- Hirigintza barneratzaile baerako bidean eman beharreko aldaketak behar praktiko, interes estrategiko eta eraldatze potentzialaren artean bereizi, gizarte barneratzaile bat hezitzen duen hirigintza sustatzeko
- Hirigintzaren eraldaketan eta moldaketan lan egiten duten elkarte eta ekimenen arteko, gazteen parte hartzea daukatenena bereziki, elkarlan sustatu eta formazio eta eztabaidarako topaketa bat antolatu.
- Hirigintza eta lurralde antolamenduan eskumena daukaten administrazio eta deparamentuetan hirigintza barneratzailearen ikuspuntua txertatu, behintzat saiatu.

Gaiaren inguruko txosten baten publikazioa: **AHOTIK AT!**

Hartzaileak

- Gure hiri, herriak eta berauen espazio publikoak biziberritzen dituzten elkarte eta kolektiboak. Bileretan parte hartu izan dutenak: Etxegorri, GetxoBerpiztu!, re_akt kolektiboa, KalekoLan, la Anécdota, ColaBoraBora, JAWestudio, phpositivo , EGK , Hiria kolektiboa, Zaramari.
- Hiri eta herrien plangintzan eskumena daukaten administrazioak. Eusko Jaularitzako hirigintza sailarekin harremanetan egon gara.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

Ekintzak

LAN TALDEA MARTXAN JARTZEA

- Lan taldea bideratzeko intentsioarekin eta eragile ezberdinek dituzten interes eta nahiak aztertzeko haiekin bilerak bideratu izan dira. Besteak beste, Getxo Berpiztu!, JAWestudio, Zaramari, Etxegorri eta Reakt_kolektiboekin. Biltzea ezinezkoa zuten beste ekimen batzuekin harremana ere izan da mailez.
- Lehen bilera Maiatzaren 31an izan zen. Guztira 11 pertsona 8 ekimen ezberdinetik gerturatu ginen, gerturatu ezin izan ziren pare bat ekimenek ere interesa aurkeztuz. Ordutik beste hiru bilera egin dira parte hartze nahikorekin Iraileko topaketak prestatzeko.
- Administrazioko teknikari ezberdinekin ere egon gara harremanetan, besteak beste, Jaularitzako Hirigintza sailarekin, zeintzuek 600eurotako diru laguntza emateko prest agertu diren eta proiektuan interesa agertu dute.

#27UH TOPAKETA (urriak 27)

Lan taldea martxan jarrita #27UH “tejiendo ciudad entre todxs / denon artean hiria saretzen” topaketa antolatu zen. Horretarako taldekideen partaidetza aktiboa izan zen eta urriaren 27an egun osoko topaketa egin zen Bilboko San Francisco auzoko Harrobia zentroan.

- Zabalpena eta egindakoa plazaratzeko blog bat sortu zen. Bertan ondorioak eta beste deialdiak EGKren web orrian topa daitezke.

- Aurrera eramaten ari diren proiektuen erakusketa txiki bat ere antolatu zen.
- Goizez 22 pertsona izan ginen, arratsaldez 19.
- Hirigintza barneratzailearen alde elkarlanean egiteko sare bat sortzearen inguruan, zertarako eta nola gaiak landuz, hurrengo topaketa bat antolatzea erabaki zen.

#27UH 2.0 TOPAKETA (abenduak 15)

#27UH topaketan erabaki zenez, lau pertsonetako lan talde motorea eratu zen hurrengo bilkura prestatzeko. Hau, abenduaren 15ean egin da eta Hirigintza barneratzailearen alde lan egiteko sare bat antolatzearen inguruan aritu izan da.

ARGITALPENA BIDERATU: AHOTIK AT!
Hirigintza barneratzailearen inguruan AhotikAt! 44 orriko ale bat argitaratu izan da. Bertan, kolaborazioetaz gain, ikuspuntu berriak jorratu dira gazte ikuspuntu batetik. Lan hau Komunikazio teknikariarekin batera bideratu da.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Elkarte eta kolektiboekin harremanak: lehenago EGKrekin harremanik ez zuten gazte elkartu zein ez elkartuekin egin da lana, baita EGKrekin erlazioa izandakoekin ere, eta berez, oso positiboki baloratzen da hau. Oso positiboki baloratzen da baita topaketara zuzenean kontaktatu ez zen jendea hurbildu izana.
- Landutako gaiaren sakontasuna: kontutan izanda prosezuan hirigintzarekiko harreman oso ezberdina duen jendeak parte hartu izan duela, gaiaren lanketak hanka anitz izan ditu. Hala ere, hirigintzarekiko ikuspuntu "tradizionaletik" at egon dira gehienak, eraldaketa ispiritu txalogarriarekin.
- Sortutako taldearen proaktibitatea oso ona izan da, lan ugari eginda. Hortaz gain, topaketan parte-hartzea oso aktiboa izan zen baita.

1.4 DOT lan taldea

Deskribapena

Orain Lurralde Antolamendu Artezpideak berrikuzten ari direla, berriro ere gizartearen parte hartzerik egon ez dela eta onartu beharreko dokumentuak 1997ko oinarri berak mantentzen dituztela, paradigma ekonomiko desarrollista berberan mantenduz, Desazkundetik bultzatu eta koordinatutako DOT lantaldea bizi handia hartu du 2011ko azken hilabeteetan. Horrela ba, lan talde honen barruan zenbait dokumentu landu dira, besteak beste, Lurralde Antolamenduaren informazio triptiko bat, Euskal Hiria. NET dokumentuaren hausnarketa edo Lurralde Antolamendu Artezpide alternatiboak.

EGKtik parte hartu izan da, 2010.urtean landu ziren Lurralde Antolamendu Artezpide Alternatiboen lanarekin jarraituz, Planoetatik kalera jardunaldien harira, eta gehien bat, artezpide hauek gure lurraldearentzako suposatuko dutena kontutan hartuz. Horrela ba, lan talde honetan modu aktiboan lan egiten jarraituko da, daukan bultzada aprobetxatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Desazkundean, gertutasuneko produkzio eta kontsumoan, elikadura subiranotasunean, energia nahikotasunean, garraioaren beharraren murrizketan, kulturaren deszentralizazioan, naturaren babesean... oinarritutako lurralde antolamendu eredu bat bermatu eta gizarteratu, non bertoko biztanleon parte hartzea berebizikoa den.

HELBURU ZEHATZAK

- Lurralde Antolamendu Artezpideen onarpena baino lehen berauen inguruko prozesu parte hartzaile bat bideratzea eskatu.
- Lurralde Antolamendu Artezpideen ikuspuntu ez desarrollista bat gizarteratu.

Lan taldean modu aktibo batean parte hartu.

Hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gai hauetan eskumena duten teknikari eta politikariak
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

Ekintzak

LAN TALDEAREN DINAMIKAK JARRAITU

- Lan talde honetan EGKk beste kideek bezala parte hartzen du, Deshaskundea da koordinazioaren arduradun. Taldearen dinamikak jarraitu dira, artezpide alternatiboak proposatuz, bileretan aktiboki parte hartuz...eta abar.

ADMINISTRAZIOAREKIN INTERLOKUZIOA

- Urte hasieran Eusko Jaularitzako Lurzoru saileko arduradunekin egin zen bilera EuskalHira.net artezpideen kritika aurkeztu, berauen hasierako onarpena geldiarazteko eskaera luzatu eta proposamen alternatiboa aurkezteko.

LAA-EN HASIERAKO ONARPENEI ALEGAZIOA

Behin Artezpideen hasierako onarpenaren ostean berari alegazioak idaztzi izan dira eta gaiaren sozializazioa bideratu da.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Egin behar gehienek EGKk koordinatutako beste plataformetan bideratutako ekimenekin bat egin izanagatik gure parte hartzea ezin izan da nahi bestekoa izan.
- Gaia gizarteratu izan da eta onarpen ona izan du gizarte mugimenduetan. Hala ere, hasierako onarpena ezin izan zen gelditu. Alegazioen erantzunaren zain.
- Lan taldeak aurrera jarraitu du baina EGKk ezin izan du parte aktiboa izan urte bukaeran lan karga eta denbora faltagatik.

1.5 Gaztetxeen protokoloa

Deskribapena

Hiri eta herrietako espazio publiko eta erabilera publikoko zerbitzu ezberdinek ez diete beti gazteon bizimodu, nahi eta beharrei erantzun egoki bat ematen, ez espazioengatik ezta antolamendu moduagatik ere, eta honen aurrean, hamarkadak dira gazte mugimenduek autogestioan, parte-hartzean, erabaki eta funtzionamendu autonomian oinarriturik eta dirulaguntzen eta epeen menpekotasunik at antolatzen direla.

Mugimendu hauek ekintza eta proiektu ezberdinak aurrera eramateko beharrezkoa duten espazioa lortzeko hiri eta herrietako eraikin hilak berpiztuz lortu dituzte [berez, bertan behera utziak izanagatik haien funtzio soziala betetzeari utzi diotenak], gure hiri, herri eta auzoei kolore berriak emanez. Hala ere, hildako eraikinak okupatu eta eredu berriekin berpiztea baino, legeriak jabetza pribatua ezeren gainetik defendatzen du, eta tamalez, gaztetxeen uztarazteak aurrera jarraitzen dute.

Horrela ba, urteak da 22.batzarrean elkarteek adostutakoa jarraituz EGKk Gaztetxeen uztarazte bate aurrean prentsa ohar baten bidez uztaraztearen salaketa egiten duela, gaztetxeek gure gizartea justuagoa, irekiagoa eta anitzagoa eraikitzeko daukaten paperaren aurrean beraiekiko elkartasuna agertuz.

Aurten ere protokolo honekin jarraitu nahi da, baina 22.batzarreko testua eguneratu beharra ikusten da (aurtengoa 31.batzarra izango da). Protokoloa berritu, zabaldu eta idatziz jasoko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteon autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeko duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babesa eman.

HELBURU ZEHATZAK
- Gaztetxe bat uztarazten den bakoitzean hedabideetan berau salatu eta EGKren posizionamendua agertu.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.

Proiektu hauei babesa aurkeztu.

Hartzaileak

- EGK barruko taldeak (batez ere lan eremuan aritzen direnak).
- Gazte talde eta eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

Ekintzak

PROTOKOLOAREN GARAPEN ETA ONARPENA

• EGKren batzar orokorra baino lehen Protokoloaren aldatzearen proposamen bat luzatu zen arlo teknikotik Permanentera. Behin ekarpenak eginda batzar orokorrean onartu zen protokolo berria kontrako botorik gabe. Idatziz geratu zen eta argi ez zeuden zenbait puntutan EGKren eginkizunak argi daude orain. Euskarar itzultzea falta da.

PROTOKOLOA MARTXAN JARTZEA

- **2012/06/26-** PATAKON GAZTETXEA. Bilboko Uribarri auzoa EGKren web orrian.
- **2012/09/28-**UZTALDI GAZTETXEA. Santutxu. EGKren web orrian.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Ekintzaren jarraipena: hustarazte bi salatu dira aurten. Ez da ego errazte (facilitación) eskaerarik hustarazte mehatzupean dauden gaztetxeetatik.
- Inpaktu komunikatiboa. Ez dute inpaktu handiegirik izan prentsan plazaratutako komunikatuek, baina bai sare sozialetan.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberaztasuna: batzar orokorrean onartu izan zen kontrako botorik gabe. Tamalez, batzarraren hurbileragatik eta denbora faltagatik, Permanentean lantzeko denbora falta nabaritu izan da.

1.6 Gazte Nekazariak

Deskribapena

2009. urtean erredaktatutako eta publikatutako Hizpideak IV argitalpena, gazte baserritarrek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia jendarteratu eta berau hobetzeko edo gainditzeko dauden aukerak ezagutzera eman zituen. Dokumentuan, nekazaritza eta landa eremua osatzen duten faktoreei so eginda, sektore honetako langile gazteen egoera aztertu zen, argitalpenaren difusioa 2010eko hasieran egin zelarik eta 2011an 'Tailerretik Landara' jardunaldietan landa munduan etorkizun bila dabiltzan gazteen arazo eta abaguneak aztertu ziren.

Aurten diru iturrien urritzea ikusirik, gai interesgarri honetan formatu bereko proiekturik ezingo da egin. Hala ere, gai honen inguruko informazioaren eskasia ikusirik, eta daukan garrantziaz ohartuta, era batera edo bestera jorratzea aurrikusten da. Nekazaritza subiranotasunaren inguruko kontzeptuan sakondu eta bertan gazteriaren parte hartzea aztertzeko asmoz hain zuzen ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Nekazaritzan dabiltzan edo landa munduan etorkizun bila dabiltzan gazteen egoera eta haien nekazaritza subiranotasunarekiko papera aztertu, orain arte egindakoan sakondu eta gazte nekazariekin bat formazio eta eztabaida sustatu.

HELBURU ZEHATZAK

- Gazte nekazarien elkarteen elkarlana sustatu.
- Gazte nekazarien egoera eta garrantzia gizarteratu.
- Bestelako produkzio eta kontsumo ereduen zabaltzea.

Hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki

Ekintzak

BEZTE ERAGILEEI PROPOSAMENAK BIDERATU ETA HAIENAK JASO

- Landa eremuko belaunaldi arteko elkartruke baten proposamen luzatu zitzaien Urdaibai mankomunitateko gazte teknikari batzuei, interesa aurkeztu baitzuten. Hala ere, proposamenak ez du aurrera jo eta bertan dago.
- EHNEtik proposamen bat luzatu egin zen Gazte Nekazarien Topaketa batzuk antolatzeko. Topaketa hauek antolatzeko lehen pausoak ematen ari zirela antolaketan aktiboki parte hatuko zuten gazte nekazarien erabakiz herritik bertatik sortutako ekimen bat izatea adostu zen, EGKren kolaboraziorik gabe. Beraz, haien esku geratu zen topaketen antolamendua.
- Denbora faltagatik eta lan kargagatik lan ildo hau bertan behera utzi izan da.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Denbora faltagatik eta lan kargagatik lan ildo hau bertan behera utzi izan da.

1.7 GazteEkin!

Deskribapena

Gazteriren ahotsa politika publikoetara heltzea bideratu nahi duen ekimena de GazteEkin!, horretarako gazte elkartu eta ez elkartuak politikari eta teknikariekin elkartu nahi ditu gazteriaren parte-hartzea politika publikoetan hausnartzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Gazteekin! ekimena bideratu, bereziki bizi baldintza arloarekin erlazioa izango zuten gaietan eta baita beste teknikariekin lankidetzan koordinazio lanetan.

HELBURU ZEHATZAK

- Etxebizitza, Enplegu eta Hirigintza topaketak antolatu eta dinamizatu.
- Gazte-ekin!-eko material eta soporte grafikoak garatu.
- Beste teknikariei laguntza eman.
- Kongresuaren antolaketa eta garapenean parte hartu.
- Ondorioen lanketan parte hartu

Hartzaileak

- Gazte elkartu, gazte ez elkartu, politikari eta administrazioko teknikariak
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki

Ekintzak

GAZTEEKIN! ETXEBIZITZA TOPAKETA

- Urriak 4ean antolatu zen bi orduko topaketa. Guztira 11 pertsona gerturatu ziren
- Bideoa ikusgai EGKren web orrian.

GAZTEEKIN! ENPLEGU TOPAKETA

- Urriaren 11an antolatu zen bi orduko topaketa Bilboko EGKren
  - Bideoa ikusgai EGKren web orrian.

GAZTEEKIN! HIRIGINTZA TOPAKETA

- Urriaren 23rako antolatu zen bi orduko topaketa, baina aurreko egunean izen emate gutxi zeuden eta ez zen aurrikusten izena eman gabeko pertsonarik urbiltzea hilabete horretan hirigintzari buruzko ekimen ugari baitzeuden martxan, beraz, bertan behera utzi zen eta jendeari #27UH topaketara joateko gonbitea bota zitzaion (aste horretan bertan baitzen).

MATERIAL ETA SOPORTE GRAFIKOAK GARATU

Materialen diseinua egin eta kudeaketan lagundu izan da. GazteEkin!-erako egindako materialak hurrengoak izan dira:

- GazteEkin! kartela (topaketak + kongresua):
- GazteEkin! eskuorria (topaketak + kongresua):
- GazteEkin! kongresuaren kartela:
- GazteEkin! kongresuaren eskuorria:
- Balizatzeko zinta:
- GazteEkin! pegatinak:
- Kongresurako materiala (motxilak, boligrafoak eta koadernoak)

GAZTEEKIN! KONGRESUA

Alde batetik kongresurako behar ziren material teknikoen prestaketa egin da (topaketen ondorioak eta landutako gaiak kongresurako erabilgarri egiten) eta bestetik EGKko kideekin batera kongresuan bertan eginbeharrak bete izan dira.

Jarraipena eta ebaluaketa

Bai topaketek bai kongresuak berak erantzuna izan dute (Gazteekin! proiektuaren ebaluaketa ikusi).

1.8 Gizarte eragile eta ekimenekin elkarlana

Deskribapena

Jendarte eragileekiko elkarlana da EGK-k burutzen duen beste lan garrantzitsuenetariko bat. Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) plataforma eta kolektiboen arteko dinamiketan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa azaleratu, ideiak eta ekimenak elkartrukatzea hain zuzen ere.

Helburuak

- Bileretan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa eta gazte ikuspegia bermatu.
- Beste eragilekin harremana ahalbidetu eta egonkortu.

Hartzaileak

- EGK kanpoko gazte eragileak.
- Gai sozialak jorratzen dituzten jendarte eragileak.

Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.

Ekintzak

BAGARA EKIMENA
Aurreko urtean bezalaxe oraingoan ere Bagara ekimenetik gazteen lan taldeko lehen bilerara gonbidatu gintuzten EGK "koerentzia"ren inguruan tailertxo bat ematera. Honetara Gipuzkoako koordinatzailearekin batera joan zen.

LAU KATU
Otsailaren 4ean antolatutako Mozketen aurkako manifestazioaren harira (gero egunez mugitu zena) Ortuellako Lau Katu elkarteak murrizketen inguru hitz egitera gonbidatu gintuzten ESK sindikatuarekin batera.

MAIATZA GLOBALA
EtxebizHitza atalean azaldu bezala, M15Mk antolatutako Maiatza Globalean etxebizitza eskubideari buruzko mahainguruan parte hartu izan da.

BESTELAKO EKIMEN ETA PLATAFORMAK
Bestelako ekimen eta plataformetan ere parte hartu izan da ahal izan den heinean, gehien bat, martxoaren 29ko grebaren inguruan gazte eta gizarte mugimenduak antolatu baitziren.

KALEXKA_GAZTE EZ EMANTZIPATUEN IKERKETA
Kalexka elkarteak 18-25 urte bitarteko gazte ez emantzipatuen ikerketa bat bideratu izan du eta EGKren ikuspuntua plazaratzeko eskatu dute, bai eta elkarteekin kontaktuan jartzea ere. Ikerketaren ondorioak oraindik ez daude ikusgai.

Jarraipena eta ebaluaketa

- EGKren diskurtsoak ohiartzuna duela ikusten da, ekimen eta plataforma ezberdinek EGKrengana jotzen baitute.
- Ekimen gehiagotan parte hartu nahi izan bada ere, denbora eta lankargagatik ezinezkoa izan da.

1.9 Erakundeei eta administrazioari interpelazioa

Deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) instituzioekiko eta beste lurraldeetako gazte kontseiluekin harremana izan eta mantentzea.

Helburuak

- Instituzio edo administrazioarekiko gai konkretuetan harremana izan eta interlokuzioa ahalbidetu.
- CJE rekiko harremana izan, informazioa partekatu.
- Beste kontseiluekin harreman puntualak mantendu.

Hartzaileak

- EAEko administrazio publikoa.
- CJE.
- Bestelako Gazte Kontseiluak.

Ekintzak

DOT LANTALDEAREN BARRUAN LURRALDE ANTOLAMENDU SAILEAN
DOT atalean azaldu da

ETXEBIZ-HITZA PLATAFORMA LEGEBILTZARREAN
EtxebizHitza atalean azaldu da

HIRIGINTZA BARNERATZAILEA: HIRIGINTZA SAILA ETA EMAKUNDE
Hirigintza atalean azaldu da. Berez, hirigintza saileko berdintasun teknikari eta hirigintza teknikariekin egin dira bilerak**.**

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK
Araban gazteria kontuetan eman diren murrizketen kontura EGKko presidentearekin batera Biltzar Nagusietara joan izan da talde politikoekin elkartzera, egoera lantzeko.

Jarraipena eta ebaluaketa

EGKren diskurtsoa esagutzera eman da zenbait erakunde eta administrazioen aurrean, bereziki etxebizitzaren inguruan. Hala ere, bieratzen den interpelazioak ez ditu neurgarri eta zuzenak diren fruitu handiegirik ematen. Askotan, interpelazio honen fruitu izan dira beste elkarteekin lankidetza sortzeko bidea, bai eta administrazioak ikuspuntu ezberdinak esagutzeko bidea.

1.10 Barne koordinazioa

Deskribapena

EGK barruko egitura eta funtzionamendua kontutan hartuta, barne koordinazioa mantentzea ezinbesteko lana da. Bai teknikarion artean, bai iraunkor eta batzarrarekin ere.

Helburuak

- Bulegoko gestioak burutu.
- Beste teknikariekin elkarlana bideratu, gai ezberdinen zeharkakotasuna bermatuz.
- Jarraipen lana burutu hilabeteka
- Memoria eta plangintzak zehaztu urtero.

Hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.

Ekintzak

BILERA TEKNIKOAK

IRAUNKORRAREKIN BILERAK

IRAUNKORREKO LOTUREKIN ELKARLANA
BBM arloko iraunkorreko loturak JOC eta Iratzarri direla, biek parte hartzen dute Enplegu/Prekarietate lan taldean eta Iratzarri EtxebizHitza azken bileretara agertu da baita. Elkarlana, beraz, ona da.

BESTE TEKNIKARIEKIN ELKARLANA
Berdintasun arloarekin bat hirigintza eta genero gaiak landu izan dira (artikulu bat argitaratu zen GoitiBeran eta zenbait bilera egin izan dira). Honez gain, EGKren berdintasun planaren barne Berdintasun Tailerrean parte hartu izan da.
Bestalde, arlo ezberdinekin elkarlana egin da diseinu kontuetan: Gazteriaren Foroa, Gazteekin, Aniztasun topaketa... Eta beste elkar lan batzuk ere bideratu dira.

1.11 Posizionamendu publikoak

Deskribapena

- Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) gertaera edo/eta testuinguruen aurrean EGKren diskurtso, balorazio eta iritzia azaleratzean oinarritzen da.

Helburuak

- EGKren iritzi ea diskurtsoa azaleratu gai ezberdinen inguruan.
- Momentuko gertaera eta errealitateari aurre hartu EGKren posizionamendua azaleratuz.

Hartzaileak

- EGK barneko elkarteak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

Ekintzak

ETXEBIZITZA [13]

- **2012/01/OO: EL CORREO:** alokairuen laguntzen etetearen iguruan
- **2012/01/17: HERRIA IRRATIA** alokairurako laguntzen etetearen inguruan eta EtxebizHitza plataformatik proposatzen ditugun neurrien inguruan
- **2012/ 03/02: gazte borraste**: etxebizitza dekalogoa EtxebizHitza plataforma
- **2012/03/04: Berria:** etxebizitza jardunaldien artikuloa eta dekalogoa
- **2012/03/19: BIZKAIA IRRATIA** gazteria eta etxebizitza
- **2012/03/26 BILBO HIRIA** etxebizitza dekalogoa Legebiltzarreko agerraldia
- **2012/03/26 TAS-TAS/HALA BEDI - ZEBRABIDEA** etxebizitza dekalogoa Legebiltzarreko agerraldia
- **2012/03/30 HALA BEDI** etxebizitza dekalogoa Legebiltzarreko agerraldia
- **2012/06/06 Euskadi irratia – Albizte Faktoria** – etxebizitza, jabetza eta alokairutik harago. Etxebizitza legea
- **2012/06/25 TasTas irrati librea – Gazte Borraste** – Etxebizitza lege proiektuaren hausnarketa.
- **2012/07/06 Bilbo Hiria irratia** EtxebizHitza eta etxebizitza lege proiektuaren hausnarketa.
- **2012/10 Gaztezulo**_Zuzkidura bizitokiak
- **2012/09/23 DIARIO VASCO** crisi ekonomikoa eta gazteen emantzipazioa. Alokairuak.

ENPLEGUA [3]

- **2012/02/09 BIZKAIA IRRATIA** (gazteria eta langabezia)
- **2012/04/27 RADIO POPULAR** (gazteria eta lan osasuna-lan erreforma)
- **2012/06/14 ONDA VASCA** Gazteriaren Euskal Behatokiak ateratako datuen arabera lan eta ikasketik egiten ez duten gazteen kopuruaren igoeraren inguruan (Ni-Ni belaunaldia)

HIRIGINTZA [2]

- **2012/ Goitibera** Hiriaren Kurrikulum Ezkutua (hirigintza baztertzailearen inguruko artikuloa)
- **2012/12 Ahotik At!**

OSASUNA [1]

2012/05/09 DIARIO DE NOTICIAS DE GIPUZKOA osasun dekretua eta 26 urte baino gehiagoko kotizatu gabekoen osasun etetearen inguruan

Bestelakoak

- **2012/08/28 Bizkaia irratia** _gazteen emantzipazioa eta dirulaguntzen mozketa.
- **2012/09/03 Punto Radio_** Gazteen egoera, emantzipazioa, enplegua...

2. HEZKUNTZA

A) HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1 Astialdi Foroaren Koordinazioa

Deskribapena

Astialdi Foroa (AF) EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarrizko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Orohar, balioetan oinarritutako heziketa bultzatu, Astialdiari lotutako elkartegintza indartu, eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak sustatu nahi dira.

Gaur egun Astialdi Foroaren baitan 16 eskola, 10 elkarteen federazio, 4 elkarte eta 2 fundazio bat daude, guztira 13.000 gazte inguru dira 32 erakunde hauen atzean daudenak. Gazte horiei eragiteak, beste horrenbeste familia, eta eragileri eraitea da, auzo eta herri mugimenduan zuzenean eragitea hain zuzen.
Astialdi Foroaren koordinazioa lurraldeka izan da, foro bakoitzak bere interesak, beharrak, erritmoa eta izaera propioa dauzkalako. Hala eta guztiz ere, gai zehatzetarako koordinaketa bateratua egon da: astialdiko kualifikazio berriak eta sentsibilizazio kanpaina.

Helburuak

Orokorrak:

- Astialdi Foroko koordinazioa ebaluatzea eta hobetzea.

Bizkaiko foroan ebaluazio oso ona egin da. Iaz hasi ginen plan estrategikoan oinarrituz ikasturte osoko bileren gaiak zehazten eta formula honek emaitza onak izan ditu. Uda ondoren ere horrela jarraitu dugu.

Arabako Astialdi Foroan ebaluazioa ona izan da. Abenduan amaitutako DAFO baten harira sortutako plangintza bat jarraitu da eta koordinazioa asko hobetu da. Gauza gutxi baina ondo landuta, hori izan da koska.

Gipuzkoako foroa oso ahul bukatu zuen aurreko ikasturtea. Plangintza bat jarraitu zen, baina ez da eraginkorra izan. Gai zehatz batzuetarako interesa erakutsi da baina egunerokotasunean ez da ia koordinaziorik egon. Ikasturte berria hobe hasi da zentzu horretan.

Bestetik, ezin da inoiz ahaztu elkarteen oinarria bolondresak direla eta askotan ez daukatela liberaturik lana aurrera erametako. Honek asko baldintzatzen du elkarteekin

egin beharreko koordinazioa, hau beti moldatu behar da taldeen erritmo eta beharretara.

- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea.

Plataformak hiru lurraldeetako 32 erakundek osatzen dute, bakoitzak bere ideologia eta metodologia propioarekin. Bestetik, tamaina aldetik oso ezberdinak dira: batzuk erakunde handi baten babesean daude eta 3 soldatapeko dauzkate eta, beste batzuk, ordea, ez daukate liberatu bat bera ere. Plataformako ezaugarri hauek esfortzu handia eskatzen dute lantaldea koordinatzeko eta sendotzeko.

Hala eta guztiz ere, astialdi erakunde bezala, interes eta behar amankomun asko dauzkate eta hor dago gakoa taldea sendotzeko eta hauen inplikazioa lortzeko. Bestetik, nahiz eta parte hartzea nahiko erregularra izan, nabaria da zeintzuk diren elkarte bakoitzari interesatzen zaizkion gaiak, jorratzen denaren arabera, hauen parte hartzea handitzen edo jaisten delako.

Zehatzak:

- Esperientziak trukatu (Ikusi Ekintzak atala)
- Lan komuna egin (Ikusi Ekintzak atala)

Hartzaileak

ASTIALDI FOROKO ESKOLAK, FEDERAZIOAK ETA TALDEAK

- ARABA

Arabako astialdi eskolak:

ATSEDEN ESKOLA
ARDURADUN ESKOLA
GAZTEEN GURUTZE GORRIKO ASTIALDIKO ESKOLA
ACCIÓN 21

Arabako Astialdi Foroko koordinakunde eta federazioak:

ATSEDEN TALDEAK
EUSKALERRIKO ESKAUTAK ARABA

Astialdi Taldeak:

AZTERLARIAK F.C.P.N.
SUALAI
- BIZKAIA:

Bizkaiko astialdi eskolak:

URTXINTXA ESKOLA
ITAKA ESCOLAPIOS FUNDAZIOA
GAZTETXO ESKOLA
GAZTEEN GURUTZE GORRIKO ASTIALDI ESKOLA
AISIOLA – IKASTOLEN ELKARTEA
KURKUDI

Bizkaiko Astialdi Foroko koordinakunde eta federazioak:

BIZKAIKO GAZTETXOEN KOORDINAKUNDEA
BOSKO TALDEA FEDERAZIOA
EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA
KIRIBIL SAREA
AMARAUNA SAREA

Fundazioak:

AISI-HEZI
EDE FUNDAZIOA

- GIPUZKOA:

Gipuzkoako astialdi eskolak:

LARRUNARRI ESKOLA
URTXINTXA ESKOLA
HEZKIDE ESKOLA
MUNDO NUEVO
GAZTEEN GURUTZE GORRIKO ASTIALDIKO ESKOLA
EZIKO

Gipuzkoako Astialdi Foroko koordinakunde eta federazioak:

ATZEGI
BIZI ALAI TALDEAK
EUSKAL HERRIKO GIAK

Beste elkarteak:

BERPIZTU
ELGOIBARKO IZARRA

Lurraldeka

a) Astialdi Foroa Araba:

2012n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria, *desplegablea,*** egin da. Aurten bakarrik formatu digitalean izan dugu Aldundiak proiekturako dirurik eman ez duelako. Aurten 13 elkarteen 22 egonaldiak plazaratu dira.

- Maiatzaren 10ean **Yes, we camp! La cabra tira al monte! Goazen kanpamenduetara!** sentsibilizazio kanpaina antolatu genuen. Goizez Arabako kanpusean eta arratsaldez Gasteizko erdialdian egon ginen. Honen helburuak astialdi taldeen lana eta hauetan diharduten bolondresen lana jendarteratzea izan dira.

- **Kudeaketa ekonomikoaren** inguruko formakuntza antolatu zen astialdi talde, federazio eta eskolei begira. Aldundiko Agustina Hómias-ek eman zuen 2 orduko ikastaro hau, non 9 erakundeetako 15 pertsona parte hartu zuten. Bi urtetan behin egitea adostu da.

- Astialdi Forora **talde berriak sartzeko kanpaina** abian jarri da ikasturte berrian. Ahalegin honetatik, oraingoz eskola bat eta talde bat hasi dira parte hartzen.

- **Jolas eta Ekin** erakundearekin elkarlana izan dugu. Garapenerako Hezkuntza lantzen duen erakunde honek haien laguntza eskaini zigun materiala eta formakuntzarako.

- **Astialdi Sarea** elkarteen elkartea eratu da. Honen funtsa da astialdi hezitzailearen ikuspuntua txertatzea Sareen Sarean, instituzioekin elkarlanean dagoen hirugarren sektoreko plataforma. Astialdi Foroaren koordinatzaileak Astialdi Sarean lantzen diren gaiak hiru foroetara eramaten ditu hauetan lantzeko.

- **Kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da. Ekainean, eskolak eta Lanbideko zuzendariaren arteko bilera, Gasteizen ospatu zen.

Ekimen hauek aurrera eramateko astialdi foroa hilero bildu da, eta urte bukaeran 15 egunetik behin. Gaur egun, Araban 2 astialdi talde, 2 astialdi taldeen federazio (guztira 35 talde) eta 4 astialdi eskola daude. Guztira 2.500 gazte daude erakunde hauen atzean (300 bolondres eta 2.200 gazte inguru).

b) Astialdi Foroa Bizkaia:

2012n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria *"desplegablea"*** egin eta zabaldu da. Guztira 2.500 ale banatu dira EGK-ko elkarte, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarte, gazteleku eta gazte informazio bulegoen artean. Gidan 43 elkartek burututako 80 kanpaleku agertu dira.

- **ONCE** eta **GORABIDE** erakundeekin hitzarmenak garatu dira, bat erakunde bakoitzeko. Akordio honekin, hurrengo ikasturtean, erakunde hauen hartzaileak astialdi taldeetan sartu nahi dira, inklusioa praktikan jarriz.

- **Bizkaiko Foru Aldundiak** garatutako **Gaztedi Bizkaia planaren** inguruko **saio bereziak** egin dira. Bata **BFAko teknikariekin,** bestea **saio monografiko** gisa, diagnosi txosten bat egiteko asmoz. Elkarlan honen bitartez, Astialdi Foroak Bizkaiko politika publikoetan eragina izan nahi du.

- **Astialdi Sarea** elkarteen elkartea maiatzaren 4an eratu zen. Honen funtsa da astialdi hezitzailearen ikuspuntua Sareen Sarean txertatzea, instituzioekin elkarlanean dagoen hirugarren sektoreko plataforma. Astialdi Foroaren koordinatzaileak Astialdi Sarean lantzen diren gaiak hiru foroetara eramaten ditu hauetan lantzeko. Bilera gehienak Bizkaian egin dira.

- **Kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da.

Astialdi Foroa Bizkaiaren lana aurrera eramateko foroa hiru astetik behin bildu da. Gaur egun, Bizkaian 5 astialdi taldeen federazio (guztira 50 astialdi elkarte daude), 6 astialdi eskola eta 2 fundazio. Guztira 6.000 gazte inguru dira 13 erakunde hauen atzean daudenak (1.000 bolondres eta 5.000 gazte inguru).

2012an bi erakunde berri sartu dira: Urtxintxa Eskolak bultzatutako Amarauna Sarea (25 astialdi elkarte) eta Aisi-Hezi Fundazioa.

c) Astialdi Foroa Gipuzkoa:

2012n aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen eskuorria *"desplegablea"*** egin eta zabaldu da. Guztira 1.500 ale banatu dira EGK-ko elkarte, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarte, gazteleku eta gazte informazio bulegoen artean. Gidan 36 elkartek burututako 62 kanpaleku agertu dira.

- **IHESA-ren Kontrako Komisioak** aurrera eraman duen boluntarioentzako plan arrakastatsua aurkeztu zigun gure erakundeetan egiten dugun boluntarioen harrera eta sustapena hobetzeko.

- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Txema Ramirez de la Piscina irakaleak 2 orduko **formakuntza** egin zuen. Ikastaroak elkarteen lana hobeto komunikatzea zeukan helburu.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrera eraman duen **Gaztematika** planaren barruan, elkarteek izan duten ibilbideari jarraipena egin zaio, baita planaren inguruko2 orduko formazio saio bat ere.

- **2013ko diru laguntzen** dekretuak garatzeko gazteriako teknikariek egiten duten aurre informea idatzi aurretik, **Astialdi foroa eta GFA teknikarien arteko bilera monografikoa** ospatu da, non eskola eta sareen proposamenak jaso diren.

- **Astialdi Sarea** elkarteen elkartea maiatzaren 4an eratu zen Donostian. Honen funtsa da astialdi hezitzailearen ikuspuntua Sareen Sarean txertatzea, instituzioekin elkarlanean dagoen hirugarren sektoreko plataforma. Astialdi Foroaren koordinatzaileak Astialdi Sarean lantzen diren gaiak hiru foroetara eramaten ditu hauetan lantzeko.

- **Kualifikazio berriek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da.

Astialdi Foroa Gipuzkoaren lana aurrera eramateko foroa hilero bildu da. Gaur egun, Gipuzkoan 3 astialdi taldeen federazio eta 2 elkarte daude (guztira 50 astialdi elkarte), eta 6 astialdi eskola. Guztira 3.000 gazte inguru dira 10 erakunde hauen atzean daudenak (400 bolondres eta 2.500 gazte inguru).

Jarraipena eta ebaluaketa

Ebaluaziorako irizpideak zenbakietan:

- Egin diren bilera kopurua:

    - Astialdi Foroa Araba: 9
    - Astialdi Foroa Bizkaia: 13
    - Astialdi Foroa Gipuzkoa: 9

- Bilera guztietan Astialdi Foroko erakundeen %60a parte hartzea:

    - Astialdi Foroa Araba: Bai
    - Astialdi Foroa Bizkaia: Bai
    - Astialdi Foroa Gipuzkoa: Ez

2.2 Astialdi taldeek antolatzen dituzten aktibitateekin eskuorria

Deskribapena



Eskuorri honetan hiru lurraldeetako astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jaso da (antolatzen duen elkartearen izena, telefono zenbakia, kanpamentu edo udalekuaren kokalekua, datak....). Aurten hiru lurraldeko eskuorriak egin dira baina, Arabako Foru Aldundiak babesa eman ez duenez, bakarrik Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa inprimatu dira. Beste urteetan bezala elkarteek haien taldeen informazioa inongo arazorik gabe bidali dizkigute.

Eskuorria maiatzaren 10ean argitaratu zen **Yes, We Camp! La cabra tira al monte! Goazen kanpalekuetara!** Gasteizen burututako jardunaldiarekin batera. Jendarteratzeko ekintza hau Arabako astialdi elkarteek diseinatu eta antolatu zuten: Arduradun Eskola, Atseden Taldeak, Atseden Eskola, Azterlariak eta Euskalerriko Eskatutak Araba

Helburuak

- Taldeek egiten duten lana hedatzea.
- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Gazte Informazio Bulegoak
- Gurasoak eta familiak
- Administrazioak

Ekintzak

Datoak jasotzeko galdetegi bat diseinatu da (ekintza mota, datak, adinak, lekua, hezkuntza, talde antolatzailea, harremanetarako datuak).
Aurten, hiru lurraldeko elkarteen 162 kanpaleku eta udaleku agertu dira eskuorrietan (iaz baina 7 gehiago): 22 araban, 80 Bizkaian eta 60 Gipuzkoan. Guztira 78 elkarte eta 10.000 gazte, begirale eta hartzaileen artean.

Diseinuaren prestaketa eta argitalpena.

Eskuorria hurrengo lekuetara zabaldu da: Gazte Informazio Bulegoetara, EGKko elkarte guztietara, Astialdi Foroko elkarte guztietara, Gurasoen elkarteetara, EISES eta Instituzioetara.

Hedabideetan agerpenak: Diario de Noticias de Álava, ONDA CERO Araba, ONDA CERO Euskadi, Bizkaia Irratia y El Correo.

Bestetik, **Yes, We Camp! La cabra tira al monte! Goazen kanpalekuetara!** jardunaldiaren helburu nagusia astialdi taldeek egiten duten gizarte lana plazaratzea izan da. Bai goizez Gasteizko Kanpusean, bai arratsaldez hiriburuaren erdialdean, jende askok jaso zuen astialdi taldeen boluntarioen lana eta kanpalekuak jasotzen zituen *flyer*ak, egun horretarako espresuki egindako materiala.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Hedabideen erantzuna: 5
- Bidalitako ale kopurua: 4.000

2.3 GazteEkin! Aisialdia Topaketa

Deskribapena

GazteEkin! Prozesuak, gazteok politika publikoetan dugun parte hartzeaz hausnartu nahi izan du. Egitasmo horren baitan, gazteei eragiten dieten 11 arlo tematiko jorratu dira, horien artean Aisialdia.

Helburuak

- Gazteok Aisialdiko politika publikoetan daukagun parte hartzeaz hausnartu.
- Aisialdiaren egoeraz jabetu.

Hartzaileak

Gazte Elkartuak
Gazte ez elkartuak
Teknikariak
Politikariak

Ekintzak

Prestaketa, topaketa burutu, dokumentuak jaso, emaitzak lortu, aktak pasa, ondorioak erredaktatu, zabaldu…

Bi orduko saio bat izan zen, non 3 dinamika burutu ziren: aurkezpena, ideiak ateratzeko dinamika eta rol playing bat.

Topaketako akta, ondorioak eta bertatik ateratako informazio guztia, GazteEkin! Kongresuan erabili da eta parte hartzaileei zabaldu zaie.

Jarraipena eta ebaluaketa

PARTEHARTZAILEAK	MUTILAK	NESKAK	ADINA	TEKNIKOAK
8 + 2 EGK	3	5	26/35-6 +35-4	5 + 2 EGK

2.4 Astialdi Foroko webgunea

Deskribapena

Astialdi Foroko webgunea hilabetean behin eguneratu da uda arte. Astialdiari buruzko albisteak, taldeei buruzko informazioa eta Astialdi Foroari buruzko deialdiak eta berriak argitaratu dira, hauen artean udako ekintzen eskuorria.

2010etik Facebook-a daukagu zabalpenerako tresna osagarri bezala eta oso tresna erabilgarria suertatzen da. Honen bitartez webgunean zabaltzen dena azpimarratzeaz aparte astialdi hezitzailearentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaldu da. Hau ere hilean behin gutxienez eguneratu da.

Helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Webgunea Astialdi Hezitzailearen inguruko informazioa zabaltzeko erabili da. Honek laguntzen du era bateratu eta globalean astialdian lan egiten duten eragileen proiektuak eta ekintzak zabaltzen. Webgunean finkoa den informazio teorikoa eta elkarteen datuez gain, ikastaroen, jaurdunaldien, prestakuntza saioen eta ekintzen informazioa zabaldu dugu Astialdi Hezitzaileari zentzu global bat emanez.

Hartzaileak

- Gizartea.
- Astialdi eragileak.
- Astialdi Foroko eragileak.

Ekintzak

Webgunea era jarraian eguneratu.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Webgunean argitaratutako eduki kopurua: 5

Urteko bigarren zatian, teknikari aldaketa dela eta, ez da ezer argitaratu.

B) HEZKUNTZA FORMALA

2.5 Unibetrtsitateko elkartegintza

Deskribapena

EHUko elkarteak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik elkarteekin harremana sortzea eta garatzea lortu nahi da, unibertsitatean parte hartzea indartzeko eta bultzatzeko. Horretarako EGK elkarteekin eta Unibertsitateko arduradunekin egon da harremanetan.

EGK-tik abiatutako iniziatiba baten harira **Lurgorri, Ikasle Abertzaleak, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Asanblada, Iratzarri, Gazte Ekintza** eta **M15M**k lantalde bat osatu dute. Koordinazio lana Alicia Susorekin **Parte Hartuz**eko kidearekin batera eraman da. 2012an, elkarlan honen ondorioz elkarteen lana eta jarduerak zabaltzeko unibertsitateko elkarteen atari bat sortu da: http://unibertsitarioak.site11.com.

Helburuak

- Ikasle elkartegintza indartu eta parte hartzea bultzatu.

Sortutako webgunearen helburua da ikasle elkartegintzak egiten duen lana jendarteratzea ikasleriaren artean. Elkarteen oinarrizko informazioa jasoko du: elkartearen deskribapena, non aurkitu dezakegu, noiz biltzen den, kontaktua eta egiten dituzten ekintzak.

- Administrazioei ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena eskatzea.

2012an ez dugu administrazioarekin harremanik izan, beraz helburu hau ez dugu bete. Webgunea abian jarri baino lehen, Ikasleen Errektoreordearekin harremanetan jarri behar da.

Hartzaileak

- EHUko Ikasle elkarteak

Ekintzak

Bilera ezberdinak egon dira; lan aldearenak eta uda ondoren teknikariaren aurkezpen bilerak.
Webgunea sortu da.
Hezkuntza erreformaren inguruko irratsaioa EGKk Tas Tas Irratian duen Gazte Borraste irratsaioan.

Jarraipena eta ebaluaketa

A. Egindako bilera kopurua: 6+2 (teknikari berria aurkezteko)
B. Zenbat eragileekin bildu garen: 7
C. Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak: 2

2.6 GazteEkin! Hezkuntza Formala Topaketa

Deskribapena

GazteEkin! Prozesuak, gazteok politika publikoetan dugun parte hartzeaz hausnartu nahi izan du. Egitasmo horren baitan, gazteei eragiten diten 11 arlo tematiko jorratu dira, horien artean Hezkuntza Formala.

Helburuak

- Gazteok Hezkuntzako politika publikoetan daukagun parte hartzeaz hausnartu.
- Hezkuntzaren egoeraz jabetu.

Hartzaileak

Gazte Elkartuak
Gazte ez elkartuak
Teknikariak
Politikariak

Ekintzak

Prestaketa, topaketa burutu, dokumentuak jaso, emaitzak lortu, aktak pasa, ondorioak erredaktatu, zabaldu…

Bi orduko saio bat izan zen, non 3 dinamika burutu ziren: aurkezpena, ideiak ateratzeko dinamika eta rol playing bat.

Topaketako akta, ondorioak eta bertatik ateratako informazio guztia, GazteEkin! Kongresuan erabili da eta parte hartzaileei zabaldu zaie.

Jarraipena eta ebaluaketa

PARTEHARTZAILEAK	MUTILAK	NESKAK	ADINA	TEKNIKOAK
10 + 2 EGK	7	5	16/25 (8) 26/35 (3) + 35 (1)	2 EGK

C) HARREMANAK

2.7 Instituzioekin elkarlana

Deskribapena

Astialdi hezitzaileak gaur egun betetzen duen gizarte-funtzioa dela eta, zaintzeko dagoen interesarengatik eta gizarteak espazio ez formalean hezkuntza-lanak egiten jarraitzeko daukan beharrarengatik, derrigorrezkoa da gizarte eragileen eta instituzio publikoen arteko lankidetzan aritzea.

2012an Eusko Jaurlaritzako Lanbide eta Familia sailekin (Enplegu eta Gizarte Ekintzako sailak) eta Gazteria Sailarekin harremana izan dugu (Kultura). Horrez gain, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundiekin ere harremana izan da.

Hezkuntza ez Formala arloan, Astialdi Foroaren bitartez hain zuzen, **Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza**rekin harremana mantendu du astialdiko kualifikazio berriak direla eta. Gazteria Zuzendaria, Natxo Rodriguez, izan da EJko solaskide nagusia, baina teknikariekin ere kontaktua egon da.

Iaz, Estatu mailan astialdiko kualifikazioak onartu zituzten. Hauek, estatu-mailan eduki eta baldintzak (ordu-kopuruak, gaiak…) bateratzeko, kalitatea homogeneizatzeko eta zenbait tramite burokratiko errazteko balioko dute. Astialdiko kualifikazio berriak INEM-etik edota Lanbide Heziketatik eskuratu ahal izango dira.

Hori dela eta, Astialdi Foroak Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin negoziazioetan jarraitu beharko du astialdi eskolek eszenatoki berri horretan orain arte izan duten idiosinkrasia mantenduz egon daitezen, alegia, hezkuntza ez fomalean eta boluntariotzan oinarritutako heziketa ereduak izanez. Aurten bi aldiz bildu gara; bat talde

guztiekin eta beste bat koordinazioarekin bakarrik; eta beste bitan, nahiz eta bilera lotuta egon, atzera bota izan da. Eusko Jaurlaritzak ez du gardentasun handia erakutsi eta bere atzean egon behar izan da oso gutxi lortzeko. Eskolek mesfidantza apur bat hartu diote gazteria Zuzendaritzari.

Koordinazio honek lan handia suposatu du Euskadi mailakoa izan delako. Zaila da 16 eragile batzea, gainera kontuan izanda, eskola batzuk bakarrik boluntarioz osatuta daudela. Alde batetik, eskolen arteko amankomunezko jarrerak eta proposamenak garatu ahal izateko eskolen arteko erkidego mailako bilera bat egin da (lurraldeka astialdi foroaren bileretan jorratzen da ia hilero).

Gazteria sailaz gain, EJ-ko Enplegu Saiarekin, Lanbiderekin, birritan bildu gara: otsailan eta ekainean. Sail honek kualifikazioen testuinguru berri horretan zer esan handia dauka, sail horretatik eman ahal izango baitira zuzendari eta begirale titulazio berriak, astialdi eskolek ematen dituztenen parekoak direnak.

Bestetik, instituzio honetako Enplegua eta Gizarte Gaietako Familia Sailak bultzatutako Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkorreko partaideak gara. Lantalde honetan Haur eta Nerabeentzako plana garatzen ari da eta Astialdi Foroak aholkulari lanak egiten ditu. Batzorde honen barruan, beste azpitalde baten barruan lan egiten da: sentsibilizazio eta prebentzioa. Azpitaldea behin bakarrik bildu da.

Azkenik, EAEko Eskola Kontseiluko partaide garenez, EGKko Hezkuntza Tekinkariak bertan parte hartzeko eskaera egin da eta onartua izan da.

Aldundiei dagokienez, aurten **Arabako Aldundia**rekin izan dugun harremana, formakuntza saio batera mugatu da. Martxoan, Agustina Hormias-ek elkarteei zuzendutako kudeaketa ekonomikoaren inguruko formakuntza eman zuen. Bi urtetik behin ematen den formakuntza da.

AF-k **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** harreman zuzena du. Gaztedi Bizkaia proiektua EGK-ren plangintzan txertatu da hitzarmenaren bitartez eta AFri dagokionez: elkarteen udako ekintzen eskuorria, bilera monografikoa eta plangintzaren azterketa gauzatu dira. Hemendik aurrera, urteko plangintzak elkarrekin adostu nahi dira, AFren erritmora egokitu daitezen.

Gipuzkoan ere, **Aldundiko Gazteria Saila**rekin harremana egon da. Gazteria Zuzendaria den Jokin Melidarekin birritan bildu gara. Bilera horien helburuak, alde batetik, geure burua aurkeztea eta, bestetik, Gaztematika Sistemaren barruan Astialdi Foroak izan nahi duen papera definitzea izan dira. Bestetik, elkartegintzako teknikari den Urko Imaz eta Eskolen jarraipena egiten duen Isabel Babace ere foroan izan ditugu diru laguntzen dekretuez hitz egiteko. Azkenik, udako *desplegablea*ren bidalketan koordinatu gara haiek daukaten bidalketetarako zerbitzua erabiltzeko.

Esan bezala, aurten GazteEkin! diseinatu eta aurrera eraman da. Proiektu hau, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) abiaturiko iniziatiba da. Gazteria politikak integralki lantzeko hausnarketa eta eztabaida prozesua hain zuzen ere.

Prozesu honen helburua gazteriaren parte hartzea egituratu eta bermatzea da, gazteriari zeharka edo zuzenki eragiten dien politiken garapenean, implementazioan zein ebaluazioan. Instituzioen parte hartzea beharrezkoa zen, hori dela eta, haiekin bildu gara iniziatiba aurkezteko.

Prozesuan zehar teknikari eta politikoen parte hartzea eman bada ere, ez da guk nahi bezain bestekoa izan.

Helburuak

- Astialdi hezitzailea indartu eta sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoekin harremanak sendotzea.

Instituzioek Astialdi hezitzailearekin duten ardura aldarrikatzeko eta arlo honetan egiten duten lana sendotzeko nahian Astialdi Foroak elkarteen eta instituzien arteko beharrezkoak diren zubi lanak aurrera eraman ditu. 2012ko lana emankorra izan da. Astialdi hezitzailean murgilduta dauden elkarteetarako berebiziko garratzia duten gaiak landu dira.

- GazteEkin! prozesu parte hartzailean hezkuntza formalaren eta ez formalaren arloko lan ildoak txertatu.

Hartzaileak

- Erakunde publikoak
- Astialdi eragileak
- Astialdi Foroko eragileak
- Gazteak

Ekintzak

Instituzioekin lankidetzan, bilera ugari egin dira, non plangintzak eta akordiak adostu diren. GazteEkin! prozesuan parte hartu.

Jarraipena eta ebaluaketa

A. Egindako bilera kopurua: 13
B. Zenbat instituzioekin bildu garen: 4
C. Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak: 9

2.8 Beste eragileekin harremana

Deskribapena

Lankidetza zabalaren alde gaude. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi dugu: astialdi taldeak eta sareak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jarduera-egitarauak dauzkaten ikastetxeak, gurasoak (elkarteen bidez), batzordeak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

Astialdi Foroak Araban **Jolas eta Ekin** erakundearekin elkarlana izan du. Garapenerako Hezkuntza lantzen duen erakunde honek haien laguntza eskaini zigun materiala eta formakuntzarako.

Bizkaian **ONCE** eta **GORABIDE** erakundeekin hitzarmenak sinatu dira, bat erakunde bakoitzeko. Akordio honekin erakunde hauen hartzaileak astialdi taldeetan sartu nahi dira hurrengo ikasturterako, inklusioa praktikan jarriz.

Gipuzkoan **IHESA-ren Kontrako Komisioak** aurrera eraman duen boluntarioentzako plan arrakastatsua aurkeztu zigun gure erakundeetan egiten dugun boluntarioen harrera eta sustapena hobetzeko. Bestetik, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Txema Ramirez de la Piscina irakaleak 2 orduko **formakuntza** egin zuen. Ikastaroak elkarteen lana hobeto komunikatzea zeukan helburu.

Aurten ere, **Bolunta**rekin harreman estua egon da.

Helburuak

Orokorrak:

- Elkartegintza eta sare lana bultzatu eta indartu hezkuntza alorrean.

Ez da erraza elkartegintzan sare lana bultzatzea elkarteak boluntarioz osatuta daudelako eta lanaz gainezka. Hala eta guztiz ere, harreman asko abian jarri ditugu astialdian eta gazteekin lan egiten dituzten eragile askorekin.

- Astialdian esku-hartzen duten eragileetatik kalitatezko eta egungo beharrizanetara egokitutako eskaintza sustatzea.

Sare lanak beste elkarte eta eragileen ikuspuntua, ekintzak eta egoera ezagutzeko aukera eman du eta hartu eman horrek AFko eragileoi, gaur egungo gazteen astialdiaren errealitatea hobeto ezagutzeko eta gure eskaintza egokitzeko balio digu.

Zehatzak:

- Hezkuntza formaleko eta ez formaleko eragileekin harremanak mantendu.
- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ezagutu.

- EGKren erreferentzia sarea zabaldu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin hausnarketa komunak burutu.
- Astialdi hezitzailearen inguruko lan sareak indartu eta lagundu.

Hartzaileak

- Astialdi Foroko eragileak
- Beste eragileak

Ekintzak

Beste eragileekin harremanean bilera ugari egin dira, non plangintzak eta akordiak adostu diren.

Jarraipena eta ebaluaketa

A. Egindako bilera kopurua: 10
B. Zenbat eragileekin bildu garen: 6

D) EGUNEROKOTASUNA

2.9 Egunerokotasunean

Deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Bestetik, aipatzekoa da hezkuntza arlotik Erreka enpresarekin EGK-ko datu basea garatzen ari da. Berebiziko garrantzia duen tresna honen beharra aurreikusi zen eta udaren ostean abian jarriko da.

Helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman dira.

Hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

Ekintzak

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Jarraipena eta ebaluaketa

A. Jasotako proposamenak eta hobekuntzak: 2 (datu basea, doodle)

3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK

JBB arloak, integrazioa, inkluzioa eta aukera berdintasunen sustatzen izango luke oinarri eta helburu nagursia. Gaztea den pertsona bere osotasunean garatzen ahaleginak eta dimentsioak kontutan hartuko dituen. Honen baitan kulturaniztasuna, identitateak, adierazpena, aukera berdintasunak, gure eskubideak, bakean bizitzeko, gatazkei aurre egiten ikastea, bazterkeria mota anitzak saihesteko oinarriak lantzen ditu, askotan zeharka beste arloekin batera, kanpora eta barne lanera begira beti ere. Argudioak eta diskusoak eraberritzen eta gauko egoerara ahalik eta hoberen egokitzeko herramintak lantzeran bila eragile eta sarea zabaltzeko asmoa eta helburua dauka, elkarelikadura eta ekintza konkretuak bilatuz ere bai.

A) KULTURARTEKOTASUNA - KULTURANIZTASUNA

3.1 Dekalogoa eta Protokoloa

Deskribapena

Egitasmo honen bitartez, azken urteotan EGK-ren baitan burutzen ari den hausnarketari jarraipena eman nahi zaio. Izan ere, 2007.urteko Asamblada Orokorrean onartutako Dekalogoa oinarri harturik alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak jorratu nahi dira EGK-ren ahotsa zehazteko eta dokumentu hau eguneratu ere. Baita, hemendik atera nahi den protokoloari edukia eman ahal izateko. Horretarako, 2011. urtean egindako bideari jarraiki, prozesu honetan parte hartu nahi duten eragileen ahotsak kontutan hartu nahi dira 2012 urte honetan. Beraz, alde batetik alor akademiko eta profesionala lantzen duten eragileekin biltzen jarraituko da eta bestetik aniztasuna lantzen duten eragileekin eta etorkinen elkarteekin. Izan ere, errealitatea zuzenean ezagutzeaz gain, elkar ezagutza bultzatzen da etorkizunera begirako lankidetzak

Helburuak

Kulturartekotasunaren inguruan EGK-k izan nahi duen **AHOTSA ZEHAZTU**. Dekalogo batean jasotzeko eta plazaratu nahi dugun protokoloari edukia emateko

GAZTEENGAN KULTURARTEKOTASUNAREN ETA ANIZTASUNAREN INGURUKO HAUSNARKETA BULTZATU: Adituak eta ez adituak, denok, honen inguruan zerbait esateko dagoelako.

EGK-KO ELKARTEEI HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA ZABALTZEA: EGKko kide diren elkarteen konpromezua bilatu, gaia guztiongan eragina duelako eta elkarte ezberinetan gai hau ahalik eta hoberen kudeatzeko asmoa dago.

EGK-REN AHOTSA JENDARTERATZEKO ZUTABEAK JARTZEA, MARKO TEORIKOA LANDUZ ETA GARATUZ: Politika publikoetan eta zenbait foro intituzionaletan gaia lantzen ari da eta hauetan gazteon ikuspegia txertatzeko asmoa dago.

ELKARTE, ERAKUNDE ETA EGK-REN ARTEKO HARREMANA ETA LANKIDETZA bilatzen da.

Hartzaileak

EGK osoa, etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak, Kultur elkarte eta eragileak, Gazte eragileak.

Ekintzak

ELKARTE EZBERDINEKIN BILERAK.
Elkarte zein gazte eragile ezberdinekin egin dira bilerak.

ORAIN ARTE IDATZITAKOA KONTRASTATU.
Hainbat eragileei pasa zaie Dekalogo zaharra irakurri ahal izateko eta ideia berriak idazteko.

KULTURARTEKO LAN TALDEA BERESKURATU DA.
EGKko kulturaniztasun teknikaria eta Harresiak Apurtuz Gipuzkoako teknikariarekin talde eragile sortu da. Kontzeptuak eta edukiak zeintzuk izango diren landuz. Formakuntza saio bat egin nahi izan da eragile ezberdinekin, baita talde honetan aktiboki elkarlanean aritu nahi duen elkarte zein eragile solteen bilaketa egin da une oro. Harresiak Apurtuzek antolatu duen jardunaldietan *"Nola bizi duzu euskara?"* elkarlan puntuala izan du EGKk.

HARREMAN INSTITUZIONALA.
Donostiako Udaletxeko Aniztasun departamentuaren arira, elkarlan puntuala izan du EGKk, bai Harresiak Apurtuz Gipuzkoako teknikariarekin, Jatorkin elkartearekin eta gazteria zinegotziarekin.

Gipuzkoako Aldundiak atera berri duen departamentua dela eta, ANIZGUNEAn parte hartu du EGKk.

Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Foroan ez da iazko partehartze berdina izan, oraingoan denbora eta baliabideak direla eta, honekiko jarraipena ez da horren zuzena izan.

Jarraipena eta ebaluaketa

Aldekoak:

Harresiak Apurtuz Gipuzkoarekin harremana eta elkarlana sakondu da. Hainbat bilera egin dira elkarrekin gazteriaren zein aniztasunaren ikuspegi amankomun bat lortu ahal izateko. Lan taldea sakondu nahi zan da eta oinarriak finkatu. Honetan jarraituko da.

Dekalogoaren borradorea egin da eta protokoloa hurrengo hilabeteetan amaitu ahal izango da. Horretarako aniztasun arlotik idatziko da eta ekarpenak EGKko kide diren elkarteetatik jasoko da, baita puntualki kolaboratzen duten elkarteen iritziak barne hartuko dira.

Lan taldeak aurrera egingo du eta hurrengo urtera begira eduki eta metodologiarekiko aldaketak izango ditu.

Hobetzekoak:

EGKren parte diren elkarteen presentzia handitu

Kulturarteko, kulturaniztasunaren alde lan egiten dute eragileen arteko zubi lanak hobetu daitezke arlo honetan eman daitezkeen sinergiak elkarbanatu ahal izateko eta lanak-ideiak-ekimenak neurri batean hobeto bateratu ahal izateko. Askotan elkarren ondoan dauden elkarteak berdina egiten ari dira eta ez dute elkar ezagutzen. Baina identifikatu den errealitateetako bat hau da; askotan aniztasuna, immigrazioaren gaiekin lan egiten duten elkarte askok ez dute elkarrekin lan egin nahi; arrazoi pertsonalak edota ideologikoak dierela eta. Errealitate hau kontutan izanda, puntu komunak eta errealak bilatu beharko dira (gazteria, partehartzea…).

3.2 Kulturartekotasun III Topaketa

Deskribapena

Proiektu honen eskutik kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruan sumatzen den egituraketa faltari aurre hartu nahi dio. Gaia, zabala, konplexua eta askotarikoa izanik, gaia modu holistiko batean jorratu nahi da hirugarren edizio honetan, ahalik eta ikuspegi gehien jorratuz. Izan ere, gai polikromatikoa da (immigrazio eta kultura asko daude), polifonikoa (immigrazioa eta aniztasun kulturalari buruzko iritziak anitzak), multifaktoreduna (kari ugari dituena) eta poliedrikoa (immigrazioak eta aniztasun kulturalak aurpegi asko ditu). Gainera, euskara eta euskal kultura minorizatuta daudela aintzat hartuta, gai konplexua ingurune konplexu batean txertatu behar dira.

Jorratuko den gai nagusia ARRAZAKERIA izango da. Azken urte hauetan bizi dugun krisi (ekonomiko-baloreak) egoera honek, arrazakeria eta xenofobia kasuek gora egin dezatela eragin du. Eta horregatik, arreta berezia jarri nahi izan zaio gai honi.

Lan taldea eratzeko EGK eta Bizkaiako Biluts elkartea elkarlanean hasi dira.

Helburuak

Bizi dugun krisia egoeran, arrazakerian eta xenofobian eman diren gorakadaren inguruan hausnartu eta orain arte mantentzen ditugun estereotipoak astindu

EGKren ahotsa kalean ezagutarazi.

Kaleak ematen dituen aukerak aprobetxatu

Gutxiengo etnikoen egoera ikustarazi eta jendarteratu.

Identitate kulturalak eta aniztasuna ezagutu

Hartzaileak

EGK osoa, etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak, Kultur elkarte eta eragileak, Gazte eragileak.

Ekintzak

BILUTS ELKARTEAREKIN KOORDINAZIO BILERAK. Lan taldea sortu da horretarako
Urtean zehar hainbat bilera egin dira, bai Biluts egoitzan (Bilbon) eta bai EGKko Gipuzkoako egoitzan eta ardurak banatu dira lan egin ahal izateko.

Jarraipena eta ebaluaketa

Aldekoak:

Jardunaldi ohiko bat izatetik jaialdi bat izatera pasa nahi izan da. Aspektu artistikoa eta kreatiboan oinarritu nahi izan da, baita kalea erabili eta bertan dauden pertsona ororen parte hartzea pizten saiatzeko helburuak mahai gainean egon dira une oro, baita diseinua ere.
Udaletxetik hasiera hasieratik laguntzeko prestutasuna agertu da.

Hobetzekoak:

Aurtengo proposamena lantzeko, EGKko elkarteei gutun bat bidali zaie hauen proposamenak bidali ahal izateko. Baita telefonoz eskatu ere, baina ez da proposamenik jaso. Hau dela eta, EGKtik kanpo dauden eragileak ere gonbidatzea erabaki da. Elkarteak parte hartzea ahalbidetzeko, eskaitzak landutagoak eman behar zaikiela uste izan da kasu honetan.

Baina, Biluts elkartearekin sortutako koordinazio lanak ez du behar bezala funtzionatu eta aurrera egitea eten egin da behin baino gehiagotan. Bi parteen arteko elkarlana ez da ona eta transparentea izan eta horregatik, topaketa hauek atzeratzea erabaki da. Aurrerago baloratuko da honekin jarraitu hala ez eta nola.

B) GENEROA

3.3 EGK-ren barne lanerako I. Berdintasun Plana

Deskribapena

EGK-ko berdintasun arlotik, EGKrako proiektu piloto hau burutzea ikusi dugu. Askotan hitz egiten dugu zeharkakotasunaren inguruan, baina beharrezkoa ikusi dugu, gure erakundearen baitan, hau errealagoa izan ahal izateko, gaia bere osotasunean lantzea eta gainontzeko Administrazioen antzera, gure plan edota estrategia propioa izatea. Batetik, berdintasunaren inguruan gure posizionamendua indartzeko eta bestetik, kanpora begira, erreferentzialtasuna izateko

Helburuak

EGK-ren baitan aukera berdintasunaren inguruan duen informazioa, jarrera eta jokabideak aztertzea izango litzateke. Barrura begira eta kanpora begira ateratzen diren ekintzek aukera berdintasunaren aldeko apustua izan dezaten.

Lehenengo fase eta urte honetarako hauek izango litzateke, **ERREALITATEAREN ANALISIAREN** baitan:

EGKren baitan aukera berdintasunaren inguruan egon daitezkeen diskriminazio eta trabak identifikatu.

Taldeko hausnarketa bultzatu.

Hartzaileak

EGK osoa. Barne hausnarketa lana izango da nagusi.

Ekintzak

ERAGILE EZBERDINEKIN BILDU.
Lan honetarako instituzio ezberdinekin bilerak egin dira, bai dirulaguntzaren bat bilatzeko bai kontraste lanetan elkarlana bilatzako. Besteak beste; Emakunde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria, Donostiako Berdintasun zinegotzia eta Nafarroako Gazte Kontseiluko Berdintasun teknikaria (orain ez teknikaririk ezta Kontseilu figura existitzen dira, itxi behar izan dutelako).

BERDINTASUN BATZORDEA- LAN TALDEAREN ERAKETA
Lan talde honek, bi gazte eragilek eta EGKko berdintasun teknikariak osatzen dute. Eta bestetik, EGKko Batzorde Iraunkorreko kide batek ere lan honen gainean egon da, aholku zein kontraste lanean.

DIAGNOSIA
Honetarako hainbat galdetegi bete dituzte EGKko kide diren hainbat eragilek.
Datu objektiboen bilketa egin da: organigrama...
EGK barnerako, Batzorde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorrerako *I Genero* tailer bat egin da, lehenengo inpresioak eta irakurketa jasotzeko.

Jarraipena eta ebaluaketa

Aldekoak:

EGKk duen egoera juridikoa dela eta, ezinezkoa izan zaio Administrazio publikoak eskaini dizuen dirulaguntzak eskatzea (Berdintasun Planak gauzatzeko deialdiak).

EMAKUNDErekin bilera egin zen eta kontraste lanean laguntza eskaini zuten; baita, Gipuzkoako Berdintasun Zuzendaritzatik, kontrasterako laguntza eskaini zuten ere.

Orduan, Nafarroako Gazte Kontseiluko berdintasun teknikariarekin ere bilera egin zen, antzeko egoera juridikoa izateagatik agian, antzekotasunak bilatzeko hurbilketa egin zen. Ez zuten plan zehatzik baina beharrezkoa ikusi zuten kideek ere. Elkarlana bultzatu zen eta orain bi Kontseiluen arteko harremanak berreskuratu eta hobetu egin dira.

Beraz, diagnostiko xume bat egin nahi izan da, Lan talde Tekniko eta Batzorde Iraunkorrean oinarrituz. Horretarako tailer bat egin da lehenengo konklusioak atera ahal izateko. Azken hau kontraste fasean oraindik, baina aurreratzearren bi ideia nagusi azpimarratu daitezke emaitzei begira: Boterearekiko dauden harremanak lantzea beharrezkoa ikusi da; bai norberak boterearekiko daukan harremana eta irudian sakontzea; eta bereziki, EGKren la talde teknikoan ematen diren botere harreman sutilak identifikatzeko beharra ikusi da. Honek, kanpora ateratzen dugun lanean erreflexu handia duelako.

Hau dela eta, **PLANAREN BIGARREN FASE** bezala hau aurreikusi da:

Barneko lanean: EGKren baitan ematen diren *Botere Harremanak* lantzeko bigarren tailer bat egingo da.
Kanpora begirako lanean: EGKk *sexu erasoen aurkako protokolo* bat izatea beharrezkoa ikusi da bai Permanentetik eta bai Teknikoen aldetik.

Hobetzekoak:

Batzorde Iraunkorraren aldetik ez da ia erantzunik jaso, oso inplikazio gutxi egon da. Ez dute proiektua beraiena hartu. Hau aldatzeko saiakerak egingo dira hurrengo pausuei begira.

3.4 BESTE HARREMANAK

Deskribapena

Eguneroko lana dela eta, EGK-ko barne diren *teknikari zein elkarteekin* sortu daitezkeen kolaborazio lan eskaerei erantzun eman nahi zaie urtean zehar, aurten ere (erreportaiak, etab.)

Kulturartekotasun zein berdintasun arloak zeharkakotasuna izan dezaten EGKko ekintza guztietan eta, **GAZTEEK-IN** prozesu parte hartzailean Justizia eta berdintasunerako lan ildo hauek txertatzeko ere.

Helburuak

Elkarte eta beste eragileekin atera daitezkeen elkarlanak indartu.
Elkarte ezberdinak ezagutu eta lankidetza sortu
Sortutako harremanak sendotu eta mantendu
Gazte ikuspegia elkartegintzan txertatu
Talde lanak dituen abantailaz elikatu

Hartzaileak

EGK osoa.
EGK-ko elkarteak
Bestelako gizarte mugimendu eta gazte eragileak.
Administrazioak

Ekintzak

Urtean zehar eta memoria honetan zehar sortzen joan diren elkarlanen berri eman da.
Elkarte berriak eta proiektu berriekin kolaborazioa proposatu da hurrengo urteari begira:

"Asociación de Gitanos por el Futuro de Gipuzkoa" elkartearekin
Mujeres Jóvenes de Euskadi elkartearekin
Erotik 2012 proiektuarekin

Jarraipena eta ebaluaketa

Hurrengo urteari begira, bereziki, Donostian dauden elkarteen analisia eta identifikazio lana egingo da; bai, kulturaniztasunari dagokionean eta bai, berdintasunari dagokionean. Gazteentzako Aniztasun foroaren ideia dago eta honen gainena lan egitea aurreikusi da, gainontzeko foroetan zeharka lan egin nahiko duena.

Bestetik, **GAZTEEK-IN** prozesuaren baitan egin diren topaketen baitan, arlo honetatik hiru hauek antolatu eta burutu egin dira:

1. KULTURANIZTASUNA

Topaketa honetan, politikari, teknikari, gazte elkartuak eta ez elkartuek parte hartu zuten. Gutxi izan baziren ere, anitza izan zen taldea eta lan eremu ezberdinak ezagutzeko aukera egon zen.
Bertara, Gipuzkoako eragileek parte hartu zuten.
Esanguratsua izan zen, kontzeptuak definitzerako orduan, gazteria hain zuzen ere, estereotipo negatiboak ugariak zirela. Nahiz eta gazteak izan, gure buruarekiko irudi negatiboa oso presentea dagoela ondorioztatu genuen; eta hau gainditu ahal izateko, adibidez, hedabideen papera azpimarratu zen.

2. BERDINTASUNA

Topaketa honetan eragile ezberdinek parte hartu zuten; batzuk gaian adituak eta beste batzuk, interes pertsonala dela eta gehiago jakitera hurbidu ziren. Nafarroatik, Bilbotik eta Gipuzkoako herri ezberdinetatik etorri ziren eta denak elkarteko kide eta bat gazte ez antolatua izan ziren.

Politikari eta teknikari aldetik, ez zuen inorrek parte hartu.

Bi orduko dinamikan, gainetik aztertu genituen errealitate ezberdinak, berdintasun kontzeptutzat zer ulertzen dugun eta parte hartzearen arloan, gizon zein emakumeen arteko ezberdintasun batzuk atera ziren, hobetzekoak. Baita, esanguratsua izan zen , klase sozialek gizarte mailan duten eragina eta gazteek, administrazioarekiko harremanean, sentitzen duten hurbiltasun falta.

3. SEXUALITATEA

Topaketa honetan parte hartzaile zenbaki altua izan zen eta gehienak, arloan adituak ziren. Elkarteetako kideak eta baita, gazte ez elkartuek parte hartu zuten. Ez ordea, politikatiarik ezta teknikariarik. Administrazoan ez dago gai honetarako arlo finkorik eta.

Nafarrotik, Bilbotik eta Gipuzkoatik etorri ziren parte hatzera.

Esanguratsua izan zen administrazioak gaiarekiko duen harreman gazi gozoa. Sexualitatea pertsonarekin bat datorrela azpimarratu zen, eta horregatik, zien punturaino politikari pertsona interesatzen zaion eztabaidatu egin zen.

Sexu heziketa eta honen garrantzia izan zen esanguratsua, arloan parte hartu ahal izaeko, kolektibo eta indibiduo bezala, pertsonaren dimentsio honi garrantzia gehiago eman beharko litatzaioke.

4. KOMUNIKAZIOA

Helburu ezberdinak ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko komunikazio arloak. Batetik, EGK-ren jarduera ezagutaraztera ematen du. Era berean, EGK osatzen duten elkarteen jarduera ezagutarazteko lan egiten du. Horrez gain, bestelako gazte elkarte eta eragileen lana zabaltzen laguntzen du. Bestalde, gazteoi buruzko informazioa kudeatzen du. Bukatzeko, komunikazio arloan gazteon eta gazte-elkarteon jabekuntza bultzatzeko lan egiten du ere.

4.1 Piztu! Hamabosteroko buletin elektronikoa

Deskribapena

Piztu! hamabostean behin bidaltzen den buletin digitala izango da (hasiera batean, GazteBol! Izenarekin bataiatzea aurreikusten genuena). Aurten estreinatu dugu, maiatzaren 23an. Bertan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteen berri ematen du EGK-ko komunikazio arloak (orain arteko egkDigitala buletinaren edukia bertan txertatuz eta, ondorioz, egkDigitala behin-betiko desagerraraziz). Horrez gain, EGKren, EGK-ko kide diren taldeen eta beste elkarte batzuen agenda-proposamenak biltzen ditu buletinak. Bestetik, lehen GaztePress buletina zena ere barnebiltzen du. Zehazki, gazteekin lotuta komunikabide ezberdinek argitaratzen dituzten albisteak biltzen ditu atal horrek. Beste zenbait eduki ere baditu Piztu buletinak ere: EGKren azken argitalpenak, EGKren Gazte Borraste irratsaioak eta bestelako lotura interesgarriak, esaterako. Laburtzearren: gazteek gazteentzat egindako hamaboskari bat da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarteen eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.

- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

Ekintzak

Bi/hiru astean behin osatu eta bidali da Piztu buletina.

Hartzaileak

1.200 harpidedun:

- EGKko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 5.000 jarraitzaileak:

- EGKko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

Jarraipena eta ebaluazioa

10 buletin bidali ditu Komunikazio arloak maiatza eta azaroaren 27a bitartean.

. 2012-05-23
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=11
. 2012-06-05
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=12
. 2012-06-19
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=14
. 2012-07-07
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=18
. 2012-07-23
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=19
. 2012-09-27
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=21
. 2012-10-09
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=20
. 2012-10-23
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=23
. 2012-11-10
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=24
. 2012-11-27
http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=26

Azken Piztu buletinean, elkarteek buletin digitala ebaluatzeko fitxa bat jasoko dute. Bertan, maiztasuna, formatua, albisteen aniztasuna, hizkuntza-irizpidea eta informazioa bidaltzeko modua ebaluatuko dute, beste irizpide batzuen artean. Memoria hau idatzi baino beranduago izango da urteko azken Piztu buletinaren bidalketa.

4.2 Web orrialdea eta sare sozialen kudeaketa

twitter tuenti facebook

Deskribapena

Webgunea (www.egk.org) eta sare sozialetan ditugun profilak (Twitter, Facebook eta Tuentin) eguneratzen ditu EGK-k ia egunero. 2012ko uztailean, gainera, Instagram sare sozialean profila ireki du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea.

HELBURU ZEHATZAK

- EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarteen direktorio gaurkotu bat mantentzea.
- EGK-ren irudia zaintzea.
- Hori guztia sare sozialen bidez gizarteratzea.

Ekintzak

Ia egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak bai webgunea (www.egk.org) bai sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ere (Twitter, Facebook, Tuenti eta Instagram).

Hartzaileak

Webguneko bisitariak (28.813 bisita urtean).
Sare sozialetako jarraitzaileak (3.379 Facebooken, 84' Twitterren eta 500 baino gehiago Tuentin; Instagram-en, 19 jarraitzaile).
Profilari dagokionez, oro har gazteak, elkarteak edo gazte eragileak dira.

Jarraipena eta ebaluaketa

Googke Analytics bitartez neurtzen ditu Komunikazio Arloak webgunera bisitak. Urte osoan (2011ko abenduaren 10etik 2012ko abenduaren 10era), 28.813 bisita izan ditu webguneak,eta 20.400 bisitari ezberdin. Bisitarien %31a webgunera itzuli da. Hiru minutu egoten dira batez-bestez atarian. Errebote-tasa altua du webguneak (%60koa), eta errebote maila horren arrazoiak bilatu behar ditu Komunikazio teknikariak. Hasierako orria euskaraz dagoen arren, bisiten %60a gazteleraz da. Bisita gehienak Bilbotik, Donostiatik eta Gasteiztik dira, orden orretan, bai eta Areatza, Eibar, Urnieta eta Zamudio bezalako herrietatik. Akitaniatik ere 100 bisitatik gora jaso ditu webguneak.

4.3 AHOTIK AT ALDIZKARIA. 10.alea.

Hirigintza barneratzailea eta gazteon parte-hartzea



Deskribapena

Ahotik At EGK-ren sei-hileroko aldizkaria da. 2012an (2011n bezala), diru faltagatik, bakarra egin du Komunikazio Arloak, Bizi Baldintza Materialak Arloarekin batera. Zehazki, 10. aleak hirigintza barneratzailea eta gazteon parte-hartzea aztertu du. Izan ere, Bizi Baldintza Materialak arloak gai honen lanketaren aldeko apustua egiten ari baita aurten. Izenburua honakoa da: Hiriak egin eta desberdintasunak desegin / Hacer ciudades para deshacer desigualdades.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan eta bestelako gazte eragileen artean hirigintza barneratzailearen inguruko eztabaida eta hasunarketa piztea.

Gure hiri eta herrien antolamenduan, hirigintzak, zein bere eginkizunetan eragina duten beste legeri, araudi, ohitura eta teknikek gure gizartearen ezberdintasunak mantentzen duten paper garrantzitsua azpimarratu, gai honen inguruko eztabaida plazaratu eta hirigintza barneratzaile eta parte hartzaile baten oinarriak hausnartu.

HELBURU ZEHATZAK

- Ikuspuntu barneratzaile batetik, gaur egungo hirigintzaren azterketa bat egin, arreta bereziz adin eta genero arrazoiengatiko bazterketak aztertuz.
- Hirigintza barneratzaile baterako bidean eman beharreko aldaketak behar praktiko, interes estrategiko eta eraldatze potentzialaren artean bereizi, gizarte barneratzaile bat hezitzen duen hirigintza sustatzeko
- Hirigintzaren eraldaketan eta moldaketan lan egiten duten elkarte eta ekimenen arteko, gazteen parte hartzea daukatenena bereziki, elkarlan sustatu eta formazio eta eztabaidarako topaketa bat antolatu.
- Hirigintza eta lurralde antolamenduan eskumena daukaten administrazio eta deparamentuetan hirigintza barneratzailearen ikuspuntua txertatzen saiatzea.

Ekintzak

- Ahotik At-a egiteko lantaldea osatzeko deia egin.
- Lantaldea osatu.
- Edukia idatzi.
- Kolaborazioak kudeatu.
- Material grafikoa egin / bildu.
- Aurrekontu bat lotu.
- Maketazioa kudeatu.
- Zuzenketak.
- Kontraste-saioak: Presidentea, Iraunkorreko hiru kide eta lantalde teknikoa.
- Inprimatu.
- Zabalpenerako datu-basea osatu.
- Difusioa egin (bai paperean, bai digitalean).

Hartzaileak

800 ale argitaratuko dira paperean. Hartzaileak honako hauek izango dira, besteak beste:

- EGK-ko elkarteak.
- Beste gazte elkarte eta mugimendu batzuk.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Hirigintza barneratzailea lantzen duten eragileak.
- Liburutegi eta kultur-etxeak.
- Institutu eta fakultateak.
- Egunkari, irrati eta telebistako erredakzioak.

Horiez gain, beste 1.200 hartzailek jasoko dute Piztu! buletinaren bitartez.

Bestalde, webgunean ere eskuratu ahal izango da aldizkaria.

Argitalpena ezagutzera emateko aurkezpen-saio bat egiteko asmoa zuen ere EGK-k. Orain, EGKren egoera ekonomikoa dela eta (langileen egoera, batez ere), airean dago.

Jarraipena eta ebaluaketa

Abenduaren 10ean bertsio digitala dagoeneko prest dago, hemen:

http://www.egk.org/adjuntos/AHOTIK%20AT%2010.pdf

Paperezko edizioa abendauren 17rako egongo da prest (memoria hau idatzi eta gero). Zabalpena abenduaren azken astean eta urtarrilean zehar egingo da.

4.4 Gazteriaren Kontseiluaren zerbitzu katalogoa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak elkarteei eskaintzen dizkien zerbitzuen gida

ZEINTZUK DIRA GURE HELBURUAK?
EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

Pertsona gazteok elkarteetan, gizarte mugimenduetan, alderdietan, sindikatuetan, asanbladatan eta bestelako foroetan **parte hartu dezagun** sustatu nahi dugu. Zertarako? Hiritartasun aktibo izan gaitezen eta gizartea eraldatzeko konpromisoa gauzatu dezagun.

Gazte, elkarte, gazteria-teknikari eta politikarien artean **sareak josi** nahi ditugu, batzuk besteon berri izan dezagun eta elkarrekin gauzak egin ahal izan ditzagun. Hots, indarrak bildu nahi ditugu, posible den aldiro.

Gazte taldeen eta Administrazioaren artean **interlokuzio eta zubi** lana egiten saiatzen gara, beharrezkoa denean.

Gazteon **eskubideak** defendatzen ahalegintzen gara etxebizitza, enplegu, elkartegintza eta komunikazioa bezalako esparruetan. Izan ere, askotan gazte izateagatik baldintza ezberdinei aurre egin behar baitiegu.

Gazteria **ikuspegia** txertatzen dugu politika publikoetan.

3

Deskribapena

Ezagutzen ez den eskaintza, ez da eskatzen. Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Arabako elkarteentzat zerbitzu-katalogoa argitaratu nahi du. Asko dira EGK-k elkarteei eskaintzen dizkien zerbitzuak: gazte elkarteen informazioa zabaltzeko komunikazio euskarriak (webgunea, sare sozialak, posterrak, aldizkariak…), komunikabideen bitartez komunikazio kanpainak egiteko aholkularitza, komunikabideekin kudeaketa lana, administrazioekin bitartekaritza lana, beste gazte elkarte eta gazte eragileekin kontaktuan jartzeko lana, gazte talde eta jendarte mugimenduen zein administrazioaren gazte arloen informazioa eta kontaktua errazteko lana, lantaldeak koordinatzeko lana, materiala eta gelak utzi… eta abar luzea. Finean: elkarteek probetxua atera diezaiokete Gazteriaren Kontseiluari. Hori ahalbidetzeko, zerbitzu katalogo bat argitaratu du komunikazio arloak.

Euskaraz: http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_84.pdf

Gazteleraz: http://www.egk.org/publicaciones/publicacion_es_84.pdf

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Gazte elkarteek Gazteriaren Kontseiluaren zerbitzu eta lanei probetxua atera diezaieten zerbitzu-katalogoa argitaratu.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei
  Gazte elkarteen lana errazteko eta eragina handitzeko gazteriaren kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu eta proiektuen berri eman.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egiten duen lana ikustarazi eta balioan jartzea.

Ekintzak

- Zerbitzu katalogoa egiteko aurrekontua lotu.
- Zerbitzu katalogoaren edukia idatzi eta irudiak bildu.
- Zerbitzu katalogoaren maketazioa kudeatu.
- Zerbitzu katalogoaren kontrastea egin (Batzorde Iraunkorra eta lantalde teknikoa).
- Zerbitzu katalogoaren inprimaketa kudeatu.
- Zerbitzu katalogoa bidaltzeko datu-basea egin.

Hartzaileak

- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako gazte talde eta eragile batzuk.
- Webguneko bisitariak eta sare sozialetako jarraitzaileak.
- EGK bera (inbertsioaren itzulera).

Jarraipena eta ebaluaketa

Zerbitzu katalogoa idatzi du Komunikazio arloak, gaztelaniaz eta euskaraz. Horrez gain, material grafikoa bildu du ere. Guztira, 30 orrialde. Maketazio-lanari dagokionez, kontratatu du.

Zerbitzu-katalogoarekin batera ebaluazio-orri bat bidaltzea aurreikusten da, elkarte era eragileek katalogo horretan bildutako edukia ebaluatu dezaten. Zerbitzu katalogoaren bidalketa memoria hau bukatu eta gero egingo da. Hortaz, ezinezkoa da txosten honetan emaitzen berri ematea. Horrez gain, EGK-ko Komunikazio teknikariak EGK-ko Batzorde Iraunkorrarekin eta lantalde teknikoarekin kontrastatu du. Azken emaitzak ezagutu bitartean, behin-behineko ebaluazioa oso positiboa da: EGK-k azkenik badu bere jarduera azaltzen duen dokumentu dibulgatibo bat.

4.5 Berriz Berri Hileroko poster-agenda

Deskribapena

Entzun ez dena, ez dago esana. Edo, beste era batera esanda: komunikatzen ez dena, egina ez balego bezala geratzen da askotan. Egiten dutena komunikatu behar dute gazte elkarteek eta jendarte eragileek, gizarte mailan eragina izan dezan. Baina, tamalez, elkarte askok eta askok ez dute komunikazioa lantzeko behar adina baliabiderik, ez eta komunikatzeko euskarririk ere ez. Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak helburu argi bat du (beste batzuen artean): gazte elkarte eta gazte eragileen megafono izatea. Alegia, komunikazio-baliabideak erraztea. Horretarako, hainbat zerbitzu eta euskarri eskaintzen ditu. Horietako bat Berriz Berria da: hots, 1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda. Bertan, **hilero-hilero 10-12 albiste** argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen ditu posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal agentziena ere. Gehienetan elkarteek edo gizarte eragileek eurek bidaltzen dituzte bere deialdiak eta albisteak Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arlora, Berriz Berrian argitaratu ditzan. Horrez gain, enkarteak ere egiten ditu EGK-k: hau da, elkarteek beraiek hala eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak bidaltzen

ditu Berriz Berriarekin batera. Benetan estimatua da Berriz Berria. Zergatik? Elkarte askok eta askok ez dutelako beste modurik milaka postontzi eta mail-helbidera heltzeko. Horregatik estimatzen dute Berriz Berria. Batetik, bertan bere deialdiak zabaldu ditzaketelako. Bestetik, informazioa jasotzeko ere balio zielako. Zehazki, EAEko **1.350 postontzi** ezberdinetara iristen da, paperean. Gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizartetxeei bidaltzen die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Piztu! buletina sortu baino lehen Euskal Herriko **beste 800-bat helbidetara iristen zen pdf-an.** Orain, Piztu! buletina abian jarri dugunetik (2012ko maiatza), buletinarekin batera iristen zaie Berriz Berria 1.200 harpidedunei. Horrez gain, **Tuenti, Twitter eta Facebooken Gazteriaren Kontseiluak dituen 5.000dik gora jarraitzaileei ere** helarazten zaie Berriz Berri poster agenda. Horiei guztiei www.egk.org webgunearen bisitariak gehitu behar zaizkie (23.000 bisitari ezberdin urtean), bertatik ere deskargatu baitaiteke.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea. Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat komunikazio euskarri bat eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea.*
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-80 euskaraz).

Ekintzak

Hilero pausu hauek ematen ditu komunikazio arloak:

- Berriz Berrian informazioa txertatzeko deialdia ireki
- Berriz Berria idatzi eta maketatu
- Berriz Berria zabaldu (enkartearekin, kasua kasu).
- Berriz Berriaren ebaluaketa egin.

Hartzaileak

- **Papereko alearen 1.350 harpidedun EAEn**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste elkarte batzuk.
  - Gazte-bulegoak.
  - Liburutegi eta gizartetxeak.

- **Piztu! buletinaren bitartez 1.200 harpidedun baino gehiago**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste gizarte mugimendu batzuk.
  - Gaztetxeak.
  - Gazte-bulegoak.
  - Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
  - Harpidetza egin duten norbanakoak.

Jarraipena eta ebaluaketak

Urtarriletik abendura bitartean Berriz Berri guztiak bidali dira, aurreikusi bezala. Berriz Berri guztiak lotura honetan ikusi daitezke:

http://www.egk.org/eus/Argitalpenak%20.html

Abenduan bidaltzen den Berriz Berrian, posterraren inguruko iritziak emateko deia zabalduko da. Abenduaren azken astean iritsiko da Berriz Berria postontzietara (memoria hau idazterakoan, beraz, ez da oraindik posterra egin).

4.6 “Elkarteentzat komunikazio erremedioak” ikastaroa

Deskribapena

Gazte elkarteek (modu batean edo bestean) jendartea eraldatu nahi dute. Eta, horretarako, jendartearenera heldu behar dira. Horretarako, gizartearekin komunikatu behar dira. Helburu horretan, komunikabideak ezinbestekoak dira. Baina, tamalez, gazte elkarte askok ez daukate komunikabideez baliatzeko komunikazio-arduradunik, ez eta baliabiderik ere. Horregatik, Gazteriaren Kontseiluak komunikazioan-aholkularitza eta baliabideak eskaintzen dizkie EGK osatzen duten elkarteei, bai eta eskakizuna egiten duten bestelako gizarte-mugimenduei ere. 2012an zehar, zehazki (eta eskakizun zehatzei erantzuna emateaz gain) hiru tailer antolatzea aurreikusten zuen EGK-k: Gasteizen, Bilbon eta Donostian. Ikastaro horietan, elkarteek komunikabideak modu probetxugarrian baliatzeko dinamikak egitea aurreikusten zen.
Azkenean, Arabako ikastaroa ez da egingo, Aldundiak ez duelako diru-laguntzarik eman. Haatik, AEK-k UEU-ri hala eskatuta, AEK-rentzat eman du ikastaroa EGK-k, Gasteizko Hegoalde gizartetxean. Gipuzkoako ikastaroari dagokionez, ikastaroa eman du EGK-k, UEU-ren udako ikastaroen baitan. Bilboko ikastaroari dagokionez, Tas-Tasekin batera eman du EGK-k, maiatzaren 26an zehazki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Komunikabideetan gazte elkarteen presentzia indartu.

HELBURU ZEHATZAK
Gazte elkarteek komunikabideak eta bestelako komunikazio-euskarriak modu probetxugarrian baliatu ditzaten.

Ekintzak

AEK-KO IKASLEENTZAT IKASTAROA
Apirilaren 26 eta 27an: 50 pertsona.
Maiatzaren 2an eta 3an: 50 pertsona.

BILBON IKASTARO IREKIA, TAS-TAS IRRATIAN
Maiatzaren 26an (larunbata): 8 pertsona (Kem-Moc-eko 6 lagun eta Tas Tas-eko bi lagun).

EIBARREN IKASTARO IREKIA, UEU-ko IKASTAROEN BAITAN
Ekainaren 28 eta 29an. 10 ikasle (Elgoibarko Izarrak, Ikasle Abertzaleak, Gazte Mugimendua...).

Jarraipena eta ebaluaketak

Ikastaro guztietan ebaluazio-orriak banatu dira. Oro har, oso konforme egon dira ikasle gehienak. Ebaluazioetan hainbat hobekuntza egitearen beharra antzeman dugu:

- Ikasleen profila hobeto zehaztu beharko dugu.
- Komunikabideen kudeaketaz eta sare sozialen erabilpenaz harago, bestelako komunikazio estrategien edukiak txertatu beharko ditugu: kale marketinga, diseinua, bideogintza...
- Sare sozialen erabilpenean gehiago sakondu beharko dugu.
- Zer irakatsiko EZ den argi utzi beharko dugu hasieratik, edukiak eta ikasleen espektatibek bat egin dezaten.

4.7 Gazte Borraste irratsaioa Tas Tas irrati librean



Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gazte Borraste irratsaioa egiten du bi astean behin Tas Tas irrati librean (97 FM Bilbon). Gazte-errealitate ezberdinei buruzko ordu bateko espazioa da.

Bi astelehenean behin emititzen da, 20.00etatik 21.00etara. Hurrengo egunean, asteartean, 09.00etatik 10.00etara emititzen da berriro ere. Horrez gain, zatirik txukunenak larunbatetan Tas Tas eta Irola irrati libreek elkarrekin egiten duten Al Abordaje saioan ere emititzen dira. Webgunean ere podcastak eskuratu daitezke, http://tas-tas.org/web/eu/gazte-borraste helbidean.

Gazte Borraste irratsaioa bi arlok egiten dute: Komunikazio teknikariak eta Bizkaiko Koordinatzaileak, beti ere EGK-ko beste arloetako laguntzarekin.

Saioak bi gako ditu: gazteak eta elkartegintza. Bi zutabe horien gainean eraikitzen ditu EGK-k eduki guztiak. Hiru atal nagusi ditu irratsaioak:

Titularrak eta Suplenteak: gazteei buruz eta elkarteei buruz komunikabide ezberdinetan argitaratutako albisteen berri ematen duen atala.

Haria eta orratza: gai zentrala. Atal honetan, elkarte eta gazte mugimenduekin elkarrizketa eta solasaldiak egiten ditu EGK-k.

Agenda: jendarte mugimendu ezberdinen deialdiak biltzen dituen atala.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Gazteen **errealitate ezberdinen berri** ematea, begirada gazte batetik.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikabide handietan **lekurik ez dituzten ahotsak** entzunarazten ditu.
- **Gazte elkartegintzaren bozgorailu** izan nahi du.
- Gazte elkarteei **mikro-irekiko espazio bat** eskaintzen du.
- Gazte elkarteak eta mugimenduak **komunikazioan trebatzen** laguntzen du.
- Gazte elkarte eta mugimenduen **audioteka** (audio material bilketa) osatzen laguntzen du.
- Gazte **elkarteekin harremana** estutzen laguntzen du.
- Bere inguru hurbilenarekin konpromisoa duen eta bere inguru hurbilenean parte hartzen duen tokian-tokiko **komunikabide bat** sustatzen laguntzen du, euskaraz.
- Gizarte zibil antolatuaren **komunikazio eskubidea** gauzatzen laguntzen du.

Gazteak abiapuntu eta gazteak jomuga dituen irratsaio bakarrenetarikoa da Gazte Borraste Euskal Herriko irratigintza-parrillan. Gazteria zeharkako-ikuspuntu bezala txertatzen du jorratzen diuen gai guztietan. Izan ere, EGK-k uste baitu Polítika guztiek (eta

ez soilik Gazteria Politikek) eta proiektu guztiek (eta ez bakarrik gazteen proiektuak) eragina izan dezaketela gazteen errealitate anitzetan. Mundua gazteen ikuspuntu ezberdinetatik begiratu nahi du Gazte Borrastek. Begirada hori da seguraski irratsaioa berezi bilakatzen duena.

Ekintzak

Aipatu bezala, EGK-k bi astean behin egiten du irratsaioa. **Astelehen eta asteartean** emititzen bada ere, irratsaio grabatua da eta, hortaz, edozein egunetan grabatu ohi da, astean zehar, elkarrizketatutako elkarteen ordutegiaren arabera.

Hauek dira irratsaioak eskatzen dituen lanak:

- Ekoizpen lana. Elkarrizketatuekin hiztordua lotu, musika eta kuinak aukeratu...
- Gidoia idatzi.
- Irratsaioa grabatu.
- Irratsaioa editatu eta zerbitzarira igo.
- Irratsaioaren podcacst-a egin.
- Irratsaioaren difusio-lana egin.

Hartzaileak

- Tas Tas irratiko entzuleak.
- EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
- EGK Internet bidez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.
- Gazte elkarte eta mugimenduak eurak, euren mezuak helarazteko baliatzen baitute Gazte Borraste, bai eta komunikazioan trebatzeko ere.

Jarraipena eta ebaluaketa.

Komunikazio teknikariak Gazte Borrasteren gai eta elkarrizketatuen jarraipen eguneratua egiten du, eduki eta parte-hartzaileen aniztasuna bermatze aldera.
Urtarrila-uztaila bitarteko irratsaioak ikusteko, 4.1. eranskina ikusi.

4.8 Gazte komunikatzaileen topaketen abiatzea

Deskribapena

GazteKom

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazte komunikatzaile euskaldunen lehenengo topaketak suspertu nahi ditu. Gazte komunikagintzaren sare bat osatzea beharrezkoa dela uste du EGK-ko Komunikazio Arloak. Izan ere, gaur egun “informazioaren gizartean” bizi garela errepikatzen baitigute behin eta berriz. Eta, “informazioaren gizarte” horretan, informazioa eta komunikazioa gizartearen bihotzean dauden zerbait dira. Alegia, gizartearen eta boterearen muinean dagoen zerbait. “Muin” edo “bihotz” horretan edo horretatik kanpo egotean dago gakoa: komunikatzeko eta informazioa zabaltzeko gaitasunik eta baliabiderik ez dutenek, bazterkeria mota bat jasaten dute (nolabait esatearren) informazioaren gizartean. Horregatik da hain garrantzitsua gizarte zibilak komunikazio gaitasun eta baliabideak izatea. Komunikazioa ezin baitaitekeelako komunikazio-enpresa gutxi batzuen esku geratu. Demokratizatu behar da. Gizarte zibil antolatuaren esku jarri ere, komunikazio-ezberdintasunak pixkanaka pixkanaka gainditzeko (komunikazio desberdintasunek bestelako gizarte-ezberdintasunak ere eragiten dituztelako -eta alderantziz-). Hori guztiagatik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak komunikazioan trebatu eta jabetu nahi ditu gazte taldeak. Nola? Batetik, komunikazio-jabekuntzaren garrantziari buruzko eztabaida piztuz. Bestalde, komunikazio tresnak eta baliabideak eskaintzen lagunduz (pertsonak, azpiegiturak, euskarriak, kontaktuak); eta, bukatzeko, gazte komunikatzaileen arteko loturak josiz: hots, kazetariak, komunikazio-teknikariak, blogari eta hacktibistak zein komunikabide propiak garatzen dituzten gazteak euren artean harremanetan jarriz, komunikazio arloko esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko. Hori guztia egiten hasi ahal izateko, Gazteriaren Kontseiluak GazteKom topaketak abiatzeko lanean hasi da (behin-behineko izena da GazteKom). Behin hasierako harreman-errondak burututa (oraindik ere fase horretan gaude), Euskal Herri osoko gazte komunikatzaileei irekiko zaie deialdia eta Bilbon gauzatuko dira topaketak. Nabarmendu daiteke ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) elkarlanerako aukerak aztertuko direla. EGK-k ez ditu topaketa hauek bere kasara egin nahi: gazte komunikatzaile ezberdinekin prestatu nahi ditu, ukondoz ukondo. Horretarako, 2012an hainbat bilera burutu ditu, 2013an lantalde bat sortzen hasteko eta topaketak gauzatu ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK
Gazte elkarte eta mugimenduak komunikazioan-jabetzea.

ZEHATZAK

- Informazioaren gizartean komunikazio-jabekuntzak duen garrantziari buruzko eztabaida piztu.
- Komunikazio-sistema ezberdinen inguruko ezagutza piztu.
- Gazteen komunikabide propio ezberdinak ezagutarazi.
- Gazte komunikatzaileen sarea josten lagundu, esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko.
- Gazte elkarteei komunikazio gaitasun eta baliabideak erraztu.
- Euskara sustatu (topaketak euskara hutsean edo neurri handi batean euskaraz izatea da helburua).
- Gizarte-mailan gazte komunikatzaileen lana eta balioa ikustarazi (gazteen inguruan ohiko komunikabide handi askok eman ohi duten irudiarekin kontrajarriz).

Ekintzak

Hainbat eragilerekin bilerak burutu dira:

- Gaztezulo.
- Kapuko aldizkaria.
- Tas Tas irrati librea.
- Ikasle Abertzaleak.
- Topatu.info.

Bestalde, beste bilera batzuk egiteke ditu arloak:

- Topagunea federazioa.
- Pikara Magazine.

Hartzaileak

- Gazte elkarte eta mugimenduetako komunikazio teknikariak.
- Komunikabide propioak dituzten gazteak.
- Kazetari gazteak.
- Blogari, *sarelari* eta hacktibista gazteak.
- Komunikazio ikasleak.
- Gaian interesa duten norbanakoak (gazteak zein heldu eta nagusiak).

Jarraipena eta ebaluazioa

Orain arte proiektuaren berri jaso duten eragileen iritziz, oso proiektu interesgarria da. Prest daude parte hartzeko eta, orokorrean, aurtengo udazkenean egiteko proposamena luzatu dute. Hala ere, GazteEkin prozesua dela-eta, ezin izango dira topaketak aurten burutu. Bestalde, EGK-k ez du 2013rako aurrekonturik, oraindik.

Ebaluazio irizpideei dagokionez, sortuko den lantaldeak berak finkatuko ditu.

4.9 Komunikabideen gida

Deskribapena

Gutunik onenak ere ez du ezertarako balio postontzi okerrera bidaltzen baduzu. Nahiz eta komunikazio-kanpaina onak diseinatu, ez zaizkigu ezertarako balio izango baldin eta hartzaileen kontaktu zuzenik ez badugu. Hori sarritan gertatu izan da bai Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan bai elkarteen baitan ere.

Eskatzen dituztenean, Komunikazio Arloak komunikabideen kontaktuak errazten dizkie EGK-ko taldeei eta bestelako gizarte mugimenduei ere. Gauza da zaharkitua geratu direla kontaktu horiek, bai EGKren bai elkarteen kalterako ere. Hori dela eta, Komunikazio teknikariak Komunikabideen gida gaurkotzen hasi da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Euskal Herriko komunikabideen gida gaurkotua izatea da helburu nagusia, EGKren lana eta beste elkarteen jarduera ere zuzen gizarteratu ahal izateko.

HELBURU ZEHATZAK

- Elkarteei komunikazio-baliabideak erraztea.
- Gida gaurkotzeko, komunikabideekin harremana mantentzea.

Ekintzak

- Helbideen eguneraketa egitea (bukatzeke).
- Gidaren zabalpena egitea (egiteke).

Hartzaileak

- EGK bera.
- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako gizarte mugimendu eta gazte eragileak.
- EGK-ko Komunikazio Tailerretako ikasleak.

Jarraipena eta ebaluaketa

Bizkaiko komunikabideen gida baino ez da gaurkotu. Komunikazio arloaren jardunaldi-murrizketa dela eta, lana bukatzeke geratu da. 2013an bukatuko da, komunikazio-teknikariaren lanpostua ez baldin bada desagertzen ala beste murrizketa batek plangintza gehiago mehetzera derrigortzen ez baitu.

4.10 Bideo baten ekoizpena. EGK eta gazte mobilizazioa bultzatzeko lana

Deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua komunikazio-formatu berrietara egokitu behar du bere lana, gazteen artean bere mezua modu eraginkorrean zabaldu nahi badu. Hori dela eta, EGK-k bere estreineko bideoa egin nahi zuen 2012an. Zehazki, gazte-elkarteen sarearen lana gizarteratzeko helburua zuen, bai eta gazteen parte-hartze eta mobilizaziorako deia egin.

Helburuak

OROKORRAK

- Gazteen parte-hartze eta mobilizaziorako dei egin eta EGKren lana gizarteratu.

Ekintzak

Komunikazio arloak ez du EGK-ri buruzko bideorik egin, honako arrazoiagatik: plangintzatua ez zuen beste proiektu batean aritu izan da buru-belarri. Zein proiektu? GazteEkin proiektua. Bideoa ekimen horren baitan egitea erabaki zen. Hortaz, GazteEkin prozesuko hainbat bideo egiteko lana kudeatu du Komunikazio Arloak. Bideoak Gasteizko HalaBideo lantaldeak egin ditu, Europako diru-laguntzak baliatu baititu EGK-k horretarako. Hemen ikusi daitezke: http://www.youtube.com/user/komunikaegk

Hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak.

Jarraipena eta ebaluaketa

GazteEkin-eko bideoek 1.000 ikustaldi baino gehiago izan dituzte guztira, eta kualitatiboki ere ebaluazio positiboa egin du EGK-ko lantalde teknikoak. Dena den, EGK-ri buruzko bideo zehatz bat egin behar dela uste du Komunikazio Arloak oraindik ere. Hori dela eta, 2013an bideoa ekoizteko aurrekontuak eskatu ditu dagoeneko. Guztiarekin ere, EGK-k oraindik ez daki dirurik izango ote duen (eta zenbat). Beraz, gainontzeko proiektu guztiak bezala, *standby*-ean dago hau ere.

4.11 GaztePress prentsa-buletina

Gazteen kioskoa

Deskribapena

Gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen albisteak biltzen eta sailkatzen dituen behatoki xume bat da. 2012ra arte, hamabostean behin bidaltzen zitzaien harpidedunei. Aurten, ordea, Piztu buletinaren baitan integratu da GaztePress-a eta, beraz, Piztu buletineko harpidedunei bidaltzen zaie albiste bilduma hau, hamabostean behin.

Hamar gai-multzo daude:

-Hezkuntza formala/ez formala.
-Elkarteen berri.
-Enplegua.
-Euskara.
-Etxebizitza.
-Astialdia.
-Ekimen kulturalak.
-Generoa.
-Aniztasuna.
-Garapenerako lankidetza.
-Osasuna.
-Gazteak eta administrazioa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
Hartzaileei gazteei buruz diren berriak eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak gaika sailkatuta helaraztea.

HELBURU ZEHATZAK

- “Gazteena eta/edo gazteentzat” irizpidea duen sailkapena bermatu (bakarra modu honetakoa EAEn).

- Gazteen inguruko albisteen eduki-jarraipena egin.
- EGK-ko teknikariei bere arloko lanarekin lotuta egon daitezkeen albisteen berri eman.
- Webguneko 'Gaur Prentsan' atala eguneratua izatea.

Ekintzak

Komunikazio Arloak astero hornitzen du GaztePress atala, eta hamabostean behin egiten du bidalketa, Piztu buletinaren bitartez.

Hartzaileak

Piztu buletinaren hartzaile berdinak:
1.200 harpidedun:

- EGKko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 5.000 jarraitzaileak:

- EGKko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

Horiei guztiei webguneko bisitariak gaineratu behar zaizkie.

Jarraipena eta ebaluaketa

Ez da ebaluaketa irizpiderik zehaztu.

4.12 Durangoko Azoka. Gazte elkartegintzaren erakuslehio.

Deskribapena

EGK-k stand bat ordaindu ohi du urtero Durangoko Azokan eta Kontseilua osatzen duten elkarteei *stand*-ean parte hartzeko aukera luzatzen die. Baliabide materiala eskaintzeaz gain, azokan parte-hartzeko kudeaketa eta koordinazio lana egiten du Komunikazio Arloak. Aurten, ordea, EGK-k ez du Azokan erakusmahairik izan. Izan ere, EGK-ko lau elkarte baino gutxiagok eskatu baizuten *stand*ean egoteko aukera (eta 4 elkarte da gutxienekoa, EGK-k finkatutako irizpidearen arabera).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gazte elkarteen lana ikustaraztea.

ZEHATZAK

- Materiala banatu/saldu.
- Elkarteen arteko ezagutza sustatu.
- Jendearekin harreman zuzenerako 'leihatila' izan.
- Euskara eta euskal kulturgintza sustatzeko hitzordu batekin bat egin.

Ekintzak

Azokan parte hartzeko deialdia ireki zuen Komunikazio arloak irailean. Erantzun eskasa izan zuenez, bertan behera utzi zuen ekimena.

Hartzaileak

- Parte hartu nahi duten EGK-ko elkarteak.
- Durangoko Azokara dihoazenak.

Jarraipena eta ebaluaketa

Azokan parte hartzen duten elkarteekin egin ohi da ebaluazio bilera, Azoka bukatu eta 10 egunera, gutxi gora behera. Aurten, EGK-k ez duenez azokan parte hartu, ez da halako bilerarik egingo. Deialdiaren arrakasta ezari dagokionez, honako arrazoiak aipatu zituzten EGK-ko elkarte batzuk: euskarazko material falta, argitalpenen desagertzea (murrizketen ondorioz), *stand*ean egoteko boluntario falta eta gehiegizko lan-karga. Beste elkarte batzuk, ordea, bere erakusmahai propioa jartzen dute. Esaterako, Urtxintxa Eskolak eta, aurten, Kale Dor Kayiko elkarteak (Ijito Herria izan baita aurtengo kultura-gonbidatua).

4.13 Komunikazio kanpainak

Deskribapena

EGKren ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin.

- Prentsaurrekoak antolatu.
- Prentsa Oharrak idatzi.
- Iritzi-artikuluak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzeko kudeatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- Salaketa oharrak bidali, lan-istripuak salatzeko protokoloari dagokionez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA
EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.

Ekintzak

Aurten, hauek izan dira Komunikazio arloak egindako kanpaina nagusiak:

- **Kulunkan** egitasmoa.
- **Gazteak sarean** libre ikastaroa.
- **Greba** deialdia (martxoaren 29a).
- **Iñigo Cabacas** gaztearen aldeko komunikatu bateratua.
- **Etxebizitza Lege** baterako proposamenak.
- **Etxebizitza dekalogoaren aurkezpena Legebiltzarrean.**
- **Lan osasuna**ren nazioarteko eguna.
- **Patakon** gaztetxearen aldeko komunikatua.
- **Zumaian** lan-istripuz bizia galdu zuen gaztearen heriotzaren salaketa.
- **Yes, we camp!** ekimena..
- **Astialdi eskolen** ikastaroetan matrikulazio kanpaina.
- **Uztaldi** gaztetxearen aldeko komunikatua.
- **#27UH** topaketak.
- **GazteEkin** egitasmoa. Bi prentsaurreko, *on-line* marketing-a, material eskakizunak kudeatu (koadernoak, motxilak, pegatinak, kartelak, eskuorriak...), artikulu-txertaketa, bideoen kudeaketa...

Horrez gain, hauek izan dira kudeatutako **eskakizunak** eta bestelako agerpenak:

- Alokairu-laguntzen amaiera.
- Gazteen langabesia tasa.
- Gizarte murrizketak.
- Etxebizitza eskubidea.
- Martxoak 8.
- Etxebizitza eta okupazioa.
- Etxebizitza dekalogoa.
- Adin nagusitasuna 16 urtera jeitsi?
- Osasun-txartela eta gazteak.
- Gazteen enplegu-baldintzak.
- Etxebizitza Lege Proiektua.
- Arabako Aldundiaren diru-laguntzaren kentzea.
- Gazteak, krisia eta alternatibak.
- Gazte erakundeak bakegintza bidean.
- Ni-ni belaunaldia.
- Gazteria krisiaren aurrean.
- Komunikazio erremedioak ikastaroa.
- Gazteen emantzipazioa.
- Prepara plana eta euskal gazteen etxebizitza eta enplegu arazoak.
- EGK eta euskal gazteen errealitateak.
- Gazteen euskal behatokiak irailean argitaratutako txostena.
- ‘Belaunaldi galdua’.
- Pobrezia eta gazteak.
- Zuzkidura bizitokiak (EtxebizHitza plataforma).

Bestalde, Euskalerriko Eskautak Federazioak sustatuta Gipuzkoan (eta Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetan) banatzen **den Goitibera aldizkarian** hainbat artikulu argitaratu ditu Gazteriaren Kontseiluak. Zehazki, honako hauek:

- Gazteak, elkarrekin bakarrik baino hobeto! (otsaileko alea).
- Hiri hezitzailearen kurrikulum ezkutua (apirileko alea).
- Gazteak: krisiari aurre egiteko aukerarik bai? (maiatzeko alea).
- Kultura, letra larriz (urriko alea).
- GazteEkin: badugu zer esan (azaroko alea).

Hartzaileak

EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
EGK Internet bitartez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.
Komunikabideak eta euren hartzaileak.

Jarraipena eta ebaluaketa

- Prentsa-jarraipen osoa ikusi daiteke EGKren web orrian.

4.14 Beste batzuk.

Irudi korporatiboaren gaurkoratzea

2011n, EGKren 25. urteurrena zela eta, logo, sinadurak eta txantiloi berriak egin zituen Kontseiluak. 2012n, irudi horiek guztiak kendu eta irudi berria egin behar izan dugu, logo zaharraren haritik. Oro har, ohiko irudi korporatibo mantendu da, ñabardura txiki batzuekin.

Kolaborazioak kudeatu

Goitibera, Gazteen Berriak eta Bizkaia Irratia eta kolaborazioa eskatu lezaketen bestelako hedabideekin kolaborazioak (artikuluak, mahai-inguruetan parte-hartzea…) kudeatu, EGKren eta EGK-ko elkarteen lana iukstarazteko.

Barne koordinazioa

Batzar Teknikoan, Batzorde Iraunkorrarekin bileretan eta Batzar Orokorrean parte-hartzea, besteak beste, bai eta generoari buruzko barne-tailerran, adibidez. Horrez gain, gainerako teknikariei laguntza; adibidez, Hezkuntza-Teknikariaren ordezkapena eginez Astialdi Eskolen eta Lanbideren arteko bilera dinamizatzeko.

5. LURRALDETASUNA | BIZKAIA - ARABA - GIPUZKOA

5.1 GazteEkin! // prozesu parte hartzailea

Deskribapena

GAZTE-EKIN!, 2012ko urtean zehar garatu den proeiktua da, gazteria politikak integralki lantzeko prozesu parte hartzailea hain zuzen ere. Prozesu honen funtsa gazteriaren parte hartzea estrukturatu eta bermatzea da, gazteriari zeharka edo zuzenki eragiten dien politiken garapenean, implementazioan zein ebaluazioan.

Prozesu hoen bidez, Gazteria Politika Integralen balizko Sistemara [GP(i)S] hurbildu eta etrokizunean berau martxan jartzeko baldintzak jarri nahi dira. Bidean, gazteak oro har eta gazte eragileak zein administrazio ezberdinetako teknikari eta arduradunak elkar harremandu eta konfiantza guneak eraiki nahi dira, bai eta egungo erronka nagusiei aurre egiten saiatu ere. Horretarako, arloz arloko topaketak baliatu eta hauetan ateratako ondorioak I.Kongresura eraman dira.

Helburuak

OROKORRA:

- Gazteria politiketan sare lana, parte hartzea eta zeharkakotasuna landu.

ZEHATZAK:

- EAEn zein Ehko gainontzeko herrialdeetan gazteria perspektiba lantzen duten eragileak elkar- harremandu.
- Eragileen arteko marko teoriko amankomuna osatu.
- Gazteria politiken integraltasuna lortzeko erremintak diseinatu.
- Gazte elkarteak ahaldundu.
- Gazteekin zerikusia duten gaien inguruan gazteak oro har aktibatzea eta hauen iritziak jasotzea.

Hartzaileak

- EGK eta EGKko elkarteak.
- Gazte eragileak.
- Administrazio ezberdinetako teknikari eta arduradunak.
- Gazte ez elkartuak.

Ekintzak

- **Prozesu parte hartzailearen diseinua eta aktibatzea**: *Urtarrila - Maiatza*. Fase honetan, EGKko elkarteekin lurraldekako lanketa bideratu da, prozesuaren kronograma adostu eta administrazio ezberdinen iritziak, aportazioak barnebildu dira. Honekin batera, EGKtik kanpo dauden gainontzeko eragile potentzialak identifikatu eta lehenengo hurbilketa burutu da, bai eta prozesuan zehar dinamika ezberdinen diseinuan lagundu duten adituekin elkarlanari hasiera eman ere: Parte Hartuz (EHUko ikerketa taldea) eta Bolunta (Bizkaiko boluntariotzarako agentzia). Horretaz aparte, EGK-ko datu basea berriztu eta eguneratzeko parada izan da, prozesuan zehar maneiatuko den informazio bidalketa-bikoizketarik egon ez dadin. Komunikazio kanpainaren diseinua amaitu eta aurrefasea egikaritu da honenbestez. Koordinazio lanetik, proiektuaren koordinazio orokorreko lanean lagundu da. Hauek dira fase honetan egindako bilera kopurua:

    - Batzorde teknikoarekin: 4
    - Batzorde Iraunkorrarekin: 1
    - EGKko elkarteekin: 3
    - Foru aldundietako arduradun eta teknikariekin: 3
    - Boluntako adituekin: 1
    - Parte Hartuzeko adituekin: 1

- **Topaketen antolaketa eta egikaritzea**: *Maiatza – Urria*. Arloz arlo, etxebizitza, enplegua, hirigintza, berdintasuna, kulturartekotasuna, sexualitatea, bakea, kultura, osasuna, hezkuntza eta aisialdian eztabaida pizteko mintegi irekien edo topaketen antolatze lana burutu da, prozesuan zehar parte hartzen ari diren aktoreak ere lanketa honetan barnebilduz, beharren identifikazioan eta eztabaiden egiturakean besteak beste. Behin prestatuak, komunikazio kanpainari jarraipena eman eta kaleko zein sare bidezko propaganda burutu da: kartelak, zintak, eskuorriak etab. Topaketak, egun eta herrialde ezberdinetan egikaritu dira, metodología eta dinamika parte hartzaileen bidez. Koordinazio lanetik, arlo ezberdinen topaketak antolatu eta gainontzekoen sostengua eman da. Horretaz gain, kongresurako beharrak identifikatu eta hizlari zein dinamizatzaileekin harremana-koordinazioa egin da. Hauek egikaritu ondoren, parte hartzerako orduan topatzen ditugun oztopo eta ondorio txostenak atera dira baita ere. Hauek dira fase honetan egindako bilera kopurua:

    - Batzorde teknikoarekin: 4
    - Batzorde Iraunkorrarekin: 2
    - Komunikazio lantalde teknikoarekin: 1
    - Eusko Jaurlaritzako zuzendariarekin: 1

- Bolunta eta Parte Hartuzeko adituekin: 3
- ASTRA koordinadorarekin: 2

- **Kongresua eta prozesuaren jarraipena**: *Urria – Abendua*. Lehen aipatu ondorioak eskuan edukita, hauek aztertu eta aurrehartzeko lana burutzeko topaketa nagusia egikaritu da azaroaren 16-17an Gernikako ASTRA sorkuntza fabrikan: Gazteria politikak zeharkakotasunez landu eta hauek diseinatu, egikaritu zein ebaluatzeko parte hartzea egituratzeko ideiak-estrategiak ateratzea izan da kongresuren helburua. Nolako herraminta motak martxan jarri behar diren, administrazioen arteko erantzunkidetasuna, EGKren papera, elkarteena, gazteena orohar etab. Honako hauek izan dira labetik ateratako eta zabaldutako lehen ondorioak. Guzti hau burutu eta gero, prozesuaren jarraipena nolakoa izan daitekeen hausnartze lanean murgildurik aurkitzen da EGK gaur egun. Bilera kopurua:

    - Batzorde teknikoarekin: 3
    - Batzorde Iraunkorrarekin: 1
    - Bolunta eta Parte Hartuzeko adituekin: 2
    - ASTRA koordinadorarekin: 1

Jarraipena eta ebaluaketa

Gazte-Ekin! prozesu parte hartzailearen **helburuei dagokionez,** bere horretan mantendu eta bete direla esan daiteke. Hau da, kolore guztietako gazteak, gazte eragileak zein administrazio ezberdinetako teknikari eta arduradunak batzea eta konfiantza guneak-sinergiak eraikitzea lortu da. Datuen laburpena:

- Topaketetan: 96 pertsona (21 teknikari-politikari)
- Kongresuan: 61 pertsona (13 teknikari-politikari)
- Prozesuan guztira: *157 pertsona*







Ondorioei dagokionez, politika publikoetan gazteriaren parte hartzea zer izan beharko lukeenaren inguruko definizio-elementu amankomunak aurkitu dira, bai eta parte hartzerako orduan aurkitzen ditugun oztopoen diagnosi bateratua ere. Horrez gain, egoera honi aurrehartzeko ideia-estrategiak landu dira eta etorkizuneko elkarlanean oinarritutako bide-orria markatu da. Beraz, oro har, prozesu parte hartzaile honen hastapenean (jarraipena izango duelako), baliabide teoriko eta praktiko baliagarriak atera direla esan daiteke.

Topaketa nagusian diseinatutako **herramintei** dagokionez, EGK zein NGKaren paper garrantzitsuaren legitimazioa burutu dela esan daiteke, hau da, tresna berririk ez baina kontseiluen arteko sare lanaren bitartez, eta hauek administrazioarekiko egiten duten zubi lanaren bitartez, aipatu ondorioak praktikara eramatea zilegi eta bideragarri ikusten da.

Komunikabide eta sare sozialetan izandako **ohiartzuna** ere aipagarria dela esan daiteke (proeiktuaren aurkezpen eta ekimenen jarraipenean). Tokian tokiko (gernika-bustirialdea) zein maila orokorrago batean (EAE, Nafarroa) jarraipena izan du. Horretarako bilatu diren baliabideak ere asko erreztu dute (bideoak-argazkiak). Info gehiagorako ikus komunikazio arlotik egin den jarraipen-memoria.

Gainera, **EGK-k egun bizi duen berregituraketa** eta berdefiniziorako oso baliagarria izan daitekeela ondoriozta dezakegu, etorkizuneko kontseiluak izan beharko lituzkeen jardunak, egiturak eta funtzionamendu egokia bilatze bidean klabe ezin hobeak hartu direlarik prozesu honen bitartez.

5.2 EGK eta barruko elkarteekiko lana

Deskribapena

Egun, 57 elkartek osatzen dute EGKk duen kidegoa EAEn. Hori guztien artean, aniztasuna da nagusi: ekologistak, alderdi politikoetako gazteriak, kulturartekotasuna lantzen dutenak, astialdi taldeak eta eskolak, kristau gazteak, ikasle taldeak, inklusioa lantzen dutenak, bakezaleak eta antimilitaristak besteak beste. Bakoitzak bere esparrutik, apurra eskaintzeko asmoarekin parte hartzen du EGKn, horrela bi norabidezko erantzukizuna sortuz.

Erantzukizun horrek behar batzuk sortzen ditu, bai elkarteekiko bai EGKrekiko. EGKko lurraldetasuna arloari dagokionez, elkarte horien gainean, beharrak, laguntza, aholkularitza, informazioa, sare lanean sartzea, elkarlanera bultzatzea ditu helburu. Era berean, barneko sare lana bultzatu: elkarteen arteko harremana eta elkarlana bultzatu, suspertu eta indartu.

Baina guzti honetarako elkarte bakoitzaren egiturak eta funtzionamenduak bermatuta egon behar du. Elkarteen parte hartzea beste gauzetan ez da posible euren lehentasunak asetuta ez badituzte, euren gutxiengo funtzionamendua bermatuta ez badute, eta hau da krisi egoerak eta murrizketek uzten dituzten ondorio larriak.

Hein handi batean, horretan datza lurraldeko koordinatzaileen lana: elkarteen egoerari so egitea, berriak, sartu, euren beharrak eta kexak ezagutu, behar duten guztirako laguntza eskaintzeko. Baita EGKren baliabideak eskaini, sortzen diren lantaldeetan parte hartzea bultzatu; beste elkarteekin harremanetan jarri elkarlana bultzatuz eta EGKn parte hartze aktiboa eragin, elkarte bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, noski.

Helburuak

OROKORRA:
- Elkarteen arteko harremanean sakondu. Barne sarea.

ZEHATZAK:
- EGKrekiko erantzunkidetasuna sustatu.
- Administrazioekiko bitartekari lana burutu.
- EGKren izaera eta funtzionamendua indartu.

Hartzaileak

EAEko EGKko 57 elkarteak.

Ekintzak

- **BIZKAIAN:**

Arrazoi ezberdinak medio, aurten elkarteekiko banan banakako bisitarik ez dira burutu. Alde batetik, ezinbesteko elkarezagutza aurreko urteetatik burutua zegoelako eta bestetik, jardunaldiaren murrizketak eraginda. Lan karga handituz joan da, denbora gutxitzen joan den einean eta horrek lehentasunak ezartzea ekarri du. Gainera, elkarte askok martxan zeuden proiektuetan jarrera proaktiboa erakutsi dute.

Hala ere, elkarteen artean EGKren berriak zabaldu dira (EGKtik sortzen diren egitasmoei, lan taldeei, publikazioei, jarduerei,... hedapena emanez, batez ere emailez zein telefonoz), bai eta EGKtik kanpo dauden beste eragileen jarduerak zein egitasmoak ere.

Honekin batera, elkarteak indartzeko erabili izan diren baliabide eraginkorrenen artean,Gazte Borraste irratsaioa dago, bi astero behin TAS TAS irrati librean burutzen dena (hamabi bat elkartek parte hartu dute aurten), hilabeteroko *Berriz Berri* ekimenen posterra (berrogeitamar bat) eta azpiegitura baliabideen erabileran (hitzaldi, bilera eta prentsa agerrladietarako gela, mobilizazio edota ekimenetarako soinu ekipoa, Gaztezuloko karpa...), beste hogei bat ekimen. Guzti hauek, komunikazio eta arloetako teknikarien laguntzarekin batera egikaritzen dira.

2011an habian jarritako "Indartzen egitasmoan" EGKren bideratze prozesuak, aurten ere jarraipena izan du. Honen helburua, EGKk egun dituen gabeziak identifikatu, eta helburu, funtzionamendu eta oro har estrukturaren berritzea da. Horretarako, EGKko teknikari, elkarteetako arduradun eta Batzorde iraunkorreko kideak bildu dira. Prozesua bera, 2012ko irailetik 2013ko otsailera bitartean burutuko da. Bilera kopurua: 10

Abenduak 1 ihesaren aurkako egunaren harira, aurten ere EGK-ko elkarteen artean batez ere, kondoi, lubrikante eta condoneate sensibilizazio kanpainaren inguruko eskuorriak banatiu dira.

Aipatzekoa da ere, Aisialdi ez-formalean iharduten duten Bizkaiko eragile eta norbanakoak biltzeko gunearen aktibazioa eta gero (2010-2011an), berau egikaritu eta jarraipena emateko burutu den ahalegina. Gazte elkarteen plataformak berezkoa duen izaeratik, sareak sortu, elkarlana proposatu eta proiektuak eraikitzekoa jaio zen Kulunkan. Balioetan oinarritutako heziketa landu eta ikas-jolas topaketa edo esperientzia pilotu bat martxan jartzeko helburuekin hain zuzen ere. Hasiera batean, EGK barruko sei bat elkartek parte hartu bazuten arren, gaur egun bakarra mantentzen da: Urtxintxa eskola. Proiektu honen birtutea gainera, kanpoko eragileekin harremanak landu eta finantzaketa zein eragin esparrua zabaltzeko aukera ematen duela. Bilera kopurua: 12

- **ARABAN:**

Gasteizko eta inguruko bestelako elkarte eta eragileekin bildu da EGK. Elkarteen egoera nahiko kaxkarra izan da urte guztian zehar. Hori dela eta, diru laguntzen inguruko informazioaren gainean lan egin da. Elkarteen egoera hausnartzen, irtenbideak topatu nahi izan dira. Indarrak batzeko ahaleginak bertan behera gelditu dira. Bestalde, bestelako elkarte, eragile eta Kontseiluekin interesa piztu da: Bavierako Gazte Kontseiluak bisita egin zuten.

- **GIPUZKOAN:**

Urte hasieratik, lurralde koordinatzaileak hartu zuen Gipuzkoako Astialdi Foroa koordinatzeko ardura. Langile guztien lanaldi murrizketa zela medio, Astialdi Foroko koordinatzaileak ordu horiek beste zeregin batzuetan bideratzeko erabaki hartu zuen Batzorde Iraunkorrak. Horrela, ardura hori, Gipuzkoako Koordinatzaileak hartu zuen.

Ordutik, urtarrila ekaina bitartean zazpi bilera antolatu ditu Gipuzkoako Koordinatzaileak Astialdi Foroarekin batera. Horietan, Astialdi Foroak, urte hasieratik zeukan agenda mantendu da. Horretaz gain, berezko garrantzia zuten bi gai sartu dira arreta berezia eskaintzeko asmoz: komunikazioa eta boluntariotza areagotzeko estrategiak. Komunikazioa hobetzeko teknikak Gipuzkoako Koordinatzaileak proposatu zituen eta jabetze prozesu hori Txema Ramírez de la Piscina, EHUko irakasleak, elkarteei, propio, emandako hitzaldi batekin osatu zen. GKEen erronka informatiboa: Nola lortu eragin handia hain baliabide urriekin? izan zen hitzaldiaren izenburua.

Era berean, boluntariotzaren inguruan hausnartu eta ideia berriak hartzeko EGKk beste lurralde bateko esperientzia baten inguruko solasaldia antolatu zuen. Zehazki Arabako HIESAren aurkako plataformako bi kide gerturatu ziren Donostiara euren lanaren berri emateko. Boluntariotzaren esparruan egindako aurrerapausoak azaldu zituzten eta saioa hiru orduz luzatu zen. Elkarte honek, bost urtetan, buelta eman dio boluntariotzaren egoerari. Hasieran boluntario eskasia zeukaten baina plan baten bitartez eta boluntarioekin egiten zituzten ekintza guztiak behin baino gehiagotan pentsatu ostean, egun, ezin dituzte boluntario gehiago hartu, gehiegi dauzkatelako.

Dena dela, irailetik aurrera, Gipuzkoako Astialdi Foroa Koordinatzeko lana Hezkuntza teknikariaren zeregina izatera igaroko zela adostuta zegoen eta, hala izan da.

Gazte-ekin egitasmoa azaltzeko beste saio berezi bat antolatu zuen EGKk Astialdi Foroko elkarteei propio azaltzeko.

Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) Gipuzkoako Koordinaziotik urte hasieratik bi instituzioen artean hitzarmena sinatzeko bilerekin hasi ziren. Hitzarmenak trukea zuen oinarri. UEUak Markeskoa Jauregia erabiltzeko baimena dauka, Eibarreko Udalarekin lortutako akordio baten bitartez. Bertan erabilera anitzeko gelak daude eta UEUak askotariko ikastaroak antolatzen ditu bertan.

EGKk bere aldetik, UEUren helburuko publikoarekin aritzen da lanean, hau da, gazteekin eta, gainera UEUren helburuekin bat dator (euskara zabaldu, Euskal Unibertsitatearen bideari ekin; ezagutza, zientzia euskaraz hedatu).

Horrela, EGKk UEU lagunduko du publizitatearekin; bere ikastaroen informazioa sare sozialetan zabalduz, bere elkarteen artean informazioa hedatuz eta web gunearen bitartez gazteak erakarriz. UEUk bitartean, EGKko elkarteei baldintza berezietan alokatuko dizkie gelak.

Hitzarmen honen ondorioz, UEUk eta EGKk bestelako hitzarmenak adostu dituzte. Horren adibide da, EGKak –Gipuzkoako Koordinatzaileak eta Komunikazio teknikariak- UEUren bitartez elkarteen komunikazioaren inguruko bi ikastaro eman zizkietela AEKko euskaltegietako zuzendari guztiei.

Horretaz gain, eta ikastaroen balorazio positiboa izan zelako, EGKk ikastaroa errepikatu egin zuen UEUren “Udako Ikastaroetan”. Eibarreko egoitzan garatu zen ikastaroa, ekainaren 26 eta 27an. Elgoibarko Izarra taldeko kideak, Ikasle Abertzaleak taldeko kideak eta zenbait zinegotzi izan ziren ikasleak.

Jarraipena eta ebaluaketa

- **BIZKAIAN:**

Murrizketak direla medio eta EGKren estruktura zaharkitua kontutan edukita, EGKko elkarteengandik nolabaiteko **proaktibitatea** egon dela esan daiteke. Ez da erreza garai hauetan, EGK-k batzuetan duen erreferentzia eza ikusirik, burutzen diren egitasmoetan parte hartzea.

Zentsu honetan aipatzekoa da, **Kulunkan** egitasmoa aurten burutzeko aukerarik ez dela izan, finantziazioa eta elkarte batzuen denbora-inplikazio faltagatik, baina hurrengo urteetan egikaritzea aurreikusten da. Gainera, emandako pauso kualitatiboa nabarmentzekoa da, proeiktuaren bizkarezurra-txostena sarearen (elkarteen) eskutan dago, edozein momentutan berau hartu eta aurrehartzeko. Bestetik, ikusteke dago EGKko elkarte gehiago animatu daitezkeen edo ez, horren arabera, sare laneko atalean sartu edota EGKko elkarteekiko lanean utzi beharko da hurrengo urterako. Lan hau, Hezkuntza teknikariren laguntzaz burutu da.

Aipatu beharra dago ere, **Urriak 17** (pobreziaren nazioarteko egunean), EGK-k aurten egindako lana oso murritza izan dela. Ez baitago denborarik ez eta finantziazio malgutasunik sare honetan elkarte kideak edota teknikariak lanean murgiltzeko.

"Indartzen" EGKren berregituratze prozesuari dagokionez, ematen du aurten itxi eta martxoko asanbladarako proposamena helarazi ahalko dela. Urte erdia pasatu eta gero berriro hartu den arren, bide honetik doa eta ondorio praktikoetara ailegatzen ari da.

Gazte borraste eta **Berriz Berri** proektuek egun altxorra dira EGKrentzat. Hamaika elkartek parte hartzen dute bertan, berau egin eta etengabeko elkartruke-informazio jarioa ahalbidetzen dute. Balorazio oso positiboa egin da beti.

Hala eta guztiz ere, oztopoen gainetik, lehen aipatutako proiektuen gehiengoa aurrera darraite eta berriak sortzeko ahaleginak ere, noski.

- **ARABAN:**

Urtean bildutako elkarteak: urtarriletik ekainera bitartean, Arabako EGK-ko elkarteekin, astialdi foroko ekintzetara zuzendua izan da. Maiatzean egin izan zuten kale ekintzarako babesa eta ahal izan den laguntza eskaini zaie, kartelen difusioan, Gasteizko espazio publikoan eta EHUn ekintzak egiteko behar diren baimenak eskatuz. Ekainetik aurrera Gazte ekin prozesurako bideratu dira bilera guztiak.

Modu berean, GAZTE-EKIN proiektua interesa sortu du eta parte hartzea sustatuko zukeela uste genuen. Hala ere, parte hartzea Arabako elkarteena nahiko txikia izan da, hasiera batean harrera ona izan zuen arren.

EGKko jardueretan parte hartu duten elkarte kopurua: oraindik Gazte-ekin proiektu parte hartzailearentzat, aurkezpenerako elkarte bakarra azaldu zen, baina bestalde maiatzean eginiko kale ekintzan (Astialdi Forotik bultzatua) parte hartze aktiboa eta dinamikoa izan da, guztiok parte hartuz.

Elkarte bakoitzarekin sortutako kontaktuak: Geroz eta harreman estuagoa dago. Konfiantzazkoa, horrek dakartzan onurak kontutan hartuz.

Sortutako sareak- harremanak elkarteen artean: oraindik ez dugu aukerarik izan sare lan hau baloratzeko. Eztabaida egituratuetan parte hartzen duten eragile ezberdinekin sortu daitezkeen sareak ikustear daude, baina positiboki jasotzen da.

Elkarteengandik jasotako elkarlanerako proposamenak: Arabako Gazteriaren egoera salatzeko, kale ekintza bat proposatu genuen. Honetarako euren babesa guztiz daukagula azaldu ziguten. Hala ere, irailera arte ez da ezer mugitu. Azkenik, saiakerak bertan behera gelditu dira.

Elkarteei proposatutako elkarlanak: kale ekintza egitea, murrizketen inguruan, Arabako gazteriaren egoera salatzeko.

- **GIPUZKOAN:**

Urtean bildutako elkarteak: EGKk Gipuzkoa eta Donostiako gizarte eragile ezberdinekin bilera kopurua: 35 bilera. Bilera hauek bi fase ezberdinetan sailkatu ditzakegu. Alde batetik, urtarrila eta martxoa artean ospatu zirenak eta bestetik, martxotik ekainera ospatu direnak. Urtarrila martxoa bitartean ospatutakoak, Donostian Elkarteen Foro bat sortzea zuten helburutzat. Elkarteen topagune bat komunean eskakizunak bideratzeko, era ordenatuago batean. Aldarrikapenak gizarteratzeko sinergiak sortzeko lekua izan behar zuen. Martxotik urrira, elkarte ezberdinekin bildu edo lan egin du EGKk sare lana indartzeko. Besteak beste, Bagera herrigintza, Lokarri, Joxemi Zumalabe, Piratak, Muntag, Sareginez, Palestina Sarea, Antidesarrollistak, Groseko Gazte Asanblada, Eleak, Medeak, Komite Internazionalistak, Caritas, ONCE, Gizalde, Mugarik Gabe edo EHGAMekin bildu da, adibidez, EGK.

EGKk aurreikusitako helburuak bete dira. Eusko Jaurlaritzaren murrizketa ekonomikoa nabaritu da baina lanarekin jarraitzeko apustuak bere fruituak eman ditu.

EGKk aldeei proposatutako ekintzek harrera oso positiboa izan dute, ekintzen ostean pasatutako galdera orrik isaltzen duten moduan.

Elkarteen artean lan egiteko ideia berriak gizarteratu dira.

EGKren izaera eta funtsa kanpoko beste elkarte batzuetara zabaldu da ere, Arabako HIESAren aurkako komisiora, adibidez Komunikabideekin erlazioa hobetu da, EGKk egndako lobby lanari esker. Erreportaiak lortu dira boluntariotzaren garrantzia gizarteratzeko.

UEUrekin hitzarmena (Eibarreko egoitza). UEUren bitartez hiru ikastaro antolatu dira (2 AEK, beste bat irekia).

Bavariako Gazte Kontseiluko etorrera prestatzeko: 3 bilera (aurretikoak). Bavariako Gazte Kontseiluko kideekin Gipuzkoako. Koord. lana: 3 egun.

EGKren izaera berriaren inguruko hausnarketak: Gazte- ekin proiektua oso interesgarria iruditu zitzaien eta parte hartuko zutela zioten. Hala ere, ebaluazioa nahiko kaskarra da, ez baitute parte hartu topaketetan.

Bavariako Gazte Kontseiluko etorrera prestatzeko: 3 bilera (aurretikoak). Bavariako Gazte Kontseiluko kideekin Arabako. Koord. lana: 2 egun.

Abenduak 1 ihesaren aurkako eguna: CJEri material eskaera egin. Comisión Antisidakoekin harremana izan materiala banatzeko.

5.3 Gazteekin zuzenean edo zeharka lan egiten duten sareekiko lana

Deskribapena

Gazteak gizartearen islada diren heinean, aniztasunez batzen dira, horregatik edonon eta edonola topa daitezke: formalki elkartuak, ez elkartuak, informalki elkartuak, asanbladetan, gaztetxeetan, kirol elkarteetan, kultur elkarteetan, ezertan. EGK gazte guztiekin saiatzen da harremanetan egoten. Batzuekin errazagoa da, beste batzuekin zailagoa. Hala ere, proiektuak garatzeko eta burutzeko momentuan denak kontutan hartzen dira beti.

EGKtik kanpoko elkarteetako gazteekin topo egiteko elkarte horiekin harremanetan egotea ezinbestekoa da. Normalean, elkarte bakoitzak bere lanak burutzen ditu, eta normala denez, lehentasunezkotzat jotzen ditu euren jarduerak. Hala ere, sarritan, elkarte eta gizarte eragile ezberdinak plataformetan biltzen dira euren aldarrikapenak bat eginez, indarrak batuaz.

Holako topaguneak oso garrantzitsuak dira EGKrentzako, gizarte mugimenduetako errealitatearen termometro moduan erabiltzen baititu: EGKtik kanpo dauden elkarteen egoeraren islada direlako. Hortik, harremanak ateratzeaz aparte, elkarte horien aldaketen eta egoeraren inguruko berriak jasotzen ditu. Eta ateratako kontaktuei esker, beste eragileekin elkarlana eta sare lana bultzatzea posible du EGKk. Baita euren sare propioak ezagutu eta, amarauna zabaltzea ere.

Beraz, EGKren plan estrategikotik urrun ez badaude, eta denborak uzten duen bitartean, urtean zehar sortzen diren ekimenetan parte hartzen da.

Horrez gain, harreman hauek ez dira plataformetara mugatzen. Beste era askotara burutzen dira harremanen indartze edo sareen indartze hau. Era horretan, elkarteei beste era bateko euskarriak eskaintzen zaizkie hauen ahotsa ozenagoa eta zabalagoa izan dadin. Hor dago Berriz Berria, beraiek antolatzera doazen ekitaldi, jarduera edo bestelako ekintzen berri ematen duena. Edota, sarri taldeen artean, batekin eta besterekin biltzearen ondorioz lortzen den informazioa baliatuz, burutzen den bitartekaritza lana. Askotan nabaritzen ez diren lanak izan arren, gauzapen argia ez dutelako, behar beharrezkoak dira azkenean emaitzak onak izaten laguntzeko.

Helburuak

OROKORRAK:
- EGKren erreferentzia sarea zabaldu/indartu.

ZEHATZAK:
- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ ezagutu.
- Sare lana eta elkarlana bultzatu eta sustatu.
- Finkatutako dinamikak indartu.

Hartzaileak

- Gazte elkarte eta sareak
- Gizarte mugimenduak
- Alderdi politiko eta langileen sindikatuak

Ekintzak

- **BIZKAIA:**

EGKk jasan dituen azkenaldiko aurrekontu murizketekin (3 urtetan %50a), aurten eta batez ere hurrengo urteetara begira, plataformetan parte hartzea nabarmen gutxitu da. Egoeraren larritasunak, EGKren baitan urgentziazko lehentasunak jartzera behartu du eta ondorioz, gazteen perspektiba, jendarte mugimenduen alorrean ezin izan da lehen bezala bermatu. Horren adibide gisa, Bilbogune, pobrezia zero, Palestinaren aldeko sarea, Kaleak aske edota ILPren inguruko lan taldeetan burutzen zen lana bertan behera geratu izana.

Aurten ere, aurreko urte amaieran sortutako elkarlanari esker eta krisi egoera zein murrizketen aurkako ekinbidean, 80 bat gizarte eragile eta sindikatuekin batera, plataforman murgildu da EGK. Planteaturiko ekimen eta moboilizazioei babesa eman, hausnarketan lagundu, komunikazioa egin edota azpiegitura errekurtsoak eskaini zaizkie. Bilera kopurua: 10

Apirilaren 9an, futbol partida batean ostean, Iñigo Cabacas gaztea ertzaintzaren pilotakada batek erahil eta gero, berau salatzeko herri ekimena aktibatu eta mobilizazio ezberdinak antolatu ditu EGK-k beste hamaika eragileekin batera. Bilera kopurua: 8

Iparraldeko Euskal Hautetsien zein Garapen kontseiluak deituta, Eusko ikaskuntzaren Datorkigunea proeiktuarekin batera mahainguru edo solasalditan parte hartu da, ekainaren 23an Bidarten (ikus LUR 5.eranskina). Beti ere, EGKk egiten duen lanaren zabalpena egin eta gazteriaren parte hartzearen inguruko erronka berriak aztertzeko eta eragileen arteko sare lana indartzeko asmoz. Horrez gain, EGK-k, Nafarroako Gazte Kontseiluak gidaturiko Ágora gaztea egitasmoaren barruan ere, azaroaren 24ean Iruñean, Gazteekin! kongresuaren ondorioen inguruko hitzaldia eman zuen.

Gainera, Bavierako gazteria Kontseiluko kideak bixitan etorri dira eta elkarlan-bidai honen antolaketan buru belarri aritu da EGK, herrialdeetako gazteriaren parte-hartze proiektuak ezagutarazteko asmoz. Hartatik, aukera zabaldua dago hurengo hilabetetan Bavierara bidaiatu eta hango errealitatea hurbiltasunez ezagutzeko. Aste beteko egonaldia-koordinazioa.

- **ARABAN:**

Arabako lurraldetasunetik hasiera batean, jardunaldi erdiarekin plataformetan parte hartzea ez zegoen aurreikusia. Hala ere, Gazte-ekin proiektua aurrera eraman ahal izateko eta Arabako eragileen artean zabaltzeko, beharrezkoa ikusi dugu harremana sakontzea eta

euren lanaren inguruan ezagutza bat izatea. Aspalditik harremana galduta zegoen elkarte zein eragileekin harreman txiki bat berreskuratu da.
Izandako bilerak:

- Elkarteekin, lurralderantz: 6 bilera
- EHU: 2 bilera

- **GIPUZKOAN:**

Gipuzkoan, lan handia egin da alor honetan urtarrila eta ekaina bitartean ospatutako bilera kopuruak adierazten duen moduan. 35 bilera ospatu ditu EGKk Gipuzkoa eta Donostiako gizarte eragile ezberdinekin. Bilera horien helburua sareak indartzea izan da beti, elkarte ezberdinetako eragileak batu eta ezagutzeko.

Bilera hauek bi fase ezberdinetan sailkatu daitezke. Alde batetik, urtarrila eta martxoa artean ospatu zirenak eta bestetik, martxotik ekainera ospatu direnak. Urtarrila martxora bitartean ospatutakoak, Donostian Elkarteen Foro bat sortzea zuten helburutzat. Elkarteen topagune bat komunean eskakizunak bideratzeko, era ordenatuago batean. Aldarrikapenak gizarteratzeko sinergiak sortzeko lekua izan behar zuen.

Ideia alboratua geratu zen elkarte ezberdinek lan karga handia zutelako eta, momentuan zaila ikusten zelako hori aurrera ateratzea.

Martxotik ekaina bitartean, elkarte ezberdinekin bildu edo lan egin du EGKk sare lana indartzeko. Besteak beste, Bagera herrigintza, Lokarri, Joxemi Zumalabe, Piratak, Muntag, Sareginez, Palestina Sarea, Antidesarrollistak, Groseko Gazte Asanblada, Eleak, Medeak, Komite Internazionalistak, Caritas, ONCE, Gizalde, Mugarik Gabe edo EHGAMekin bildu da, adibidez, EGK.

Bestalde Gipuzkoan, EGKk Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) adostutako hitzarmenak berebiziko garrantzia izango du. Hitzarmen honen bitartez, EGKk UEUk antolatzen dituen ikastaroak bere elkarteen artean zabalduko ditu eta ordainean, UEUk, baldintza bereziak ezarriko dizkie EGKko elkarteei bere egoitzako gelak eta baliabideak alokatzerakoan. Eibarreko Markeskoa jauregia da UEUren egoitza nagusia baina Iruñea eta Baionan egoitzak dauzka ere. Kasuan kasu aztertuko da hitzarmena nola moldatu.
Bilera kopurua:

- Elkarteekin, lurralderantz: 35 bilera
- Sareginez: 7 bilera
- UEU: 3 bilera

Jarraipena eta ebaluaketa

Balorazio oso positiboa atera daiteke eragile eta proeiktu guzti hauekin hauekin izandako harremanaz. Etorkizunean suertatu daitezkeen elkar laguntzarako eremuak eraiki eta gizartearen-gazteriaren aktibazioan eragin zuzena dutelako besteak beste.

5.4 Administrazioetako gazteria sailekin lana

Deskribapena

Gazte elkartegintza munduarekin lan egiteaz gain, administrazioekin garatzen den lana EGK-ren egitekoren nagusienetariko bat da. Zergatik?

Alde batetik, EGK-ren Legeak azterlanak eta txostenak eginez eta bestelako bideez baliatuz, Administrazioari gazteen arazoekin eta interesekin lotura duten neurriak proposatzeko eta iradokizunak egiteko lana izendatzen diolako. Baita, lege honek administrazioari Euskadiko Gazteriaren Kontseilua onartutako solaskide izatea onartzen duelako, gazteriari dagozkion arazoen inguruko aginpideak Sailaren bidez emateko ahalmena aitortuaz (Zioen adierazpena, Maiatzaren 27ko 6/1986 LEGEA).

Kontseiluaren estiloa eragile guztiekin elkarlanean aritzea ere bada. Eta gazteria politiketan, eragile erabakitzaile bat badago, hori administrazioa da. Administrazioak baliabide ekonomiko handienak dituelako eta gazteria politiken inguruan eragile sortzaile eta bultzatzaile garrantzitsuena delako. Beraz, harreman egonkorra, ona, naturala eta jariokorra edozein administraziorekin ezinbestekotzat jotzen du EGKk: bai herri zein lurralde mailakoak. Elkarlanaren eta lankidetzaren beharra daukate bi eragileek. EGKk administrazioa behar du, eta alderantziz ere, Administrazioek EGK behar du. Behar horietatik abiatuz, elkarlanerako esparruak sortzea eta bultzatzea komeni da. Honek bakarrik ekarri ahal dizkie onurak bi eragileei.

Azkenean helburua oso zehatza da: ahalik eta eragile gehienekin elkarlanean aritzea. Horrela, eragile-sarea zabaltzeaz eta indartzeaz gain, gazteen beharrak eta kexak behar den moduan asetzeko gaitasuna handiagoa izango da.

Horretaz gain, gazte eragile eta administrazioaren artean suertatu daitezkeen gatazkak bideratu eta bitartekari lana egitea dagokio EGKri. Gaztetxeen desalojo arrisku egoeretan edota jendarte mugimendu ezberdinak egiten dituzten aldarrikapenak zuzenean administrazioari helarazi ahal izateko burutzen da lan hau. Kontutan eduki behar da normalean eragile hauek errekurtso gutxi eta ez oso eraginkorrak dituztela.

Azkenik, udalekin dagoen harremana oso puntuala da, eta batez ere bertako gazte-teknikariekin egoteko izaten da, herriko gazteen errealitatea eurekin aztertzeko, elkarlanerako proposamenak zabaltzeko edota EGKren berriak, jarduerak plazaratzeko.

Helburuak

OROKORRAK:
- Administrazioekiko elkarlana eta zubi lana egin

ZEHATZAK:
- Hitzarmenak aztertu
- Elkarlanerako espazioak sortu/sustatu
- Lurraldearen ezagutza: Udaletako gazteria zerbitzuekin lana

Hartzaileak

- Foru Aldundiak
- Udalerriak

Ekintzak

- **BIZKAIAN:**

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Aurten, 2012-2015 Lankidetza Hitzarmena berritu egin da. Hitzarmenean aurrikusitako funtzioen zehaztea eta sinatzea burutu da. Batzorde misto honetan, urteko memoriak eta hurrengo urterakorako plangintzak aurkezten dira. Harreman egonkorra eta hurbiltasuna mantentzea ahalbidetzen du, bai eta bestelako gai batzuen inguruan lehen ukituak ematea. Horrekin batera, EGK-BFA hurrengo urteetara begirako proposamenak aurkezteko balio izan du. Bilera kopurua: 3

- Dirulaguntzen epaimahaia: Gazteria sailetik bideratzen diren estruktura eta egintza singularren inguruko diru laguntzak emateko epaimahiean ahotsa du EGKk. Proiektu ezberdinen espedienteen nondik norakoak ezagutu eta aholkularitza funtzioa dauka. Horrela, elkarte ezberdinen berri izan eta etorkizunerako proiektuentzako aliantza posibleak identifikatzea lortzen da. Bilera kopurua: 1

- Hartu-eman iraunkorra: Bestelako gai, proiektu edota gatazken inguruan berba egiteko aukera ematen du, telefonoz, emailez edota bilera espezifikoak lotuz. Aurten, BFAk departamendu eta udalekin zeharkakotasuna bilatzen duen Gaztedi Bizkaia egitasmoa aztertu, eta EGKk bertan duen papera eztabaidatzeko gune aproposa izan da. Bai eta lehenago aipaturiko GazteEkin! Proeiktuaren nondik norakoak ezagutzarazi eta administrazioaren parte hartzea nola bideratzeko balio izan du. Bilera kopurua: 2

Bilboko Udala:

- Gizarte Egutegia: Bilboko Udaleko partaidetza sailarekin, Urtxintxa Eskolarekin, EDE Fundazioarekin eta Gaztetxo Eskolarekin burutzen den egitasmoa da, errekurtso komunikatibo gutxi dauzkaten elkarteen (gizarte gaiak jorratzen dituztenak lehenetsiz) ekintzak argitaratu eta zabaltzeko egutegia da. Formatu digitalean zein paperezkoan zabaltzen delarik. Bilera kopurua: 10

- Bilboko gazteen beharrizanak aztertzeko asmoz, gazteria zuzendaritzarekin hartu emanean, diagnosi- inkesta zabaltzeko laguntza eskaini da. Bilera kopurua: 3

Herriz Herriko bisitak:

- Herrietako errealitateetara hurbiltzeko, bai eta bertako gazte teknikari/elkarte/mugimenduengana jotzeko eta EGKren lana gerturatzeko burutzen da jarduera hau. Aurten proiektu ezberdinek gidatu dute bisiten norabidea: Durangon, udaleko arduradunekin KULUNKAN ikas/jolas gunearen inguruko elkarlanean. Eta Gernikan, GazteEkin! Prozesu parte hartzailearen inguruan zein Bavierako gazteria kontseiluaren izandako elkarlan-bidairen inguruan. Bilera kopurua: 4

- **ARABAN:**

Arabako Foru Aldundiarekin izan den harremanak gora beherak izan ditu. Urtarriletik aurrera bilera batekin hasi zen, baina maiatzera arte ez dugu euren berri izan hitzarmen edo diru laguntza baten berri izateko. Proiektuka aurkeztutako plangintza bat aurkeztu zen baina maiatzean onartuko ez zenaren berri eman zuten. Beraz, Araba mailan ez da hitzarmenik lortu.

Eztabaidatzeko eta prestatzeko foroa: apirilak 19, osteguna.

Gazteria Politikak:

Gazteak, krisiari aurre egiteko aukerarik bai?

EGITARAUA:

Goizean: 10:00etatik 14:00 arte
Arratsaldean: 16:00etatik 18:00 arte

10:00 – Jardunaldiaren aurkezpena.

10:10 – Gaiaz hausnartzeko ponentzia, **Juan Antonio Borjak** emanda, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra eta Ekonomian doktorea.

11:10 – Lehenengo esperientziaren aurkezpena: **BIO-ALAI** (Kontsumitzaileen elkartea).

11:30 – **SLOW FOOD Araba**, elikadura arloko filosofia ezberdina.

11:50 – Gustuen laborategia, Slow Food elkarteko kideek egina eta atsedenaldia.

12:30 – **FIARE**, banka etikoa.

12:50 – **EUSKO CARSHARING**, krisialdian, kotxea partekatu.

13:10 – **DESAZKUNDEA**,gizarte mugimendua hazkundearekin kritiko.

13:30– **EDEX FUNDAZIOA, SOCIAL DREAMERS**, gazteen ekintzailetza soziala.

13:50 – Aurkeztutako esperientziei buruzko eztabaida.

14:00 – Bazkaria.

16:00 – Lan talde txikietan AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indar-guneak eta Aukerak) landu oraingo krisialdi ekonomikoaren aurrean gazteen egoera aztertzeko.

16:40 – Talde handian aurkeztu talde txikietan landutakoa eta eztabaida.

17:30 – Ebaluazioa eta agurra.

NORENTZAT:
Gazteria arloan lan egiten duten elkarteetako arduradun, gazteria teknikari, zinegotzi, profesional eta, oro har, gazte jendea. Jardunaldia prestatzeko materiala bidaliko da.

IZENA EMATEA: DOHAINIK
Behin betiko zerrenda osatzeko ondorengo baldintzak kontuan hartuko dira: izena eman dutenen hurrenkera, baita parte-hartzaileen artean aniztasuna ere.
Martxoaren 26tik apirilaren 16ra arte izena eman ahalko da, ondoko formularioa **araba@egk.org** helbidera bidaliz.

Bazkaria (aukerazkoa) bertan ordainduko da.

Informazio gehiago nahi baduzu: 945 220601 (Mireia) edo **945 161616, luz. 3211** (Modesto).

- Urtean burututako bilerak: Gazteria Politikak Aztertzeko Foroa prestatzeko bilera ofizialen kopurua: 6 bilera.
- Parte hartutako esparru/jarduera ezberdinetan: Gazteria Politikak Aztertzeko Foroa prestatzen eta moderatzen ibili gara. Eragile desberdinak gonbidatu ditugu: Eusko Car Sharing, Fiare Banka etikoa, Edex,
- Sortutako esparru/jarduera berriak. Ez ditugu jarduera berririk egin.
- Herrietako administrazio berriekin izandako kontaktuak: Gipuzkoako zein Bizkaiko gazte teknikariekin harremanetan egon gara Arabako- Gasteizko Foroan parte hartzeko.
- Hitzarmenak egonkortzea lortu den ala ez: AFA ez da lortu.

- **GIPUZKOAN:**

Instituzioekin harremana oso estua da. **Gaztematika** egitasmoa da Gipuzkoako Foru Aldundia eta EGKren lanaren oinarri.

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- **Gaztematika:** Gaztematika Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema da. Bere baitan, eragile ezberdinak batzen ditu; Foru Aldundia, Gipuzkoako Udal gehienak baita gazteekin erlazioa duten erakundeak ere. Bi dira Gaztematikaren helburuak; hezkuntza ez formalaren bitartez haur, gazte eta nerabeak gaitu zein laguntzea eta, “Haurrek nerabeek eta gazteek haurtzaroa eta gaztaroa, alegia gozatu, esperimentatu eta heltzeko diren eta helduaroaren oinarri diren aldiak, beren osotasunean bizi ditzaten laguntzea”.

  Hau da, Gaztematikan, haur eta gazteekin erlazionatutako erakundeek bere toki zehatza, berezia dute: Gipuzkoako Gazte Elkarteen Foroa. Gune honetan, EGK eta GFAk hala adostua, Gaztematikan egiten diren ekintzen jarraipena egin da –lan talde ezberdinetan egiten den lana- eta, elkarteek euren iritzi eta ekarpenak egiteko aukera izango dute.

  GFAk eta EGKk adostu zutenez, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua izan da Gipuzkoako Gazte Elkarteen Foroa eta Gaztematikako erabakitze-guneen arteko zubia. Azken batez, EGK, gizarte zibilaren ordezkari izan da -instituzioak ordezkatzen dituzten teknikarien artean- eta, elkartegintzaren ahotsa mahai gorenera eraman du, erabakitze gunera hain zuzen. EGK eragile administratiboa ere izan da, baina elkarteetatik oso gertu dagoen eragile administratiboa izan da. Bere izatean, administrazio eta elkarteen arteko zubi lana egin da. Hortaz, izate hori aprobetxatuz, eta gizarte zibilaren ordezkari izan da Gaztematikan Elkarteen Foroaren bitartez.

  Lana bi fase ezberdinetan garatu da. Urtarriletik Urria bitartean, GFA eta CRAJ!ekin batera Gipuzkoan duen ordezkaritza arduratu da foroaren diseinuaz, arlo teorikoaz. Foroa martxan jarri denean, azaroaren 24an, EGK arduratu da honen dinamizazioaz. Hau da, EGKri dagokio Gaztematikaren barruan garatutako ekintza ezberdinen inguruko iritzia ematea, batez ere haur eta gazte elkartegintzarekin erlazionatutakoen inguruan. Modu berean,

Gaztematikako beste organo batzuek garatu beharreko gaien inguruko proposamenak ere egin ahal izango ditu.

Hilabete hauek emandako fruitua arlo teorikoaren antolakuntza da. Horrela, EGKk, CRAJek eta GFAk hiru funtzio aurreikusi dituzte Elkarteen foroarentzako:

1- Gipuzkoako haur eta gazte elkarteen elkargune eta **eztabaidarako gune** gisa funtzionatzea, haur eta gazteen sustapen alorrean Gipuzkoako udal eta foru administrazioek garatutako politiken inguruan, eta batez ere elkartegintzarekin erlazionatutakoen inguruan.

2- Bestetik, Gaztematikaren inplementazio planaren **jarraipena** egitea, elkartegintzaren
ikuspegitik.

3- Azkenik, Elkarteen Foroko Batzorde Iraunkorraren kideak aukeratzeko organoa martxan jartzea, azaroaren 24an abiatu dena.

Osaerari dagokionez, Gipuzkoako haur eta gazte elkarte guztiak izan dira Gipuzkoako Elkarteen Foroko partaide. Alderdi politikoen gazteria sailak, sindikatuen[1] gazteria sailak eta zerbitzu-emaile direnak ez dira foroan egongo, hauek bestelako tokia izango baitute Gaztematikaren arkitekturan. Foroaren saioetan asko jota erakunde bakoitzeko bi ordezkarik parte har dezakete, beti ere boto bakarrarekin. Elkarteen Foroa bere lehenengo batzarrean osatu da eta bertara "Gipuzkoagazteria"ko Intraneteko direktorioan eta Gipuzkoako elkarteen mapan erregistratuta dauden elkarteak deitu dira.

Datu zehatzei dagokionez, 6 Astialdi Eskola, 7 Astialdi Federazio, 65 Astialdi Talde, 6 Euskara Elkarte, 20 Gizarte ekimeneko elkarte eta 11 Kultura elkarte deitu dira Gipuzkoako Elkarteen Foroko kide izateko.

Zereginei dagokinez, Gaztematikaren urteko Inplementazio Planaren jarraipena egitea eta Gazte elkartegintzaren inguruko proposamenak egitea izan dira zeregin garrantzitsuenak.
Era berean, Gaztematikako urteko Inplementazio Planean txertatzeko Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zerbitzuak urtero sinatzen duten hitzarmeneko ekintzen plangintza proposatzea eta ontzat ematea[2] aurreikusi izan da. Elkarteen Foroaren aparteko deialdiak egiteko aukera onartu dute EGKk eta GFAk, betiere bertako 10 kide baino gehiagok hala eskatua bada.

Funtzionamenduari dagokionez, Batzarra izango da Foroaren funtzionamendu egitura, eta adostasun maila handiena lortzen saiatuko da beti. Edozein kasutan, gutxienez 15 elkartez osatutako quorum bat eskatuko da saio

[1] Hau, EGKko Batzorde Iraunkorrak onartu beharko duen puntua da.
[2] Hau, EGKko Batzorde Iraunkorrak onartu beharko duen puntua da

bakoitzean. Elkarteen Foroak gutxienez 3 bilera egingo ditu, Gaztematikako foro teknikoaren bilerekin bat datorrela[3].

Saioen aldia irailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko uztailaren 31n bukatuko da. Elkarteen Foroaren eta Batzorde Iraunkorreko Idazkaritza Teknikoaren arduraduna EGK izango da. Idazkaritza Teknikoak bilerak antolatuko ditu, bertako aktak jasoko ditu eta partaideei bidaliko dizkie.

Batzorde Iraunkorra 7 partaidez osatuta egon da:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkari 1
- Gipuzkoako Foru Aldundiko 1
- Astialdi foroko 2
- Foroan aukeratutako bestelako 3 erakunde, ahal izanez gero toki mailakoak[4].

Batzorde Iraunkorrak, EGK-k aurkeztu dion Urteko Jarduera Plana onartu edo proposamenak egin ditu[5]. Plan hori, Elkarteen Foroan jakinarazitako lehentasun eta beharretan oinarrituko da.

Laburbilduz, Elkarteen Foroko arkitektura adosteko bileretan, hau da, arlo teorikoan, EGKren funtzioak hauek izan direla adostu dute GFAk, CRAJ!!ek eta EGKk:

- Elkarteen Foroari elkartegintza arloko Urteko Jarduera Plana aurkeztea eta bertan egiten dituzten ekarpenak jasotzea
- Foro Teknikoari Urteko Jarduera Plana aurkeztea
- Gaztematikako urteko Jarduera Planaren garapena jarraitzea
- Gaztematikako urteko Jarduera Planaren ebaluazioa gainbegiratzea
- Elkarteen Foroaren saioak prestatu eta dinamizatzea.
- Elkarteen Foroaren saioen aktak jasotzea

Gipuzkoako Elkarteen Foroko Batzorde Iraunkorrak saioen aldi bakoitzean 3 bilera egin ditu gutxienez, eta bere funtzioak betetzeko beharrezkoak diren nahi haina aldiz.
Era berean, beharrezkoa izan denez, lanerako azpi-batzordeak sortu ahal izan dira. EGK izan da Batzorde Iraunkorreko Idazkaritza Teknikoaren arduraduna. Idazkaritza Teknikoaren eginkizuna bilerak antolatzea eta aktak jasotzea izan da.

o Bestalde, **<u>Foro teknikoa</u>** daukagu: Foro Teknikoa Gipuzkoako udaletako teknikari gehienak batzen dituen organoa da. Gaztematikaren baitan kokatutako foroa da. Bertan, Gaztematikako ekintzak garatzeko sortu diren azpitalde ezberdinen lanaren berri ematen da. Era berean, hurrengo ikasturteetarako lan helburuak adosten dira.

[3] GFAren azken erabakiaren ostean, ikusteke dago Politikoen Foroarekin datak nola lotuko diren
[4] Elkarte txikienen arazoetara heltzeko, euren egoeraren berri emateko, Gipuzkoako Elkarteen Foroak ahalegin berezia egingo du. Horretarako, Batzorde Iraunkorrean, elkarte hauei leku bat bermatu zaie, bi izan daitezkeela aurreikusiz.
[5] EGKko Batzorde Iraunkorrak hala onartzen badu

Lehen aldia izan da Foro Teknikora teknikaria ez den eta, gizarte zibilaren ordezkari den pertsona bat gonbidatua zegoela.

Udaletako teknikarien aurrean, Gipuzkoako Elkarteen Foroa abiatzeko pausuak azaldu dira. GFA eta CRAJ!!ekin egindako lana, aurrera begira aurreikusten diren data eta epeak baita eskari zehatzak ere bideratu dira. Horrela, alor ekonomikoan, ordainsariak aldarrikatu ditu EGKk bileretan, Gipuzkoako Elkarteen Forora hurbiltzen diren elkarteei gutxieneko gastuak, hau da, bidai gastuak pagatzeko.

EGKk, izandako hiru bileren irakurketa positiboa egiten du. Elkartegintzaren ahotsa mahaia gorenera, erabakitze gunera eramateko aukera izan du baina hori bezain garrantzitsua da teknikarien kexa eta zalantzak zuzenean entzuteko aukera izan izana. Bilera horietan landutako gaiak EGK eta elkartegintzaren interesekoak izan dira. Horretaz gain, aportazioak egiteko aukera egon da, elkartegintzaren ahotsa txertatzeko aukera.

GFAk hartutako erabakiaren ostean, hau da, aurrerantzean EGK, Gipuzkoako Elkarteen Foroko bozeramaile moduan Foro Politikoan parte hartuko duela jakin ostean, ikusteke dago nola bideratuko den interlokuzioa.

EGK Gipuzkoako Elkarteen Foroko kideen esanetara egon da eta kideek Foro Teknikoan interlokuzioa eskatuko balute, EGKk hura lortzeko dituen baliabide guztiak erabiliko lituzke orain arteko bidearen balorazio positiboa egiten duelako.

- Aldi berean **Elkarteen Foroaren eraketa eguna** aurkitzen da: EGKk, GFAk eta CRAJ!!- ek azaroaren 24-a zuten aurreikusita Gipuzkoako Elkarteen Foroa eratzeko. Foroa berriz aurkeztu (lehen aurkezpen bat antolatu zen ekainean), onartu eta Foroaren Batzorde Iraunkorra aukeratzea zen asmoa.

  Egunaren baitan, bere barne egiturari dagokionez, Gipuzkoako Elkarteen Foroaren gaiari dagokionez, lau alditan eztabaidatu da EGK-ren Batzorde Iraunkorraren bileretan. Bilera hauek bi astetik behin ospatu izan dira. Batzorde Iraunkorra mesfidatasuna agertu du proiektuarekiko EGKko kide diren elkarte guztiak parte hartu ezin zutelako. Hau da, GEFan, elkarte politiko eta sindikalak kanpo geratu dira, eta elkarte hauek EGKko kide dira. Horrek eztabaida luzeak sortu ditu baina Gipuzkoako Koordinazioak “luzapen” bat lortu zuen. Hau da, proiektua, Gipuzkoan, estrategikoa eta aintzidaria da. Horregatik, EGK proiektuan buru belarri murgildu behar zela defendatu da; zalantza guztien gainetik bidea egiteko. Gipuzkoako Koordinazioak argi utzi du memoria zein bileretan ez zetorrela bat puntu honekin, hau da, elkarte politiko eta sindikalak lekuz kanpo baldin bazeuden (gaiak euren interesekoak ez badira), beraiek izango zirela agertu behar ez zirenak baina, hasierako beto hori arriskutsua zela. Gauzak horrela, Batzorde Iraunkorra eta Gipuzkoako Koordinazioaren arteko adostasuna “laissez faire” modukoa izan zen: utzi egiten, utzi bidea egiten.

Batzorde Teknikotik Batzorde Politikora aldaketa ez zen ere begi onez ikusi ez zelako akordioaren bitartez iritsi. Beste zalantza bat ekonomiari dagokiona da. EGK eta GFAren arteko hitzarmenak diru kopuru bat zehaztu du EGKk aurrera daraman lana garatzeko. Lana handitu egin behar zen eta GFAk horren aurrean egindako apustua eskertu da, hau da, hitzarmen ekonomikoa mantentzea baina zalantza argia izan da ere: noraino da justua diru kantitate bera jasota lana handitzea? Justua Batzorde Iraunkorran egotea, GEF dinamizatzea, deialdiak egitea, Politikoen Batzordean bilerak antolatu eta aurrera eramatea diru kantitatea igotzen ez denean? Bidea egiten jarraitzea erabaki zen, gerokoak gero landuko zirela.

Dena den, EGKko Batzorde Iraunkorrak EGKren autonomia bermatu nahi duela adierazi du. EGK ibilbide propioa daukalako, bere proiektuak propioak garatzen jarraitu behar duelako eta bere ildo estrategikoei erantzun behar dielako.

Gipuzkoako Koordinazioaren zalantza handiena Foroak suposatuko zuen lana izan da. Horrekiko perspektiba eza. Orain arteko lanak eta etorkizunekoak ez zuten zerikusirik. Orain artekoa diseinuan oinarritzen zen, egituraren diseinuan, alegia. Etorkizunekoa ostera, ezin zen aurreikusi Batzorde Politikoarekin (aldaketaren ostean) antolatu behar ziren urteko hiru bileretaz haratago.

Gipuzkoako Koordinazioak gaia lau aldiz landu du Gipuzkoako Astialdi Foroan. Birritan Ivan Barrio zenean koordinatzaile, GFA eta CRAJ!! -eko teknikariekin beste behin eta, azkenik, Itsaso Anduezarekin (Ivan Barrioren ondorengoa Astialdi Foroan). Era berean, CRAJ!!-eko Urko Imazekin batera deialdi informatiboaren ardura hartu zuen aurreko ikasturtean. Oraingoan ere, Urko Imazekin batera kudeatu da prozesua deitu eta Foroaren eraketa antolatzea. Gipuzkoako Koordinazioak lan horren balorazio positiboa –oso- egiten du.

Astialdi Foroak argi utzi du elkarteen topagune heterogeneo eta autonomoa dela. Elkarteek Foroaren berri zuten bai EGKren biatrtez (Astialdi Foroko teknikaria eta Gipuzkoako Koordinatzailea) bai GFA eta CRAJekin (EGK bertan zegoen ere) egindako bileraren bitartez. Foroaren eraketa egunari begira saio berezia egin zuen eta ez zenpostura komunik egon. Kide bakoitzak bere erabaki eta iritziekin joan zen GEFra argi baitute topagune bat dela eta aberasgarriena hori dela, bakoitzak bere iritzia defendatzea iritzi guztiak defendatu daitezkeen esparruan. Elkarteen Foroa prestatzeko bileretan Batzorde Iraunkorrean Astialdi Foroak bi kide egongo ziren, GFAk, CRAJ!! eta EGK horrela adostuta. Erabaki hori zein Astialdi Foroa “estrategikotzat” hartzea ongi hartu zuten baina Foroaren eraketa bilerara elkarte bakoitzak bere iritziarekin joatea erabaki zuten, beste elkarte guztiek bezala.

Era berean, Gipuzkoako koordinaziotik Astialdi Foroaren baitan beldurra sumatu da. GFAren zenbait planteamendu informalek Gipuzkoako Elkarteen Foroak Astialdi Foroa desagerrarazteko sentsazioa zabaldu dute. Informalak baziren ere nolabaiteko beldurra sortu dute. Horrek, autonomia espazio honen defentsa itxia eragin du. EGKtik Astialdi Foroaren etorkizuna Astialdi Foroak erabaki beharko zuela defenditu da beti. Bi izaerak mantendu dira.

EGK-ko Gipuzkoako Koordinaziotik argi eta garbi onartzen da elkarteek “parte hartze txikia” izan dutela salatzen dutenean, prozesu oso parte hartzailea ez dela izan islatzen dela. Prozesuaren giltza EGKk, GFAk eta CRAJ!!-en esku egon da eta EGKk autokritika egiten du. Parte hartzea sustatzeko eta EGKkoak ez diren elkarteen kuriositate eta inplikatzeko nahia sustatzeko Astialdi Foroarekin ez ohiko batzarretan landu daitekeen gaia delako.

Era berean, onartu besterik ezin ditugu Foroan jasotako iritzi batzuk. Euren iritzia lortzeko bi, hiru edo lau bilera antolatzea ez dela aski prozesua parte hartzaile moduan definitzeko, internet bidez iritzia ematea ez dela euren parte hartzeko erarik maitatuena eta, bereziki, prozesua benetan estrategikotzat hartuz gero Foroarekiko apustua ekonomikoa behar dela izan.

Krisi garaian, elkarte guztien azpiegitura murriztu denean, prozesu parte hartzaile bat martxan jarri nahi izatea elkarteetako kideei inongo dirulaguntzarik eman barik erreala ez dela esan zuten elkarteek. Guk elkarteen hitza berretsi besterik ezin dugu egin. EGKko Gipuzkoako Koordinazioak ondo ulertzen du elkarteentzako, Batzorde Iraunkorrean egon behar ziren elkarteentzako, zer nolako lana suposatzen duen. Finean beste lan bat da eta egoera kritiko honetan lan orduak apustu ekonomikoa behar dute.

GEF eraketa egunean, parte hartzea urria izan zen. Horren adierazlerik garbiena: quoruma ez zela bete.

Astialdi Forokoak ez ziren elkarteen artean ezjakintasuna zen nagusi. Astialdi Foroko elkarte bakoitzak bere iritziarekin joan zen (kolektiboa heterogeneoa den heinean). Horrela, elkarteek bilera aurrera joan ahala hasi ziren euren zalantzak mahai gainean jartzen. Hobetzeko atalean aipatu bezala, horrek aurkezpena baldiuntzatu zuen baina, era berean, bi gauza islatzen ditu. Batetik, elkarte batzuek proiektuaren inguruko hausnarketa egina zutela eta, bestetik, zalantzak argitzeko premia zutela.

Bileraren irakurketa argia da. Elkarteek Foroaren beharra argi utzi zuten. **Foroa ez zen zalantzan jarri**. Elkarteek ostera, apustua, apustu ekonomikoa eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari. Foroa oso momentu kritikoan eratzen saiatu da, elkartegintzak murrizketa handiak pairatu dituenean eta elkarte askok euren etorkizuna zein den ez dakitenean. Lan karga ez da txikitu, bai ordea langileen kopurua eta, langile horiek beste lan batzuetan jartzeak kostua dauka elkarteentzako (orduak dira). Egia da Foroa eratzeak onurak suposatuko dituela elkarteentzako baina elkarteek momentuan aurrean daukaten lana urgentziaz ateratzen ari dira. Garrantzitsu eta urgentearen arteko binomioaren adibide garbia da.

Ez da asmatu ez prozesua eraikitzen; Astaildi Foraoren parte hartze aktiboa behar da; ez garrantzitsua dela erakusten eta, gainera, ez parte hartzea ez da saritua egon ez delako egon elkarteekiko apustu ekonomikorik. Ez bakarrik eratu beharreko permanentearentzako baizik eta Eskoriatza, Legazpi edo

Eibarretik etorri daitezkeen elkarteei bidaia pagatzeko. Parte hartzea saritzeko eraren bat topatu behar da.

Hau izan zen elkarteen kritika hausnarketa nagusia eta EGKk elkarteen hausnarketarekin (apustu ekonomikoa) bat dator bileretan hainbat alditan aipatu duen moduan.

- Bukatzeko, **Elkarteen mapa** daukagu: Elkarteen mapa GFA, CRAJ!! Eta EGKren artean garatutako proiektu estrategikoa da. 2009 urtetik 2012 urtera luzatu da. Mapa, Google Maps aplikazioa du oinarri. Gipuzkoako mapa geografikoan, herri zein auzo bakoitzean dauden gazte intereseko elkarteak identifikatzen ditu. Era berean, elkarteekin harremanetan jartzeko beharrezko datuak agertzen dira helbidea, web gunea edo telefonoa, adibidez. 200 bat elkarteren datuak batzea lortu da. Datuak urtero eguneratuko dira mapak Gipuzkoako elkarteen errealitatea islatu dezan.

  GFA, CRAJ!! eta EGKren artean, elkarlanean garatutako proiektuak elkarteen sarea indartzea du helburu, hau da, EGKren helburu estrategikoetako bat. 2012 urterako plangintzan adostutakoa jarraituz, datak bete egin dira. Lan karga nagusia CRAJ!!ek hartu du eta EGKren lana datuen kontrastea izan da gehienbat.

  Behin mapak beharrezkoak zituen datuak kontrastatuak zeudela, EGKk difusioa bermatu du. Horrela, prentsa oharra sortu du, euskaraz eta gaztelaniaz, eta kazetariekin harremanetan jarri da ekintza helburuko publikora zabaltzeko.

  Era berean, albistearen berri eman du bai Gipuzkoan baita EAE mailan ere, sare sozialen bitartez, web gunearen bitartez baita Gipuzkoako Koordinatzaileak bidalitako emailen bitartez ere.

  - Urriaren 17tik, Elkarteen mapa Google Maps aplikazioan bisitatu daiteke
  - Prentsa oharra
  - Komunikabideetan agerpenak: *Diario Vasco, Berria, Hala Bedi – TasTas – Eguzki, Noticias de Gipuzkoa*, *Info 7 irratia*
    11.000 bisitari baino gehiago (urriaren 24an)

- Urtean burututako bilerak: Gaztematikako Elkarteen Foroa antolatzeko bilera ofizialen kopurua: 21 bilera
- Gaztematikako Foro Teknikoan parte hartzea: hiru bilera
- EGKko permanentearekin emandako aurrera pausuak baloratzeko: bi bilera
- Gaztematikako Foro Teknikoan parte hartzea: hiru bilera

Jarraipena eta ebaluaketa

EGKrentzat oso baliagarria eta positiboa da administrazio ezberdinekiko egiten duen lana. Gazteriari zeharka edo zuzenean eragiten dion politiketan (diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan) parte hartzea sustatzeko eta egituratzeko ezinbesteko harremana bilakatzen baita. Hau da, EGKren helburu nagusietako bat.

5.5 EGK lurralderantz

Deskribapena

EGKko lurralde koordinatzaileen lana, herrialdean (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba) ematen diren errealitate desberdinen gaineko ezagutza izatea da. Zentzu horretan, EGK osatzen duten teknikariek arloka lan egiten dute eta lurralde koordinatzaileen lana ere bada lurralde historiko bakoitzari ahalik eta hoberen txertatzeko arlokako teknikariekin zuzenean lan egitea.

Horrela, lurralde koordinatzaileek arlokako teknikarien lana herrialde bakoitzean txertatzen saiatzen dira, bakoitzak izan ditzakeen berezitasun eta nabardurak kontutan hartuz.

Beraz, lan koordinatu bat burutzea ezinbestekoa da, arlokako teknikarien lana ahalik eta fruitu handienak jaso ditzan. Lan hau, aurre ikusitako ekintza egiteko lekua topatzetik, parte hartzaileak aukeratzera, edo gonbidapenen zerrenda egira iritsi daiteke, kasuan kasuko laguntza eskainiz.

Lurraldeko erreferentziazko bulegoko lana ere burutzen da. Honetan aritzeak ardura asko exigitzen ditu EGKren egitasmo zehatzekin lotuta ez daudenak, baina guztiz ezinbestekoak direnak eta denbora eskatzen dutenak:

- Telefonoari arreta eta bideratzeak.
- Hurbiltzen denari arreta eta bideratze zerbitzuak eskaini.
- Material, dokumentazio, eskutitzak, emailak… jaso artxibatu eta deribatu.
- Oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu.
- Informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu.
- Agenda egunean eraman eta koordinatu.

Honekin batera, datu basea komunean antolatzeko herramintaren bat bilatzeko lanean lagundu da, bai eta, EGKko azpiegituren erabilera zabaldu eta arautzearena besteak beste.

Helburuak

OROKORRA:
- Arlo teknikoak lurralderantz kobertura ematea

ZEHATZAK:
- Lan Talde Teknikoarekin batera EGKko barne koordinazioa ahalbidetu
- Egoitzetako kudeaketa lanak burutu
- Urteko plangintza eta memoria egin

Hartzaileak

- EGKko lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- Gazte eragileak

Ekintzak

**Atal honen zehaztapenetarako, ikus gainontzeko arloetan aurrikusitako ekintza eta proiektuak eta haien kronogramak-jarraipenak.*

Jarraipena eta ebaluaketa

Urtero bezala, iraunkorra den lan honek eskatzen dituen eginbeharrak, behar bezala bete dira, garaiaren arabera edota lankide kopuruaren arabera ordu kopurua ere aldatzen delarik. Horrekin batera, egunerokotasuneko lana hobetzeko zenbait egokitzapen burutzeko beharra ikusi da aurten: Datu basea komunean antolatzeko herramintaren bat bilatzekoa edota EGKko azpiegituren erabilera zabaldu eta arautzearena besteak beste.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako koordinatzaileak

- Izandako bilerak:
    - Koordinazio bilera: 6
    - Bilera Teknikoak: 10
    - Bilera Teknikoa + Iraunkorra: 4
    - Iraunkorrarekin bilera: 8
    - Asanblada orokorra: 1 (martxoak 10)

6. PRESIDENTZIA

A) BARNE KOORDINAZIOA

6.1 BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki organoa da, 11 pertsonek osatutakoa. 2 urtean behin hautatzen dira pertsona hauek Batzar Orokorrean, EGKko kide diren elkarteek aurkeztutako hautagaien artean.
2011ko martxoan ospatutako Batzar Orokorrean orain lanean dirauen Batzorde Iraunkor ra hautatu zen.

Presidentziatik EGK-ko Batzorde Iraunkorraren koordinazio eta dinamizazio lana egin da. Erabaki-organo hau gutxienez bi astetan behin bildu da (opor garaian ezezik) Kontseiluaren eguneroko lanaren gainean egoteko eta momentuko gai garrantzitsuen inguruan erabakiak hartzeko.
Urte honetan, gainera, Lan Talde Teknikoarekin harremana estuagoa izan zedin eta komunikazioa zuzenagoa, Batzorde Iraunkorraren bilera bakoitzera lurralde teknikari bat etorri da. Honetaz gain, 2 hilabetean behin Batzorde Iraunkorrak Lan Talde Tekniko osoarekin batera ospatu ditu bilerak. Funtzionamendu honek asko hobetu du bi organo hauen arteko koordinazioa eta informazio trukaketa, oso eraginkorra izan da.
Batzorde Iraunkorreko kide bakoitzak teknikari batekin kontaktu zuzenean egoteko ardura hartu du baita ere, hala lan arlo guztien gaineko informazio gaurkotua eduki eta Batzorde Iraunkorraren bileretan erabakiak hobeki hartzeko helburuarekin.
Bestalde, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztien inguruan jakinaren gainean mantentzeko lana egin da baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Batzorde Iraunkorraren egituraketa dela eta, partaide gehienak bizkaitarrak direla ikusita organo honen bilera guztiak Bilbon egin dira. Batzorde Iraunkorreko kide bakoitzak bere ardura den teknikariarekin egindako bilerak, aldiz, unean uneko beharren arabera erabaki da non ospatu.

6.2 LAN TALDE TEKNIKOA

Lan Talde Teknikoan aurten hainbat aldaketa bat eman da. Azken urteotan Hezkuntza arloan aritu den teknikariak lanpostua utzi du ekainan, adina zela eta. Hautaketa prozesua hilabete horretan bertan egin da, baina Hezkuntza teknikari berriaren kontratazioa Irailera arte atzeratu da. Erabaki hau hartzeko arrazoia ekonomikoa izan da. Izan ere, 2012ko aurrekontuan Eusko Jaurlaritzaren aldetik jasan dugun murrizketa berria kontutan hartuta eta uda garaian Kontseiluaren lan karga jaitsi egiten dela ikusita, hilabete horietan zehar postu hori ez betetzea erabaki da eta bere funtzioak gainontzeko langileen artea hartzea.

Presidentziatik eta idazkaritza/administrazioaren laguntzaz, Kontseiluko Lan Talde Teknikoaren barne koordinazioa eraman da aurrera. Izan ere, EGKren egoera ekonomiko larria dela eta Arloetako Koordinatzaile lanpostua betetzeko ezin izan zen inor kontratatu aurreko urtean, eta bi langile hauen artean (presidentea eta idazkaria) banatu zen lanpostu honen lan-karga. 2012 honetan egoera ekonomikoa are okerragoa izan dela kontutan izanda, lanpostu honen lan karga bi langile hauen artean eraman da oraindik ere.

Lan Talde Teknikoa gutxienez hilean behin bildu da (opor garaian ezezik)lan arlo bakoitzean lantzen ari zena eta landuko zena jakinarazi, elkarren artean koordinatu eta erabakiak hartzeko. Deialdiak egin, gaiordenak prestatu eta aktak jasotzeko lana presidentziatik egin da.
Honetaz gain eta 6.1 atalean adierazi bezala, 2 hilabetetan behin Batzorde Iraunkorrarekin batera bilerak egin dira, beharrezko gaiak landu eta informazio trukaketa zuzena egikaritzeko.

Lan Talde Teknikoaren bilerak lurraldez lurralde txandatzen joan dira lurraldetasunaren oreka mantentzeko, nahiz eta Batzorde Iraunkorrarekin batera ospatutako guztiak Bizkaian izan diren.

6.3 BATZORDE EKONOMIKOA

Presidenteak, idazkariarekin eta diruzainarekin batera Batzorde Ekonomikoa osatzen du, Kontseiluaren ekonomiaren gainean dagoen lan taldea. Gutxienez hilean behin bildu da Batzorde Ekonomikoa diru kontuak eguneratuta mantentzeko eta gainontzeko organoak (Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Teknikoa) jakinaren gainean mantentzeko.
Martxoan ospatutako Batzar Orokorrean diruzainak justifikazio ekonomikoa aurkeztu zuen Batzorde honen izenean.
Urte amaiera aldean bilera bereziak egin ditu Batzorde honek, Eusko Jaurlaritzako gobernu aldaketa zela eta 2013rako aurrekonturik ez baita aurkeztu. Honek Kontseiluaren egoera kinka larrian jarri du, 2013ra begirako plangintzak osatzea ia ezinezkoa gertatu baita eta etorkizun ekonomikoa zintzilik dago raindik ere memoria honen amaiera momentuan.

Batzorde Ekonomikoa beti Bilboko egoitzan bildu izan da, eguneroko administrazio lanak eramaten dituen pertsona, eta ondorioz dokumentazio guztia eta datu informatizatuak, bertan baitaude.

6.4 EGKko BATZAR OROKORRA

2012ko martxoaren 10ean egindako Batzar Orokorraren prestaketa, deialdia eta dinamizazioa presidentziatik zuzendu dira, teknikarien eta Batzorde Iraunkorraren laguntzaz. Gainera aldez aurretik lurraldeka egiten diren prestaketa bilerak ere koordinatu eta dinamizatu dira arlo honetatik.
Batzarrean bertan dinamizazio eta moderazio lanak egin ditu presidentziak

Batzarra Donostian izan da, Deustuko unibertsitatean.

B) ERAKUNDE GARAPENA

6.5 “INDARTZEN” PROZESUA

2011ko Martxoan ospatutako Batzar Orokorrean EGK birdefinitu eta birrestrukturatzeko “Indartzen” prozesua martxan jartzea adostu zen, batzarrean aurkeztu ziren hainbat proposamenen harira. Hala, Kontseilu ereduaren inguruko hausnarketa eta birdefinizioa martxan jarri zen Kontseilukide diren hainbat teknikari eta elkarteetako kideekin. Presidentziak Batzorde Iraunkorra ordezkatzeko ardura hartu zuen prozesu honen baitan.
Hala, urtean zehar Batzorde Iraunkorraren eta prozesu honetako lan taldearen arteko zubi lana egin du. Hala ere, prozesua geratuta egon zen zenbait hilabetetan, prozesuaren dinamizazioaz arduratu behar zen eragilearen aldetik. Indartzen prozesuaren nondik-norakoak, momentuko egoera eta aurrera begirako proposamena 2012ko Batzar Orokorrean aurkeztu ziren presidentziatik, eta batzar hartan bertan prozesuari berriro heltzea erabaki zen, epe muga bezala 2013ko Batzar Orokorra jarrita.
Presidentziak prozesuaren dinamizatzaile den erakundearekin zenbait bilera egin ditu urte hasieran eta berriz jarri da martxan.

Indartzen prozesuko bilera guztiak Bilboko egoitzan ari dira egiten.

6.6 EBALUAZIOA ETA PLANGINTZA

Presidentziatik koordinatu da urteko memoria egikaritu eta egindakoaren ebaluazioa aurrera ateratzeko lana, bai Lan Talde Teknikoarekin eta baita Batzorde Iraunkorrarekin ere. Honetaz gain, hurrengo urterako plangintzaren bateratzea eta koordinatzea ere arlo honetatik bideratu da.
Honetarako bi organoekin (Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Teknikoa) mantentzen diren ohiko bilerak baliatu dira. Gainera, e-posta eta ftp zerbitzari bat erabilita presidentea arduratu da dokumentu guztiak bateratu eta formatua emateaz, idazkariaren laguntzarekin (Arlo Teknikoetako Koordinatzailearen ardura baitzen, bi postu hauen artean banatutakoa, 6.2 atalean azaldutako moduan).

6.7 IRUDI PUBLIKOA

Presidentziatik medioen aurrean hainbat agerpen egin dira gai desberdinak jorratzeko. Prentsa idatzian, irratian eta telebistaz azaltzeaz gain, hainbat iritzi artikulu eta erreportaje ere idatzi dira gazteriarekin zerikusia duten gaien inguruan.
Puntu hau 4. KOMUNIKAZIOA atalean azaltzen da era zabalagoan.

D) BAKEA

2011an zehar Lokarri erakundearekin aurrera eramandako elkarlana kontutan hartuta eta Ipar Irlandara egindako bidaiaren ostean, Oinatzak taldeari jarraipena eman zaio 2012 honetan. Talde honetan Lokarriko ordezkariek, EGKko presidenteak eta hainbat gazteria politikoetako ordezkarik hartu dute parte: Alternatiba, Gazte Abertzaleak, Gazte Independentistak, Juventudes Socialistas de Euskadi eta EGI. Urte hasieran Iratzarri ere aritu zen taldean lanean, baina haien barne arrazoiak zirela medio, taldea uztea erabaki zuten.
Beraz, EGKk duela zenbait urte lantzen zuen lan arlo bat berreskuratu du aurten, Bakea. Presidentziatik hartu da hau lantzeko ardura, eta Lokarrirekin egindako elkarlanaz gain, Presidentzia arduratu da baita ere GazteEkin! proiektuan landutako Bakea gaia koordinatu, dinamizatu eta ondorioak ateratzeaz.

Oinatzak taldearen bilera gehienak Bilbon egin dira, Lokarriren egoitzan. Bestalde, GazteEkin! proiektu barnean bakearen inguruan egindako topaketa Donostian izan da.

E) ERAKUNDEEKIKO ELKARLANA

6.8 LEGEBILTZARRA

Martxoko Batzarraren ostean, EGKren asmo eta lan-ildoen berri eman zitzaion Gazteria eta Kultura Batzordeari, Legebiltzarrean.

6.9 JAURLARITZA

Gazteria Zuzendariarekin bildu da hainbatetan presidentea, Gazteen Euskal Legearen zirriborroaren inguruan hitz egiteko, aurrekontuen gainean eztabaidatzeko eta baita bilera informatiboak egiteko ere.
Honetaz gain, kontaktua mantendu da telefono eta e-posta bidez Gazteria Zuzendaritzarekin.

6.10 ALDUNDIAK

EGKk Aldundiekin dituen hitzarmenen inguruan eztabaidatzeko bildu da urtean zehar presidentea bertako Gazteria Zuzendariekin. Arabako Aldundiarekin 2012an ez da hitzarmenik adosterik lortu. Bizkaiarekin lau urterako lotuta zegoen hitzarmena berritzeko garaia zen, eta baldintza beretan lotu da berau. Gipuzkoaren kasuan, urte baterako hitzarmena lotu da. Azken bi Aldundi hauekin zenbait jarraipen bilera egin dira gainera, adostutako konpromezuen jarraipena eraman ahal izateko. Guzti hau Presidentziatik egin da, lurralde bakoitzeko koordinatzailearen laguntzaz eta baita Batzorde Iraunkorreko diruzainarekin batera ere.

6.11 BATZAR OROKORRAK

Aurten, Araban gazteria politikekiko eta gazte elkartegintzarekiko administrazio publikotik hartu diren neurriak ikusita, bertako Batzar Orokorretako hainbat talderekin bilerak egin dira egoera salatu eta EGKren egonezina eta ikuspegia azaltzeko. Bilera guzti hauek Presidentziatik abiatu dira.

6.12 ALDERDI POLITIKOAK

2012ko urriaren 21eko hauteskundeak zirela eta, EGKk ia alderdi politiko guztiekin bilerak egin ditu aldez aurretik. Bilera hauetan gazteria politiken inguruan haien asmoak zeintzuk ziren, EGKren hauen inguruko ikuspegia eta iritzia zeintzuk diren eta EGKrekiko duten ikuspegia zein den landu da.
Bilera hauek Presidenteak eta Batzorde Iraunkorreko kideek egin dituzte, gehienak Bilbon.

6.12 BESTE ERAKUNDEAK

2012an Gazteriapolitiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbat eragilerekin ere kontaktu zuzena eta jarraia eduki da, Presidentziatzik abiatuta. Hala nola: Nafarroako Gazte Kontseiluarekin, Eusko Ikaskuntzaren Gazteria Sailarekin eta Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin.